eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

SOZIOLOGIA
IKASTURTEA 2018-2019

# GUGGENHEIM EFEKTUA: HIRI BERRI BATEN ERAKETA

## Henri Lefebvre-ren espazioaren produkzioaren tesitik abiatuta

EGILEA: Argia Cortabitarte Salan
ZUZENDARIA: Ander Iturriotz Lauzirika

2019ko irailaren 2a

Ikerketa honen bitartez, Guggenheim efektuaren eraginez Bilboko hiriak pairatutako aldaketak ezagutu eta eraldaketa prozesuaren ondorioz eraiki den hiri berria aztertu nahi dira. Horretarako, espazio berrien sorrera eta antolamendua, espazio hauetan nagusitu diren jarduerak eta espazio hauen bueltan sortu den iruditegia izango ditugu ardatz. Behaketa zuzenaren bitartez, Bilboko hirian abiatu diren azpiegitura, ekimen eta gertaerak aztertu eta hiri ereduaren konfigurazioan izan duten garrantzia ikertuko da. Bilboko hiri konfigurazioaren aurka, mugimendu sozial ezberdinek adierazi dituzten kritikak eta protestak argitara emango dira ere.

**Hitz gakoak:** ***Guggenheim efektua, hiri birsorkuntza, hiri antolamendua, turismoa, espektakularizazioa***

Por medio de este estudio se darán a conocer tanto los cambios provocados por el efecto Guggenheim en Bilbao, como la nueva ciudad constituida a partir del proceso de transformación. Para ello, los ejes fundamentales serán la creación de nuevos espacios y la ordenación urbana, las actividades hegemónicas en dichos espacios y el imaginario creado en torno a estos. Por medio de la observación directa, se estudiará la importancia de las infraestructuras, iniciativas y eventos puestos en marcha. Se expondrán las críticas que parten de los movimientos sociales en contra de la configuración de la ciudad.

**Palabras clave:** ***efecto Guggenheim, regeneración urbana, ordenación urbana, turismo, espectacularización***

In this study, the changes caused by the Guggenheim effect in Bilbao, as well as the new city constituted from the transformation process will be detailly explained. In order to achieve the proposal of the research, the creation of new spaces and urban planning, the hegemonic activities in these spaces and the imaginary created around them will be the core ideas. Through direct observation, the importance of the infrastructures, initiatives and events implemented will be studied. Criticisms based on social movements against the configuration of the city will be also exposed.

**Keywords:** ***Guggenheim effect, urban regeneration, urban planning, tourism, spectacularization***

# AURKIBIDEA

**1. SARRERA**....4
1.1 LANAREN AUKEZPENA....4
1.2 HELBURUAK....5
**2. ABIAPUNTUA**....7
2.1 MARKO TEORIKOA....7
2.1.1 Espazioaren produkzioa....7
2.1.2 Guggenheim efektua eta kultur eredua....9
2.1.3 Hiri eredu eta mugimendu sozial urbanoak....14
2.2 GARAPEN HISTORIKOA....17
**3. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA**....28
3.1 DISEINU TEKNIKOA....30
**4. AZTERKETA PRAKTIKOA**....32
4.1 HIRI ANTOLAMENDUA....32
4.1.1 Sakoneko azterketa: Abandoibarra eta Barakaldo....39
4.2 ERAIKIN ETA EGITURA KULTURALAK....45
4.2.1 Museoak....46
4.2.2 Beste eraikin eta aretoak: Euskalduna, BEC eta Azkuna Zentroa....50
4.3 GARRAIO AZPIEGITURA....53
4.4 KOMERTZIO MASIBOA ETA LUXUZKO HOTELAK....59
4.4.1 Komertzio masiboa....59
4.4.2 Luxuzko hotelak....63
4.5 EKITALDI ETA FESTIBAL INTERNAZIONALAK....64
4.5.1 Kirol ekitaldiak....64
4.5.2 Musika festibal eta ekitaldi internazionalak....67
4.5.3 Errekonozimendu eta sariak....69
**5. ANALISI TEORIKOA**....70
5.1 ESPAZIOAREN TRIADA, LEFEBVRE-REN ESKUTIK....71
5.1.1 Espazio irudikatua....71
5.1.2 Espazio atxikia....76
5.1.3 Espazio bizitua....80
5.1.4 Espazio abstaktua....83
5.2 MUGIMENDU SOZIALAK: PROTESTAK ETA KRITIKAK....84
5.2.1 Ernai Gazte Antolakundea....85
5.2.2 Bilboko Gazte Asanbladen Sarea....86
5.2.3 Piztu Bilbo....87
**6. ONDORIOAK**....90

**BIBLIOGRAFIA**....92

**WEBGRAFIA**....93

# 1. SARRERA

## 1.1 LANAREN AURKEZPENA

Gradu Amaierako Lanaren ikergaia mugarriztatzeko lehen saiakera honetan objektua definitzea da helburu nagusia. Honekin batera, hurrengo lerroetan ikergaiaren bueltan planteatu ditudan hainbat helburu azaltzeari ekingo diot, behin hauek azalduta, lehenengo intentzio eta asmoak finkatzea lan errazagoa izango delakoan. Helburuak azaldu aurretik, ikergaia hautatzearen arrazoiak plazaratuko ditut; ikergaiak duen gaurkotasun eta interes sozialaz gain, interes pertsonalari erantzuten dio, konkretuki, bizi esperientziaren ondorioz sorrarazitako kezkari.

Gradu Amaierako Lana aitzakia gisa harturik, zeharkako era batean baina modu nabarmenean heziketa prozesu zein bizi esperientzia osoan zehar eragina izan duen eta hurbiletik ezagutu dudan fenomeno bati eutsiko diot: hain zuzen ere, fenomeno hau Guggenheim museoa dugu, eta berekin Bilboko hirian hedatu diren hainbat eta hainbat aldaketa. Efektu honek Bilbotarron bizitzetan eragina izan duela argia da; nire kasuan eragina era zuzenago batean bizi dut, leihora hurbiltzen naizen bakoitzean bertan baitago azken hamarkadetan hiri oso baten eraldaketan erantzukizunaren zati handi bat izan duen eraikina. Horrela oroitu dezaket nire haurtzaroa: nire etxearen inguruko etengabeko azpiegitura aldaketak eta obrak, etxe aurreko espaloitik hasita, La Salve zubiaren egungo arku artistikora arte. Eta nola bizi eta sentitu zuten hiria Guggenheim efektuaren aurreko belaunaldiek? Nolakoa zen Bilbo eta zer dela eta ziztu biziko eraldaketa hau?

Kezka pertsonaletik haratago, eta esan bezala, Guggenheim museoa hiri oso baten eraldaketan lagundu duen apaingarria izanik, aldaketa sozioekonomiko eta kulturala bultzatu duen ikonoa dugu. Aldaketa sozioekonomikoari dagokionean, Bilboren paradigma ekonomikoaren aldaketaren erreferentzia gisa har daiteke: hiri metropoli industriala izatetik, Europa mailan ospea hartu duen hiri turistikoa bilakatu da. Hiri eredu konkretu bati erantzuten dio: zerbitzu eta hirugarren sektorea nagusitzen den honetan, eskaintzaren erakargarritasuna lehenesten da. Kulturaren komertzializazioaren bitartez eraiki izan da orain ezagutzen dugun Bilbo hiria: kulturaren hutsaltzeak eta honen kontsumo arinak mundu mailan, eskala globalean, hedatzen ari den joerara moldatuz. Jada ez da kulturaren kalitatea eta berezko dituen ezaugarriak aintzat hartzen; hiria lehiakor egiten duen aisialdiari, kultur eskaintza lausotuari, bat-bateko kontsumoari, azaleko irudi artifizialari, handitasunari eta ikusgarritasunari ematen zaio garrantzia. Hori da egun ezaguna den Bilbo, lehiakortasun horretan etengabe jarduteko berritzaileak diren ekitaldi eta azpiegiturak birsortzen ari dena, hiri eta kultur eredu globalizatu eta komertzial bati men egiten diona.

Kezka sozialari dagokionean, Guggenheim efektuarekin batera eraldatu den Bilboko hiriak auzoetan izandako eraginak aipatzekoak dira. Azkenaldian, mugimendu sozialen baitan asko zabaldu den hitzarekin harremanetan dago, gentrifikazioarekin, hain zuzen ere. Izan ere, hiri eredu zein kultur eredu honek hiriaren eraldaketa sozioekonomikoa bultzatzearekin batera, merkataritza jakin bat hedatzen du auzoetan: luxuzko hotelak, izen eta sinadura famatuko arropa dendak, mundu mailan ezagunenak diren frankiziak, eta hiria komertzializatzera bideratuak daden mila azpiegitura eta zerbitzu ezberdin. Laburbilduz, turismoari begira doan eskaintza nagusitu da auzoetan, bizi baldintzak okertzearekin batera, auzoetako bizitza garestitzen duelarik. Bilboko eraldaketaren partaide izan diren azpiegitura espektakularrek auzoa eta espazioa, bera, birbalorizatu dute, hiritar xumearentzat bizitza zailagoa egiten, espazio honetatik kanporatzera heldu arte. Horrekin batera, beste hiritar eredu bat erakarria izan da Bilboko hirira, klase sozial egonkortu eta aberatsago baten parte dena. Errealitate berri honi aurre egiteko hainbat mugimendu sozial piztu dira eta hauek Bilboko auzoetako bizilagunen interesen defendatzea dute helburu. Hala, hiri ereduaren fenomenoa mundu mailako kapitalismo basatiak ireki duen fase berriaren baitan gauzatzen dela ulertzen dute.

Behin ikergaia justifikatua eta honek duen interesaren inguruko hainbat arrazoi plazaratu ostean, hautatutako objektua eta ikerketan zehaztu ditudan helburuak aurkeztuko ditut. Ikergaiari dagokionean, Guggenheim museoak, espresuki, Bilboko hiriaren eraldaketan izandako paperari egiten dio erreferentzia. Museoa eta honen eraginpean zabaldu den hiri eraldaketaren azterketa Henri Lefebvre-ren teorizazioetatik abiatuko da, espazioaren produkzioaren ulerkera konkretu bat aintzat hartuz. Hortaz, hurrengo izenburua eman diot ikergaiari: **Guggenheim efektua: hiri berri baten eraketa. Henri Lefebvre-ren espazioaren produkzioaren tesitik abiatuta.**

## 1.2 HELBURUAK

Azterketa objektua definitzearekin eta ikerketa abiatzeko interes eremu ezberdinak azaltzearekin batera, aipatzea ikergaiak adierazten duen bezala ikerketa Bilboko hiri eremuan gauzatuko dela. Horretaz gain, lan lerro edo helburu ezberdinak plazaratuko ditut, izan ere, asmo hauek hizpide harturik egongo da lana egituratua. Hala, sarreran aipatutako hainbat arrazoiren eskutik osatutako helburuak dira puntu honetan azalduko ditudanak. Helburuekin batera, hauekin harremanetan dauden ikerketa galderak aurkeztuko ditut, azterketan eman beharreko pausoak erraztasun handiagoz antzemateko.

Hortaz, ikergaiari jarraiki eta ikerketa gidatzeko definitu ditudan helburu nagusiak eta iker galderak hurrengoak dira:

1. **Guggenheim efektuaren abiapuntua, prozesua, interesak eta eraginak ezagutzea:**

- Guggenheim efektua non du bere abiapuntua eta nola garatzen da denboran zehar? Zerk edo nork sustatzen du efektu hau? Zer interes eta eragin aurki daitezke efektu honen baitan?

2. **Bilboren eraldaketaren sustatzaileak identifikatzea eta hauen interesak argitara eman, prozesuaren inguruan eraikitako irudia eta esentzian izan dena eztabaidan jarriz:**

- Zeintzuk dira Bilboko hiriaren eraldaketan parte aktibo izan diren eragileak? Zer dela eta eragin dute hiriaren eraldaketa?

- Eraldaketa honen bueltan, zer irudi eta kanpaina transmititu izan da? Egiatan, irudi horrek errealitatearekin bat egiten du edo kontraesanak aurki daitezke?

3. **Bilbo hiriak bizitako eraldaketa aztertzea, eraldaketa prozesuan zehar martxan jarri diren ekimen esanguratsuak aztertu, jatorria eta zergatiak sakonean ezagutuz. Ekimen hauekin harremanetan, prozesuaren eraginak pairatzen dituzten alderdiak aztertu, hala nola, kultur eredua:**

- Bilboko eraldaketa prozesuan zer ekimen esanguratsu gauzatu dira eta zer azpiegitura enblematikok ezaugarritu du prozesu hau? Non dute sorrera ekimen hauek eta zer dela eta sorrarazi dute interes berezi bat hirian?

- Zer nolako eragina dute ekimen esanguratsu hauek hiria ezaugarritzen duten alderdi ezberdinetan?

4. **Bilbo hiriak hartutako izaera aztertu, erantzuten dion hiri ereduarekin harremanetan jarriz:**

- Bilbo hiri eraldatuak zer nolako izaera du eta zer hiri ereduri erantzuten dio? Hiri eredu honek zer logika eta dinamika ditu?

5. **Bilboko hiri ereduaren aurrean, aurkakotasunean oinarritutako erantzuna eman duten herri ekimen eta mugimenduen eskakizunak eta interesak aztertu:**

- Bilboko hiri ereduaren aurrean, zer mugimendu agertzen dira? Zergatik antolatzen dira eta zeintzuk dira hauen eskakizun eta interesak?

# 2. ABIAPUNTUA

## 2.1 MARKO TEORIKOA

### 2.1.1 ESPAZIOAREN PRODUKZIOA

Marko teorikoarekin hasteko erabiliko dudan lehenengo iturria Henri Lefebvre-en *La producción del espacio* (2013) liburua izango da. Batez ere, liburuaren bigarren kapituluan ageri diren hainbat kategoria aztertuko dira, Lefebvre-ren tesi orokorra aurkeztearekin batera, azterketa praktikoa erraztea eta marko teorikoan garatuko diren beste hainbat autorerekin harremanetan jartzea helburua delarik.

Lefebvre-ren helburua Marx-ek aztertutako produkzio eredu kapitalistaren mekanismo eta prozesuek, produkzio harremanek, hain zuzen ere, egunerokotasunean duten eragingarritasuna aztertzea zen. Horretarako, landa eta hiriaren arteko banaketa oinarritzat harturik, hiriaren eta eremu urbanoaren auzia landu zuen autoreak. Espazioaren ikerketan, Lefevbre-ren hipotesi nagusia hurrengoa da:

> *"Es el espacio y por el espacio donde se produce la reproducción de las relaciones de producción capitalista. El espacio deviene cada vez más un espacio instrumental" (Lefebvre, 2013:223).*

Izan ere, espazioa ez da produktu gisa ulertu behar: produktu bat pasiboa da, hutsa, zentzu bakoa eta trukatu, kontsumitu eta desagertzen dena. Espazioa honen produkzioan eragina du: lan produktiboa, garraioa, lehengai eta energiaren fluxua eta produktuen banaketa sareak antolatzen ditu. Espazioa, ekoizkor eta ekoizle gisa, produkzio harremanen eta indarren artean kokatzen da. Ezin da era estatiko eta baztertu batean ulertu, izan ere izaera dialektikoa du: produktu eta produzitzaile da, harreman ekonomiko eta sozialean euskarria, hain zuzen ere. Espazioaren produkzioa, prozesu gisa ulerturik, eta produktua, sozialki produzitutako espazio gisa antzemanda, banaezina den elementu bakar bezala aurkezten da. Gizarte bakoitzak, momentu historikoari lotuki, espazio jakin bat produzitzen du, harreman trialektikoa duen eta bukatu ezina den prozesu baten bitartez. Trialektika hau tripode kontzeptual batek sostengatzen du: espazioaren errepresentazioak, espazio errepresentatuak eta praktika espazialak (Lefebvre, 2013:63-125).

Hortaz, liburuaren bigarren hipotesia hurrengoari eutsiko lioke: gizarte eta produkzio eredu bakoitzak espazioa produzitzen du, momentuan hobekien egokitzen den espazioa, hain zuzen ere. Espazioa produktu soziala da, momentu jakin batean ematen diren produkzio harremanen fruitua, forma espazio-territorial determinatu batean materializatzen den prozesu historikoaren akumulazioaren ondorioa. Prozesu historiko bakoitzean triadan norgehiagoka aritzen diren elementu

ezberdinen emaitza nagusitzen da. Hortaz, triadaren baitako elementuak elkar harremanetan jartzen dira: espazio irudikatua (espacio concebido), espazioaren errepresentazioak modura; espazio atxikia (espacio percibido), praktika sozial gisara; eta espazio bizitua (espacio vivido), errepresentazio espazioak bezala (Lefebvre, 2013:63-125):

Alde batetik, **espazio irudikatua** (espacio concebido) zientifikoen, planifikatzaileen, urbanisten, teknokraten eta abarren espazioa da. Botere harreman zein ekoizpen indarren arabera determinatua, ordena bat ezartzen saiatzen dira espazio honetan, biolentziaren zein kodigoen bitartez espazioa antolatzeko asmoarekin. Ezagutza zientifiko zein lengoaia teknikoen bitartez eraikitzen denez, zaila bihurtzen da zalantzan jartzea. Espazio dominantea da edota dominante izan nahi du, bere helburua espazio atxikia zein espazio bizitua hegemonizatzea izanik. Boterearen espazioa da, beti ere botere hau agerian utzi gabe; boterea espazioaren antolaketaren inposaketan oinarritzen da.

Bestetik,  **espazio atxikia** (espacio concebido) bezala izendatu dena, espazioan garatzen diren praktikei egiten die erreferentzia. Hala, gizarteak espazioa ekoitzi eta bereganatzean nagusitzen dira praktika sozialok. Espazioa bera deszifratzean espazioaren gaineko praktikak antzemateen dira. Eguneroko praktikan espazioari ematen zaion erabilera nagusituko litzateke hemen. Plazei edo kaleei ematen zaien erabilera izan dezakegu adibide moduan. Praktika hau, espazio eta denbora batean era konkretu baten edo besten ematen da. Praktikak espazioari bere izaera soziala ematen dio, beharrezkoa baita kohesioa mantentzeko orduan.

Bukatzeko, **espazio bizituan** (espacio vivido) sistema sinbolikoak nagusituko lirateke, kodifikazioaren bitartez argazki zein iruditegietan bihurtuz. Batez ere, artista, idazle zein filosofoen espazioa litzateke hau, haiek bakarrik uste baitute gai direla espazio hau deskribatzeko, nahiz eta biztanle eta erabiltzaileen espazioa ere izan. Boterearen sinbolo zein kodigoak aurkitu daitezke, hala ere, subertsiorako eta eraldaketarako aukera egongo litzateke. Espazio honetan ere, hitzezkoak ez diren koherentziazko sinbolo eta sinuen sistema eraikitzera tendentzia dago.

Joko trialektiko honen baitako hiru esferak eta euren arteko elkarreraginak ez dira egonkorrak. Hainbat dira hiru esfera horien arteko ezegonkortasunetik abiatzen diren tentsioak: espazioa irudikatua izan aurretik espazio bizitua behar du izan, eta interpretatua izan aurretik hau produzitua izan behar du, espazio urbanoen bertutea zalantzan jarriz. Espazioen irakurketaren eta testu espazialaren deskodifikazioaren helburu nagusia errepresentaziorako espazioak, hau da, espazio bizituak, espazioaren errepresentazioak (teknokraten aldetik era abstraktu batean irudikatuak) bilakatzeko trantsizioa ulertaraztea da. Hortaz, hiru esfera hauen arteko harremana gatazkatsua izaten da, batez ere, orain aipatutako bi elementuei dagokionean. Politika eta ideologiagatik sakonki markatua dagoen dialektika da (Lefebvre, 2013:63-125).

Espazio bizitua espazio dominatua izan ohi da, era pasibo batean jendeak esperimentatzen duena. Azken finean, klase dominatzaileen eta teknokraten aldetik desio objektu bilakatzen da, izan ere, aktore hauek espazio hori kodifikatzen, arrazionalizatzen eta plano, proiektu eta diskurtso ezberdinekin usurpatzen saiatzen dira (Lefebvre, 2013:63-125).

Espazio urbano gisa hartu behar den hori, errealitate gisa har daitekeen hori, triplizidade honen baitako harreman dialektikoaren prozesu historikoak izandako kontraesanen ondorioa da. Sistema kapitalistak kontraesan espazialak areagotzeaz gain, espazio paradigmatiko berrien produkzioari ekiten dio, espazio berriak sortuz: espazio abstraktua (Lefebvre, 2013:63-125).

Laburbilduz, espazio abstraktua izango da kritika honen helburua. Kapitalismoaren espazio nagusiena espazio abstraktua da. Kapitalaren akumulazioan oinarritzen den espazio hau ekoizpen eta birprodukzio prozesuak banatzen dituen espazioa da, espazioaren izaera instrumentala garatuz. Espazioaren konfigurazio honetan espazioaren irudikapenak izango luke garrantzi handia, non teknokratek, batez ere, eskura dituzten boterearen medio eta tresnekin botere hori gizarte osoari ezarri nahi dioten. Lefebvrek jarrera hauek ideologia berri baten garapenarekin lotzen ditu, *urbanismoa*, hain zuzen ere. Urbanismoaren izenean klase zapaltzailearen estrategia lausotu egiten da, planifikazioa, arrazionalitate zientifikoa, klasifikazio eta kontrolaren baitan (Lefebvre, 2013).

### 2.1.2 GUGGENHEIM EFEKTUA ETA KULTUR EREDUA

Iñaki Esteban Guggenheim museoak Bilboko hirian ekarritako efektua azaltzen du *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento (2007)* liburuan. Museoaz izendatzeko *ornamento* hitza erabiltzen du, apaingarriaz, hain zuzen ere. Guggenheim den apaingarria 1997ko urriaren 18an izan zen zabaldua; irekierarekin batera, Bilboko hiria guztiz eraldatuko zuen eta kulturaren gaineko eragin handia izango zuen museoa eredua konkretua hedatu zen. Apaingarri honek egungo museo globalizatuen ereduari erantzuten dio, izan ere, XXI. mendeko museoek aisialdi sofistikatura bideratzen dituzte asteburu pasa datozen turistak. Jada ezin museoa kultur zabalpenerako agertoki bezala ulertu. Bere funtzioak lausotu egin dira; izatez, kulturarekiko harremana aldatu egin da, hutsaldua eta komertzializatua izan delarik. (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Guggenheim museoak inposatutako ereduak lau funtzio betetzen ditu: alde batetik, **hirigintza funtzioa**, hiriari dagokion estetikaren eraldaketa eta irudi berritua dakarren apaingarriaren inplementazioa, berrikuntzara zabalik dagoen hiriaren iritzia sortzeko aukerak irekitzen dituena. Horretaz gain, beste hirien aurrean lehiakorra dela adierazteko ahalmena garatzen du. Bigarrenik, **funtzio ekonomikoa**, merkadoteknia, hiria eta museoa saltzeko propaganda eta kanpainak turismoa eta bestelako inbertsioak erakartzeko helburuarekin. Hirugarrenik, **funtzio politikoa**, berritasunaren irudia zabaldu eta hiria besteen aurretik doanaren sentsazioa hedatzeko helburu duena. Izan ere,

sentimendu hauek kohesio eta bateratasuna ekarri dute Bilboko hiritarren artean, justifikazio, legitimitate eta leialtasunaren gorakada eragin dituena. Bukatzeko, **harreman publikoak egonkortzearen funtzioa**, aktore ezberdinen arteko harremana ahalbidetzen du: hirigintzazko funtzio eta funtzio ekonomikoak apaingarria eraikitzeko erabakia hartzera bultzatzen dituzte politikariak, hiria sinbologiaz josiz eta hiritargoaren leialtasuna goraipatzen delarik (Esteban, 2007).

Nahiz eta hainbat funtzio zerrendatu, **funtzio kulturala** faltan sumatzen da guztiz, museoak bere esentzian izan beharko lukeen funtzio alde batera uztearen ondorioz. Izan ere, izaera honetako museoak argi erakutsi izan du mota ezberdineko eta edonolako edukia ikusgai jartzeko prest dagoela. Hala, aurretiaz aipatutako funtzio guztiak kontuan hartuz, eta funtzio kulturalaren gabezia argia delarik, Guggenheim museoa ez da azpiegitura kultural gisa ulertu behar, honek betetzen dituen helburuak muga kulturaletik haratago daudelako. Hori dela eta, *ornamento* hitza erabiltzean, fenomeno sozial bati egiten zaio erreferentzia: eremu kulturala instrumentalizatzen duen fenomenoari, hain zuen ere. Kasu honetan, museoa den instituzioak egikaritzen du instrumentalizazio hori. Hortaz, XXI. mendeko apaingarria delako honek eredu produktibo baten isla izatetik haratago, hirigintza, irudia eta komunikazioa, jarduera ekonomikoa eta leialtasun politikoa sortzeko ahalmena duen baliabide eta bitarteko gisa ulertu behar da. Ondorioz, apaingarria funtzionala eta produktiboa da, kostu bat izatetik urrun, arrakasta izanez gero oso inbertsio ona suposa dezakeena. Konklusioz, Guggenheim joera argi baten adierazlea da: estrakulturala, ekonomizista eta etekin politikoen bila doan kultur eredu baten hedapenaren legitimitatea du hizpide (Esteban, 2007).

Izan ere, apaingarri deritzon horrek, nahiz eta apaingarri batek baino balio sinboliko pisutsuagoa izan, zabor espazio baten erabateko eraldaketa suposatu du. Hori dela eta, arkitektura garrantzi berezi batez hornitzen da: alderdi honetan egindako inbertsioak hirigintzaren garapenerako estrategiatzat hartu behar dira. Bilboren kasua oso esanguratsua da, izan ere, merkatuak kontrolatzen duen apaingarria izatetik urrun, balio arkitektonikoa duen *ornamentua* politikak gidatzen du, hau da, instituzioen gain jausten da hirigintza, ekonomia eta publizitate interbentzioa. Gainera, hirigintza berria ez da negozioei begira doan azpiegituretara mugatzen; hortik haratago, kulturan oinarritutako eredua da Bilbokoa, turismoan eskaintza berriak egiteaz gain, klase ertain lokalaren ongizatearen isla dena. Immateriala eta artistikoak diren elementu ezberdinetatik abiatutako prozesu honek hiritarrengan arrakasta suposatu du, kultur eskaintza berri bateri loturik joan delako (Esteban, 2007).

Apaingarriaren eraikuntzarekin batera *zabor espazioaren* inguruko teorizazioa agertzen zaigu, espazio hau erabiltzeko eta botatzeko zein berregokitzeko arkitekturak ezaugarritzen du. Izan ere, egun batetik bestera, baztertua eta egoera txarrean zegoen espazioa berregokitzapenaren bitartez, hiriaren leku turistikoena bilakatu daiteke, Bilboren kasuari jarraiki. Guggenheim aurreko Ingelesen

Kanpa adibide oso argia da: pixkanaka-pixkanaka degradatuz joan den gunea, bere erabilera balioa galtzear duena, inongo funtziorik ez duen zabor espazio bilakatzen da. Zentroan kokatua zegoen espazio zabor zaharkitu hau berrantolatu, berregin, berritu, berrikusi eta berreskuratzeko gako garrantzitsua Guggenheim museoa bezalako apaingarria izan zen. Álvarez-ek (1998) aipatzen duen bezala eta Esteban-ek (2007) espazio zaborraren teorizazioetan biltzen duen legez, 1989an jada Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak Abandoibarra industrializazio jardueraren porrotak utzitako hutsuneak estaltzeko leku estrategiko gisa hartuko zela adierazten zuen (Álvarez, 1998; Esteban, 2007).

Zabor espazio honen eraldaketarako bidean apaingarriaren eraketan beharrezkoak ez diren, baina hiriaren eraldaketan paper garrantzitsua jokatzen duten azpiegituretan jarri behar da fokoa. Izan ere, autore famatuek diseinatutako edifizioz eta azpiegituraz osatu da Bilbo museo eraiki zenetik: alde batetik, autore hauek ornamentalitate maila bat ziurtatzen zuten. Horretaz gain, komunikazio bideetan eraikinen publizitateak paper garrantzitsua izan zuen, erakarpenari begira hiria promozionatu zelarik. Guggenheim museoak zeukan forma berezia, arkitektura berritzailea eta ezinezkoak ziruditen neurri exotikoen promozioak, hiritar berritzaile izaerak hornitu zuen. Azpiegitura honek izandako ospeaz baliatuz, Bilboko erregenerazioa museoaren inguruetan hasi zen. Honekin batera, hirian ispiritu positiboa zabaltzeko potentzialitate handiko irudi berri bat eratzen ari zen: sinboloak ahalbidetzen zuen distintzio sozial eta kulturalak aukera berriak ireki zituen eta horretaz gain, Bilbora bidaiatzeko aukera zuen edonorri bideratua zegon luxuaren eta klasearen seinu ere bilakatu zen. Hala eta guztiz ere, eta museoaren garrantzia azpimarratu nahiean, soilik azpiegitura honek erakarri izan ditu turistak; gainontzeko azpiegiturak, honen ondorioz eraikiak izan direnak, hiriaren paisaia osagarritzeko funtzioa betetzen dute (Esteban, 2007).

Kontuan hartzekoa den beste faktore bat ornamentuak edo apaingarriak hirian sortzen duen singularitatea da: gaur egun turismoa leku eta hirien kolekziora bideratua dago, hau da, leku ezberdinetan egoteak esperientzia hauek argazkietan materializatzea ekartzen du, argazki hauek izaera adkisitiboa izateaz gain, argazki multzoak akumulatiboak bilakatzen dira. Ornamentu hauek geroz eta bereizgarritasun handiagoa izatean, geroz eta derrigorrezkoagoa izango da turistarentzat bertan argazkiak ateratzea. Argazkien arteko lehiakortasunak definitzen du leku baten apaingarriak duen bereizgarritasun maila. Izan ere, turismo kulturalak hiria besteen aurrean nabarmentzearen funtzioa betetzen du: distintzioa ezagutarazten du, Guggenheim museoaren bereizgarritasunak, bere arkitektura berezia eta arte moderno eta garaikidea indartzen ditu; hala ere, irismen mugatua du klase erdi mundialera bideratua baitago (Esteban, 2007).

Kultur ereduari dagokionean, edo behintzat, apaingarritik haratago betetzen duen funtzio kulturalari dagokionean, oso era nahasgarrian funtzionatu izan duen museoa da Guggenheim. Bere horretan,

museoak badu kultur balio altua: bere arkitektura berezia da, berritzailea, aurretiaz normalizatuak ez zeuden forma oso ausartaz osaturik dago. Hortaz, zabor espazioa zen Ingelesen Zelaia ahaztearekin batera, arkitekturaren presentziak eta potentziak hartzen dute paper garrantzitsuena, eraikinean arte lanak erakusgai izateko eta mantentzeko baldintza egokiak sortzetik urrun. Eraikinak zentraltasun eta forma artistikoagatik garrantzi berezia hartzearekin batera, artea bigarren plano batean kokatzea eragin du. Arteak Guggenheim museoak duen identitatearen zati bat soilik osatzen du, nahiz eta hau museo gisa definitzen den. Hala, arteak betetzen duen funtzioa museoa den instituzioaren mugimendua sorraraztea eta mantentzea litzateke; hortaz, museoa artelanekin harremanetan soilik euskarri gisa aritzen da. Artea museoaren motorra elikatzen duen oinarrizko iturri gisa aurkezten denez, museoa ornamentu gisa programa propioa diseinatzeko premia du, artelanen erakusketa soiletik haratago. Horregatik, museoa ez da kultur ereduaren adierazpen gisa agertzen, gestionatu beharreko instituzio bezala baizik. Arteak betetzen duen funtzio bakarra ornamentuaren azalpen bat helaraztea da, ongizate ekonomikoa duen irudi moderno bat ematen dio, duen garrantzi politikoa eta luxua adieraziz. Laburbilduz, museoak jarraitzen dituen printzipio estetikoak kontuan hartuta, monumentu bat izango balitz bezala hartzen da. Hiri, eskualde edo nazio bateko botere ekonomiko, politiko eta kulturalaren sinboloa da, eta gizarte honek dituen balioak, konplexitatea eta garaiera azaltzen ditu (Esteban, 2007).

Aipatu bezala, gestioak garrantzia hartzean museoaren funtzio artistikoa alde batera uzten da, hau da, programa artistikoa eta erakusketak garraioak, zirkulazioak eta transformazioak definitzen dute, hau baita museo ornamentuak egungo kapitalismoan euskarri gisa funtzionatzeko duen xede eta asmoa. Funtzio ornamentalek printzipio estetikoen gain gestio funtzioak nagusitzen dituzte. Gestioak sormena eta produkzio artistikoa baino garrantzi handiagoa du museo eredu honetan, artearen difusioaren kalitatean erreparatzen ez delarik. Hain zuzen ere, ornamentura egokitzen den erakusketa modeloa, tenporala dena eta errentagarritasun handia duena, da Guggenheim-ek bere baldintzen arabera hautatzen duena. Agente politiko, enpresarial eta ekonomikoaren interesen erantzule da gestio eredu hau, ikusleak duen garrantzia guztiz deuseztatua gelditzen delarik. Izan ere, erosle eta hautesle izatetik haratago, publikoak jada ez du aitortzarik (Esteban, 2007).

Guggenheim-en ikuskizuna bere ornamentu kondizioetan oinarritzen da: ilusioan, adostasun produkzioan, aisialdiarekin eta luxuarekin harremanetan dagoen mundu ikuskeran, hiri ehuna eraberritzeko gaitasunean, hiritargoaren animoa suspertzean eta hiriaren sinbolo eta logotipo bilakatu den irudi baten bueltan txalotze politikoa bilatzen duen espazioaren sorreran. Alde batera gelditzen da saturatutako museoaren ikuskizunaren ideia. Kontsumo kulturala dibertimendu sofistikatuarekin harremanetan dagoen arren, horrek ez du esan nahi gainkargatua dagoen ikuskizun bati erantzun behar dion eredua denik. Aisialdi denboran egiten den jarduera bat da, esperientzia artistiko eta arkitektoniko berezia eskaintzen duena. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da

Guggenheimek erakusten dituen bildumak balio intelektual handikoak direla, eta horrek ikusle perfil jakin bat erakartzen du, akademikoaren figura, hain zuzen ere. Turistek edo afizionatuek erakusketa horien aurrean euren lekua bilatzen duten arren, beste interes batzuengatik ere erakarriak sentitzen dira, azken finean, erakustaldi horiek bigarren plano batean gelditzen direlako. Hortaz, museora joatea ez da hezkuntza helburu batekin egiten, baizik eta aisialdiaren ordutegiaren baitan sartzen da (Esteban, 2007).

Guggenheim-ek europarra eta nazioartekoa den aisialdi eredu bati eusten dio: bizitza modernoarekin bat egiten du ikuskizun hau kontsumoaren fetitxismoari loturik agertzen zaigu eta honako eredua aurrera eramateko beharrezkoak izan diren ondasun materialen eraikuntzaren atzean dauden ezberdintasun sozialak ezkutatzeko helburua du. Lan eta hipotekatik urrundu nahi den museoa dugu hau, aisialdiaren menuaren baitan dagoena. Maila internazionalean aisialdi kulturala diru laguntzen eta instituzio ezberdinen babesaren bitartez sustatu egiten da, hiritargoa asetzeaz gain, turismoa erakartzen duelako. Europako hiri gehienak eredu eta negozio honetan murgildurik daude (Esteban, 2007).

Orain arte aipatu diren hainbat aspekturen artean, Guggenheim museoak euskal identitatean betetzen duen funtzioa azpimarratzekoa da. Izan ere, estatubatuarra den fundazio batek Bilbon sukurtsal bat irekitzearekin batera, eta hiria plano internazionalean kokatzearekin batera, euskal kulturaren oinordeko diren autoreak integratu ditu: alde batetik, internazionalizazio horren baitan Euskadi kokatzeko eta hortaz, euskal identitateak izen eta aitortza lortzeko asmoz, baina beste alde batetik, inperialismo yankeearen ustea defendatzen duen oposizio hori lasaitzeko, euskal kultur eta nortasunaren sinbolo den museo gisa aurkeztua izan da. Kolonialismo kultural estatubatuarraren sinbolo den Bilboko Guggenheim frankiziak, marka esplotatzearekin batera, erakusketa eta distribuzio funtzionamendua du; ez du produkzio kulturalik ahalbidetzen. Ornamentua atzerritarren esku uztea identitateari uko egitea dela azaltzen du Estebanek, Euskal Alderdi Jeltzaleak (EAJ) argi izan zuena bere garaian (Esteban, 2007).

Izan ere, EAJ-ak Guggenheim bat Euskadin izatea herrialdearentzako egoki zela uste zuen, nahiz eta hasiera batean nahiko eszeptikoa zen sektore bat egon. Indarra eta dinamismoa galduta zuen Bilbok bultzada berri baten premia zuen, hiria sustatzera begira; museoa den ornamentuaren gain gelditu zen erantzukizun hori. EAJ-k adierazten zuen moduan, Euskadik indar eta botere internazionalekin kodeatzeko aukera eta ahalmena zuen Estatu espainiarraren laguntzarik gabe; hasieratik proiektua ezaugarritu izan du diskurtso honek, hala, Guggenheim-i esker Bilbo mapa internazionalera salto egin zuen, hiriaren eta Euskadiren irudi internazionala proiektatua izan zelarik. Ornamentu honek Estatu potentzia nagusien baitan Euskadi agertzearen iruditegia zabaltzen du, luxu instituzional horren jabe direnaren sentimendua indartuz. Hortaz, EAJ-k Guggenheim-en eragin politikoa kapitalizatu eta

errentabilizatu ditu, atxikimendu handiagoa eskuratzeaz gain bere ideologia indartzea lortuz. Era sintetiko eta laburtu batean esanda: Guggenheim-ek hiritargoaren kohesio eta adostasuna zabaldu ditu, Euskadiren instituzio ekonomiko, politiko eta sozialen inguruko irudi eraberritu eta berritzailea hedatuz, honek ongietorri indartsu eta sendoa izan duelarik (Esteban, 2007).

Museoaren izaera euskalduna azpimarratzen duen diskurtso honen aurrean, badira era kritiko batean lehen aipatutako amerikanizazio prozesuaren ondorio den proiektuaz aritzen direnak. Oteizak esan zuenez, Eusko Jaurlaritzak eta erantzule nagusi den EAJ-k *Euskodisney*-a ekarri zuten Bilbora (Esteban, 2007). Oteizak erabilitako termino horrek Harvey, Fallon eta Bryman bezalako autore ezberdinek erabilitako *Disneyfikazioa* terminoa dakar gogora: termino honek egun turismoak hartutako forma deskribatzeko erabilia da. Izan ere, prozesu honen baitan kontsumora bideratuak dauden azpiegitura ikusgarriak nagusitzen dira, espazio jakin batean kokatuak daudenak. Horrela, bizitza errealean ezinezkoa litzakeen espazioaren banaketa inposatzen da, ikusgarriak diren eraikin zein bestelako azpiegiturak mapa batean kokatzen direlarik. Atrakzio parke bat balitz bezala ulertzen da hiria: enblematikoak eta ospetsuak diren espazio ezberdinen mapa bihurtzen da eta espazio hauen kanpoko formak eta estetikak erakartzen ditu ikusleak, nahiz eta bere horretan, azpiegiturak inongo funtziorik ez bete. Kontsumo hibrido bat eskaintzen da, komertzializatutako hiri batean homogeneoa den. Hori da, hain zuzen ere, Bilboren adibidea.

Horrekin batera, Guggenheim, euskal gizarteari dagokionez, harrotasun nazionala sortu, sinbolizatu eta presente mantentzen du. Izan ere, arkitektura negozio bat izateaz gain, komunitatearen parte ere bada, sinbolo bat, eta honek identitatea sortzeko nahikoa potentziala du (Esteban, 2007).

### 2.1.3 HIRI EREDUA ETA MUGIMENDU SOZIAL URBANOAK

David Harvey-k *Ciudades Rebeldes: del Derecho de la Ciudad a la Revolución Urbana* (2013) liburuan Henri Lefebvre-ren teorizazioetatik abiatuta, hiriaren dinamika kapitalista aztertu eta hauen bueltan sortutako mugimendu iraultzaileen erraiak azaltzen ditu.

Askotan hiria merkantzien trukerako espazio gisa ulertu izan da; honen sorrera, historian zehar banatua egon den nekazal lanen eta eskulanean, truke komertzialean eta bestelako lanen arteko banaketan oinarritzen da. Gaur egun, hiria terminoak unitate demografiko, ekonomiko eta batez ere, politiko bati egiten dio erreferentzia, normalean herria baino handiagoa den unitatea, hain zuzen ere. Hirietan gatazka soziala sutsua da: espazio urbano hauetan historikoki, iraultza, protesta, istilu eta hiri bizitza antolatzeko forman ezadostasunak izan dira, hau da, inoiz ez da espazio harmoniatsua izan, biolentzia eta gatazka presente egon da momentu historiko ezberdinetan. Horren adibide dira, 1871kako Parisko Komuna, 1864ko erreboltak; Belfast kontsumitu zuen biolentzia urbanoa, Beirut eta Sarajevorekin bukatu zuena, Seattle, Madril, La Paz eta beste hainbesteren kaleak hartu zituena,

etab. Izan ere, denbora luzez hiria sormen suntsitzailearen epizentro gisa funtzionatu izan du (Harvey, 2013).

Harvey-k bi zutabe garrantzitsu azpimarratzen ditu hiriaren bueltan: alde batetik, hirian kapitalaren akumulazioak duen sorrera, forma eta zirkulazioa eta bestetik, mundu mailan nagusitzen ari den prozesu urbanizatzailearen dinamikan sortzen diren gatazka, asaldadura eta mugimendu sozialak. Horrekin batera, Harvey-k jada existitzen ez den eskubide baten aldarri bezala hartzen du Hiri Eskubidea, *Derecho a la Ciudad*, gisa izendatzen duena; horrekin batera, edukiz hustua dagoen kontzeptu dela aipatzen du, nork eta nola betea den arabera ezaugarritzen dena. Hiritarren eskubidea, burgesiaren eskubidea bezala, zilegi da eta hala ere. Hortaz, jakina da eskubide berdintasuna ustez (kasu honetan bi eskubide antagonikoetan oinarritzen den premisa faltsua) nagusitzen denean indarra da irabazten duena, Marx-ek aipatu bezala. Eskubidea materializatzeko gatazka horren baitan definitzeke dago eskubidearen esanahia. Horren aurrean, hiri alternatiba baten inguruko gako ezberdinak mahai gaineratzen: alternatiba antikapitalista izango da, eguneroko bizitza eraldatuko du eta kapital urbanizatzaile globalizatu amorratuaren kaosetik urrun egituratuko da (Harvey, 2013).

Hiri eskubidearen bueltan, Harvey eraikitzeko eta berreraikitzeko eskubideaz ari da, honen aldarria indartuz. Izan ere, kapitalismoak gainbalioaren bilaketa etengabean geografia urbanoa berrantolatu du, bizi estilo eta kalitatea dirua duten horientzat merkantzia bilakatuz. Kontsumismoa, turismoa eta ezagutzan oinarritutako jarduera kulturalak, eta ikuskizunaren ekonomiak dituen baliabideak hiri ekonomia politikoan funtsezko alderdi bilakatu dira. Hiri eskubidearekin batera, krisi kapitalistaren sustrai urbanoetaz aritzen da; izan ere, krisi kapitalistak krisi urbanoaren hainbat hari jarraitzen ditu. Hala, eraikitako azpiegiturak, baliabide ekologiko antolatuak eta urbanizazioa indartzera bideratutako instituzioak akumulaziora bideratuak dauden espazioen sorreran inplikatzen dira, hauek etengabeko krisian daudelarik: krisi hipotekarioa, finantzarioa, politikoa, etab. (Harvey, 2013).

Autoreak prozesu deskribatzeko hala esaten du:

> *"Bankuak kontsumitzaileari dirua uzten dionean etxe bat eros dezan eta trukean interes fluxu bat jasotzen duenean, etxean zuzenean balioa produzitzen duen zerbaitetan bilakatzen du, nahiz eta horrela ez izan. Bankuek ospitaleen, unibertsitateen, eskolen eta bestelakoen eraikuntza lanak finantziatzeko bonoak erosten dituztenean, interes batzuen truke, instituzio horiek balioa sortzen dutela ematen du, nahiz eta horrela ez izan. Bankuek errenta erauzteko aukera ematen duten eraikin edo zorua erosteko dirua uzten dutenean, errentaren kategoria distributiboa fiktizioa den kapitalaren zirkulazio fluxuan xurgatua gelditzen da" (Harvey, 2013: 69).*

Prozesu hau, balioa merkatuan produzitua izateaz gain, bertan burutzen denaren suposizioan oinarritzen da. Kapital fiktizioaren zirkulazio fluxua prozesuan nabarmena da: erosleei dirua uzten zaie, diru “laguntza” hau euren soldatarekin ustez bueltatu ahalko dutelakoan, eta utzitako kapitalaren gain interes fluxu bat kapitalizatzen da. Jabetza kentzearen gaineko akumulazio eremu zabal bat hedatzen da, dirua kapital fiktizioaren zirkulazioan xurgatua da sistema finantzarioak bildutako izugarrizko irabaziak sostengatzeko helburuarekin. Kreditu sistemaren oinarrian dauden kapital produktiboaren eta fiktizioaren zirkulazioen korapilaketan aditzen da dinamika, merkatu immobiliarioaren testuinguruan (Harvey, 2013).

Hiri ondasun komunen inguruan, autoreak pentsamendu eta problematizazio teoriko eta praktikoak suposizio multzo estu baten baitan gelditu izan direla eztabaidatzen du. Izan ere, suposizio multzo hau askotan, Erdi Aro amaieran Britainia Handia gauzatu ziren lur komunalen itxiera eta desjabetzeen adibideekin loturik dago. Posizio hau sarri, ondasun pribatuen eta Estatu autoritarioaren interbentzioaren konponbide kontrajarrien aurrean popularizatu izan da. Ikuspegi politikotik auzia erreakzio instintibo batek atsekabetua izan da. Hala ere, ondasun komunek hiriaren eta hiri politikaren osakeran duten papera geroz eta aitortza handiago duela azpimarratzen du. Horretaz gain, mundu osoan zehar dauden mugimendu sozial urbanoetan, bai praktika erradikal gisa, zein maila teorikoagoan, hasiak dira ondasun komunek hirietan eta politiketan duten erantzukizuna adierazten (Harvey, 2013).

Laburbilduz, bi dira azpimarratzen dituen kontzeptuak: alde batetik, konponketa soziala, krisiaren teoriari eginiko ekarpen teoriko nagusia, zeinaren arabera, gain-akumulazio krisiek soluziobide espazial bat duten. Kapitalak bere barne krisiei aurre egin ezin eta espazialki zein tenporalki desplazatzen ditu; espazialki, deslokalizazioaren bitartez, adibidez, eta tenporalki, finantza-ekonomiaren hainbat kreditu mekanismoaren bitartez. Bestalde, kapitalaren bigarren zirkuituaz aritzen da, modernitatean emandako urbanizazio prozesu eta espazioen eraikuntzan oinarritzen da. Bere definizio hertsia, gaineratiko kapitalaren kontzentrazio sozial eta geografikoa litzateke. Eskuratzen duen gainbalioarekin, kapitalistak, bi gauza egin ditzake: lehenengo zirkuituan berrinbertitu, teknologian berrinberitu produktibitatea handitzeko, adibidez, edo kapitalaren bigarren zirkuituan inbertitu dezake, hots, hirien garapenean, zerbitzuetan eta orokorki esanda, aldaketa urbanistikoetan (Harvey, 2013).

Hiri eremua oinarrian duen klase borrokak historian zehar kapitalismoaren aurrean planteatu dituen alternatibaz aritzen da. Borroka antikapitalistaren baitako hiriaren aldarrikapenean, mugimendu antikapitalistak iraganeko eta orainaldiko estrategia ezberdinen inguruko hausnarketa eta ebaluazioa gauzatu behar du. Klase borroka ez da soilik lan postura edo sindikalgintzara mugatu behar, izan ere, hiri eskubidea ez denez soilik eskubide indibidual bat, eskubide kolektibo bat baizik,

hirian ematen den eguneroko bizitza birproduzitzea errazten duten norbanako oro barne bildu behar dira borroka honetan. Hortaz, hiri eskubidea ez da jada existitzen den eskubide gisara hartu behar, berreraiki eta birpentsatu behar den eskubidea baizik, irudi guztiz ezberdina eratzen duen gorputz politiko sozialista gisara, txirotasunarekin bukatzearekin batera, gizarte ezberdintasun eta ingurumen degradazioari aterabideak emango dizkiona. Horretarako, kapital akumulazioa ahalbidetzen duen hirigintza produkzio forma suntsitzailea etetea beharrezkoa da (Harvey, 2013).

Hirigintza kapitalistari aurre egingo dion alternatibaren eraikuntzaren subjektuaren inguruko hainbat gako plazaratzen dira. Alde batetik, borroka honen izaera iraultzailea azpimarratzen da erreformismoaren aurrean. Horretaz gain, alternatibak eraikitzeko beharra saihestezina dela aipatzen da; fabrikak desagertu ez diren mundu honetan, hauen kopuruaren beherakadak langile klase industrial klasikoa kolokan jarri du. Hirian hedatzen den eguneroko bizitza sortu eta mantentzearen funtzioa beste langile mota baten eskuetan dago egun, aldi baterako langileen esku, askotan lan partzial, gaizki ordaindu eta desantolatuak daudenak. Proletario tradizionala, *prekariatuak* ordezkatu du. Harvey-k defendatzen duen bezala, eta Lefebvre-rekin bat eginez, iraultza urbanoa izango da edo ez da izango; hortik abiatuta, kapitalismo basatienak geroz eta polarizazio ekonomiko eta politiko handiagoa zabaldu eta hedatu du, eta horrek ondorio politiko argiak ditu, hala, mugimendu sozial eta agente politiko ezberdinak klase borroka espazio urbanoetan egikaritu behar dute (Harvey, 2013).

## 2.2 GARAPEN HISTORIKOA

Beatriz Plaza, Catalina Galvez, Ana González eta Elías Mas-ek *Arte y Economía, un matrimonio de conveniencia: El Museo Guggenheim en Bilbao* (2010) ikerketan adierazten duten bezala, Bilboko Guggenheim Museoaren kasuan, susperraldi ekonomikora bideratutako paradigma estrategiko berriaren erdigunean kulturaren hutsaltasun prozesua kokatu beharra dago. Izan ere, beranduago azalduko den moduan, museoak artearen difusiorako tresna izatetik, hiri turistikoen eraketan potentzialitate handiko medioa izatera pasatu da. Hori da, hain zuzen ere, aztertzeke dagoen gako nagusietakoa eta atal honetan gako honen inguruan, eta bereziki Bilboko kasura mugatuz, egondako ikerketa eta literatura ezberdina jorratuko dira (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Guggenheimek Bilboko hirian izandako garrantzia ulertzeko museoaren eraikuntza prozesuan egondako arrazoi eta ezaugarrietan erreparatu beharra dago. Izan ere, Bilbo hiria eraikin honen ondorioz ezaguna izatera pasatu da hainbat faktore direla medio; Bilbon berraktibatzaile gisa funtzionatu duen museo globalizatu honen eraikuntzarako, hiria laborategi gisa aurkeztua izan da. Interes espezifikoak daude Bilboko Guggenheim Museoaren eraikitze prozesuaren atzean: alde

batetik, Guggenheim New York fundazioak Europan museoaren sedea irekitzeko asmoa izatea eta bestetik, Bilboren gainbehera ekonomikoaren eraginpean arte moderno eta garaikidearen beharra, ondasun eta zerbitzuak sortzera begira erdigunean kokatua izan zen (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Museo baten sorrera soila izatetik urrun, ezaugarri espezifiko eta bereizgarriz jansten du Bilboko hiria Guggenheim Museoak, izan ere, historian zehar lehenengoz museo batek, New Yorkeko Guggenheim museoak, beste herrialde batean frankizia gisa funtzionatzen duen sede edo sukurtsala zabaltzen du, museoen internazionalizazioa hizpide delarik. Bestetik, historian bigarrengoz, museo batek lurralde edo hiri eremu bateko ekonomiaren gorakadan paper zentrala jokatzen du, Liverpooleko Tate da fenomenoaren lehen adibidea. Hala, 80. hamarkadara arte museoak kultura zabalpenerako tresna soil gisa kontzebitzen ziren; hemendik aurrera, kontzepzio horrek hainbat aldaketa sufrituko ditu (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Guggenheim efektuaren ondorioetan sartu aurretik, Bilboren garaiko testuingurua ezagutzea oinarrizkoa da. Hortaz, irakurketa 80. eta 90. hamarkadetan kokatuz, Guggenheimen sorreraren hainbat arrazoi orduko egoera sozio-ekonomikoaren eraginpean ulertu behar dira. Esan bezala, 80. hamarkadako erdialdean, organismo eta aparatu publiko ezberdinen aldetik, Bilboren alderdi ekonomiko eta urbanoaren inguruko kezka mahaigaineratu zen, hiriaren suspertzea helburu zuena. Ildo honetatik joz, Europako eta Ipar Amerikako hainbat hirik egikaritutako eraldaketa prozesuak hartu ziren eta hartzen dira erreferentziatzat; Pittsburgh, Birmingham eta Glasgow urbanismo enpresari honen adibide argienetarikoak dira (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Bilboko Guggenheim Museoari dagokionean, eta gaia testuinguratzeko helburuarekin, Maria Gómez-ek *Reflective Images: The Case of Urban Regeneration in Glasgow and Bilbao* (1998) ikerketan egiten duen azterketa interesgarria eta egokia da, izan ere, desindustrializazio eta tertziarizazio prozesu antzetsua jasan izan dituzten bi hiri garrantzitsuen arteko alderaketa egiten du. Hiri hauek, alde batetik, Eskozian, Glasgow eta bestetik, Estatu Espainiarrean, Bilbo dira. Ikerketari dagokionean, nahiz eta Glasgow-ren kasua garrantzi berezirik ez izan, interesgarria da honek desindustrializazio garaitik gaur egunera arte bizi izandako prozesua aztertzea, izan ere, autoreak 1998an jada aurreikusten zuen Bilbok prozesuaren pauso berak jarraituko zituela. Lehenengo industrializazioan Bilboko hiriaren garrantzia meatzean, metalurgian eta itsasontzi eraikuntzan biltzen zen; oso harreman estua zuten Bizkaiko hirian aurrera eramaten zen jarduera ekonomikoak eta Ingalaterran hasia zen burdinaren eskariak (Gómez, 1998).

Mende aldaketarekin batera, Bizkaia Estatu mailan zegoen probintzia dinamikoena bilakatu zen: industria garapena zela eta, populazioak etengabe egiten zuen gora, trenbide sistema geroz eta konplexuagoa zen eta karga itsasontziak etengabe sartzen ziren metropoliak gozatzen zuen portutik.

Dinamikotasun eta ekonomia aberastasun garapen hau, burdin mineralaren esportazioan oinarrituta, komertzioak jarritako kapital inbertsioaren bitartez izan zen bultzatua (Gómez, 1998).

XX. mendearen lehenengo zatian Bilbo hainbat gertaera esanguratsuk ezaugarritu zuten, hala nola, Guda Zibil espainiarra. Ekonomiari dagokionean, protekzionismoa eta geldialdian zeuden politikak nagusitzen ziren, hauek baitziren Frankismoaren lehenengo zatian inposatu izan ziren neurriak, 50. hamarkadara arte. Hamarkada honetatik aurrera, egoera aldatu egin zen; nahiz eta garaiko datuak oso urriak izan, jakina da garaiko langabezia maila oso txikia zela eta orduko industriak lanpostu asko sortu zituela. 70. hamarkada aldera, ekonomiaren zabalpenak bere puntu gorenera heldua zen. 75. urtetik aurrera Barne Produktu Gordinak bai Estatuan, bai Euskal lurraldeetan, ez zuen gora egiten jarraitu (Gómez, 1998).

80. hamarkadaren bueltan sukaldatzen hasia zen krisiaren aurrean, Mendebaldeko hainbat herrialdek neurriak hartzen hasiak ziren; Espainiar gobernuak aldiz, ikusita altzairu produkzio totala ez zela nahikoa espainiar eskariari aurre egiteko, neurriak hartu zituen honen bueltan. Ondorioz, krisia Espainiara heldu zenean, 70. hamarkada amaieran eta 80. hamarkada hasieran, gobernuak hartutako neurrien ondorioz hedatua zen industria desartikulazioak behar zituenak baino kostu handiagoak suposatu zituen, nahiz eta hau aurreikusia egon zitekeen. Krisialdiak Estatu guztian eragina izan zuen arren, bereziki Euskal lurraldeak kolpatu zituen bertako jarduera nagusia industrian oinarritzen zelako. Bi probintziek, Gipuzkoa eta Bizkaia, baina bereziki azken honek, metalurgia esparruan manufakturan, labean eta altzairu produkzioan, burdinaren transformazioan, ingeniaritza mekanikoan eta itsasontzi eraikuntzan oinarritzen zuen ekonomia jarduera. Elementu zentral hau suntsitua eta gainditua gelditu zenean, egitura ekonomiko osoa kolapsatu egin zen (Gómez, 1998).

1979 eta 1985 urte bitartean egikaritu zen prozesu honek ondorio latzak izan zituen lan postuei dagokionez: industrian lan postuen %24-a suntsitua izan zen Euskadin. Industria gabe metalurgian oinarritutako lan postuak erortzen hasi ziren, domino efektuaren eraginpean egongo balira bezala (Gómez, 1998).

80. hamarkadaren bigarren zatitik aurrera, datu hobeak erregistratu ziren. Hauek ekonomiaren gorakada azaleratzen zuten. Hurrengo urteetan, Euskal ekonomiak gora egin zuen era indartsu batean, baina honek ez zuen esan nahi krisialdiaren amaiera zenik. Izan ere, 1991tik aurrera gorakada honek etenaldia izan zuen eta 80.hamarkadako krisiaren eragin berdinak bizi izan zituen Euskadik. Garai horretan hasi zen gizartearen tertziarizazio prozesua, hirugarren sektoreak %40-ko gorakada bizi izan zuelarik. Hala ere, egoera honek ez zuen sektore tertziarioaren egonkortasuna azaltzen, izan ere, 80. hamarkadan industriak jasandako beherakadaren beste aurpegi gisa ulertu beharra zegoen. Zerbitzu sektoreak ez zituen behar beste lanpostu sortu industria planten itxieraren eraginari aurre egin ahal izateko (Gómez, 1998).

Beherakada honen aurrean hainbat hausnarketa abiatzen dira: John Allen (1988) ekonomilariak azaltzen duen bezala, garai honetan gauzatzen diren aldaketek ekonomia esparruan arrakala berri bat irekitzen dute. Izan ere, zalantzan jarri beharra dago manufaktura ekonomiaren garapenerako motorra dela, eta zerbitzuen ekonomiaren inguruan arreta jartzen hasi beharra dagoela aldarrikatzen du. Allen-ekin bat datozen hausnarketa ezberdinek azaltzen dutenez desindustrializazioa gizarte tertziarioetara salto egiteko trantsizio gisa irudikatu beharra dago, hau saihestezina den fenomeno bezala agertu delako (Allen, 1988). Gainera, egun industria jarduerak hartutako dimentsioak eta multinazional enpresen agerpenak dimentsio geografikoan aldaketak suposatu ditu: merkatu honek zuen dinamika guztiz aldatu du hiriarteko eta eskualde arteko lehiakortasunak, honek beste forma bat hartu duelarik. Hiriak area urbanoek zituzten arazoei aurre egiteko ekonomia joera berriez baliatzen dira. Ekitaldi bereziak, kultur politikak, turismoa eta irudi berria bultzatzea dira ikuspegi berri honen espresio adierazgarrienak: hiri eremuaren garapenerako ekonomiaren oinarriak hedatzeko saiakera bezala ulertu daitezke neurri guzti hauek (Gómez, 1998).

Gómez-ek (1998) testuan aipatzen duen bezala eta Gerry Kearns eta Chris Philo-k *Selling places. The City as Cultural Capital, Past and Present* (1993) liburuan azaltzen duten lez, aktore publiko eta pribatuak geografia konkretu bati erantzuten dion espazioa, *leku* gisa definitua dagoena, saltzeko ideia bere egiten dute testuinguru honetan. Izan ere, espazio hauek saltzearen beharra sortzen da hiri eta area urbanoetan, eta estuki loturik doa orain azaldutako baldintzekin. Kearns eta Philo-k *Culture, History, Capital: A Critical Introduction to the Selling of Places* atalean azaltzen duten moduan, *selling place,* gehien bat, hiri guneetan gauzatzen den fenomenoa da eta praktika multzo bati egiten dio erreferentzia: fenomeno hau jarduera ekonomiko eta sozial konkretu batzuen gaineko inplikazioa suposatzen du, lekuak eta espazioak kudeatzen dituzten norbanako eta erakundeen aldetik limurtua aurkezten dena. *Selling place* praktikek duten helburu argiena hiria politika ezberdinen bitartez eraldatua izango den eskualdea turismoarentzako, ekonomia sektore konkretu batentzako eta beste hainbat jarduerentzako erakargarri egitea da. Hortaz, fenomeno honen ondorioz bi aspektu erreparatu behar dira: alde batetik, alderdi ekonomikoa eta bestetik, soziala. Izan ere, alderdi ekonomikoari begira jarduera konkretu batean oinarritzen den sektoreari egingo dio erreferentzia, maila lokalean inbertsio kantitate handiak eginez eta lanpostu berriak sortuz, hala, ekonomia lokala ustez birsortuz. Alderdi sozialari dagokionez, leku edo espazio konkretu horretan bizi den biztanle multzoari egiten dio erreferentzia. Multzo honen aurrean proiektua sozializatzeko eta hauengan eragiteko era ezberdinak sor ditzake, izan ere, askotan proiektuak dituen alde positiboetan jarri ohi da enfasia, komunitate honi ekarriko dizkion onurak azpimarratuz. Komunitate honen onurara begira doazen proiektuak izatetik urrun, gehienetan desabantailak ekarriko dituzten plan multzoak jartzen dira martxan, bertan bizi direnen ahotsak kontuan hartu gabe, euren bizi kalitatearen baldintzak erreparatzen ez diren legez (Kearns eta Philo, 1993:1-32).

Gómez-ek (1998) adierazten duen bezala, industria zaharrengatik ezaugarrituak diren leku eta espazio hauek bi erronka handiren aurrean kokatzen dira. Lehiakortasun handia dela bide, industria area zahar hauek irudi aldaketa emateko pausoak birpentsatzen ari dira, industriaren konnotazio ezkorretik urrun post-industrialaren imaginario baikorrera salto eginez. Izan ere, hiri eremu hauetan lekuko izaten ari den prozesuak zerbitzuen sektorean oinarritzen den pasaia berri bat hedatu du, manufakturaren sektoreari berezko zitzaion irudia alde batera utziz. Iragana eta historia duten eremu hauek irudi freskoena agertzen dute inbertsoreen aurrean, prozesu bera martxan jarri duten aurkarien aurrean abantaila taktikoak bilatuz. Hala, industriar hiri zahar hauek iraganeko paisaia irudi berriago batekin ordezkatzearen saiakeren, eta egungo preferentziei erantzungo dion pasaia berria birsortzearen adibide argienak dira (Gómez, 1998).

Puntu honetan, Glasgow eta Bilboko hiriek bizitako desindustrializazio prozesuak mahaigaineratzen ditu autoreak. Hauen arteko hainbat alderaketa egiten dituen arren, Bilbon garatu zen prozesuan jarriko da enfasia, izan ere, objektuari erreferentzia egiten dion prozesua da hau. Glasgow eta Bilboren kasuetan, desindustrializazioak langabezi tasa altua utzi zuen bi hirietan; horretaz gain, industria eremu asko hustuak izan ziren eta honekin batera, irudi ezkor mehatxari batek hartu zituen gune guzti horiek, horrek zekarren desmoralizazioarekin batera. Gainera, autoreak esaten duen moduan, kontuan hartzekoa da Bilbo inguruko testuinguru politikoa, izan ere, Bilboren errebitalizazio prozesu guztia izaera desentralizatua zuten aktore eta erakunde politikoen erantzunkizuna izan zen, hala nola, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Diputazio Forala eta Bilboko Udala. Prozesu honen baitako akatsek argi eta garbi erakutsi zuten Estatu mailan politika territorialek eta publikoen arteko dibortzioa. Hala, Bilboren tertziarizazio prozesua baino lehen, nola edo ahala, ekonomia plan ezberdinak abiatu ziren honen suspertzea helburu zutenak, nahiz eta hauek inongo arraskata susmorik ez izan. Autoreak aipatu bezala, horren adierazle da Sestaoko altzairu fabrikaren suspertze saiakera, arraskatatsu izatetik urrun porrot zabala suposatu zuena. Testuinguruaren analisi okerra oinarrian, Eusko Jaurlaritzak industria sektorean martxan jarritako iniziatibek Bilbo Metropoliaren industria berrindartzeko hautua egin izan zuen, honek inongo arrakastarik izan ez arren (Gómez, 1998).

1992an Gobernu Zentralak eta Euskal Administrazioen akordioen bitartez **Bilbao Ría 2000** sozietatea sortzeko erabakia hartu zen, hiri eremuen garapen korporazio ingelesen euskal bertsioa izango zena. Agentzia honek enpresa pribatu gisa funtzionatzen zuen, nahiz eta baliabide publikoak erabili, eta honen helburua Bilbon eta eremu metropolitanoan berritzaileak ziren operazio ezberdinak martxan jartzea zen (Gómez, 1998).

Bilbao Ría 2000 bezalako susperraldi prozesu hauei jarraiki, nagusi den estrategia bati erantzungo dio eraldaketak: hiri politiketara bideratua egongo da, hiriak dituen gune ospetsuen inguruan

suspertze estrategiaren gakoa kokatzen delarik. Hiri politika berri hauen hedatzeak hiria enpresa filosofiari erantzutea ekarriko du, hain zuzen ere: korronte honen arabera, hiriak ekonomia erregional eta nazionalean paper zentrala du. Hortaz, hiriak globalizatua dagoen jarduera ekonomikoaren eta inbertsio internazionalen fluxuen hazkundean lehiakorra den medio baten baitan aritzera kondenatua dago. Administrazioek ekintzaile papera asumitzen dute eta hiriari irudi berri bat emanez eta aktibitate berriak erakarriz, hiriaren komertzializazioa bultzatzen dute. Alejandro Armas-ek *En torno a la Mercadotecnia Urbana: Reorganización y Reimaginación de la Ciudad* (2007) artikuluan, *hiri merkadoteknia* kontzeptua atxikitzen dio fenomeno horri, hau da, gune ospetsuen suspertzea hiri politiken bitartez ematea, hiri enpresarialaren eraketa dela medio. Prozesu honen baitan, ekonomiak paper zentrala hartzen du hiriaren komertzializazioa bultzatuz, eta hiria, bera, medio lehiakorra bilakatuz. Honen bitartez, irudi lehiaketa inposatzen da hiri ezberdinen artean, kontsumitzaileen eskaeretara hobekien moldatzen den hiriak abantaila jakin batzuk garatzen dituelarik (Armas, 2007).

Armas-ek (2007) hiri merkadoteknia prozesuan bi une ezberdintzen ditu: alde batetik, berrantolaketa, hiria produktu gisa saltzeko aurretiaz funtzio berriak eta orientazio ezberdin bat eman behar zaio eremu urbanoari. Horretarako, planteamendu estrategiko bat jartzen da martxan, promozioa eta publizitatea zein proiektu eta interbentzio ezberdinak hizpide dituena. Horrekin batera, hiriaren eremu kolpatuenak eta hiria bere osotasunean transformatzearen beharra azaltzen du Armas-ek, prozesuaren bigarren unea hedatzearekin batera. Hiriaren espazioaren transformazioan hainbat fronte izan behar dira kontuan: zentroaren berpiztea, autore garrantzitsuek ezaugarritutako arkitektura, barruti kulturalak, etab. Bigarren uneari dagokionean, hiriaren berrimaginazioa deritzo. Espazioaren transformaziotik abiatuta, hiriaren irudi bereizgarri eta erakargarria zabaltzeko asmoa nagusitzen da, hiriaren inguruko kanpainen eta diskurtso eta funtzio berrien hedapenaren bitartez (Armas, 2007).

Testuinguru honetan, hirien arteko lehia inposatzen da, hauen helburu nagusia inbertsioak, bisitariak eta herritarrak erakartzea delarik. Horretarako, beste hiriekiko abantaila lokalak indartzeko beharra ikusten da; abantaila hauen baitan azpiegitura kulturalak, bizi baldintza estandarren hobekuntza eta zerbitzu eta bestelako hiri egitura eta komunikazio egokia sartuko lirateke. Horrela, Gomez-ek (1998) azaltzen duen bezala, hiriaren birsortzea martxan jartzeko, Bilbok hiriaren irudi eraberritua zabaltzeko helburu nagusiak hedatuko zituen proiektu ezberdinak diseinatzen eta egikaritzen hasi zen. Paisaia berri honetan zerbitzuen sektorea manufaktura tradizionalaren aurrean gailentzeko premia argia zen (Gómez, 1998).

Hala azaltzen du Arantxa R. Álvarez-ek *Continuidad y Cambios en la Revitalización del Bilbao Metropoli* (1998) ikerketan, hiri eremuen berpiztearen inguruan aritzen denean. Izan ere, hiriaren

berpizterako eta transformazio, bai fisiko, bai ekonomiko, bat bultzatzeko, baztertuak eta utziak izandako eremu zabaletako lurren bestelako erabilerak diseinatzea izaten da lehen pausoa. Lur hauetan oso era mugatu eta zorrotzean diseinatzen dira zoruak izango dituen erabilerarako azpiegiturak: hala nola, ofizinak, etxebizitzak, zentro komertzialak, zerbitzu kulturalak eta turismora bideratutako azpiegiturak. Eskema hauek berreraikuntzaren irudi erradikalarekin lotuak izan ziren; horrekin batera, marketing estrategia ezberdinak jarri ziren martxan irudi honen bueltan: estrategia hauek intsignia proiektuak, arkitektura postmodernoak, parke naturalak, arte festibalak eta izaera internazional ekitaldi ezberdinen arteko konbinazioan eratzen ziren. Estrategia hauen konbinaketak eman zion garapenari lehen bultzada eta inbertsio gehiago erakartzeko funtsezko papera bete zuten. Hortaz, alderdi eta dimentsio fisikoaz eta diseinuaz gain, publizitate promozionalaren tekniketan moldatzeak eta lurren erabilera konbinatuaren determinazioak aurretiaz ezagunak ziren berpizte operazioen eta eremu fisikoaren planifikazio tradizionaletik kanpo geratzen ziren. Hala, autoreak azaltzen duen bezala, 70. hamarkadatik aurrera nagusitu zen hiri planifikazioa, orain aipatutako teknikek berrikuntzaren eta hiri politika berrien hedapena ahalbidetu zuten, hiriaren berpiztera bideratuak zeudenak. Hala ere, berrikuntza honek bestelako izaera bat hartu zuen: iniziatiba lokalak izatetik urrun, gobernu zentralek martxan jarritako ekimenak ziren, inbertsio publikoaren bitartez sektore pribatua indartzen zutenak (Álvarez, 1998).

Álvarez-ek (1998) aipatzen duen ideiari jarraiki, hiriaren eraldaketa eta indarberritzera bideratutako prozesu enblematikoek inbertsio kantitate handien beharrean zeuden, eta horiek, babes publiko indartsuen premia eskatzen zuten, bai eta, sektore pribatua eta lan merkatua estimulatuko zituzten eraginak. Sektore pribatuaren eragina funtsezkoa dela azaltzen du hurrengo pausoen bitartez: kapital pribatuaren onurara begira, sektore pribatuak prozeduraren lehen uneetan eginiko ekarpenak inbertsio publikoaren objektibaziora begira zihoazen. Hala nola, leku ezberdinen hustutzeak eta etorkizunerako hauek prestatzea, oinarrizko azpiegituren eraikuntza eta etekin ekonomikoa oztopatzen duen edonolako barrera estraekonomikoak lausotzea. Horiekin batera, izaera publiko-pribatudun asoziazioek zein hazkunde lokalerako koalizioek ezaugarritu zituzten 80. hamarkadako forma berritzaileak. Forma berri hauek lokalizazio espezifikoak berrantolatzeko sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatzen zuten. Kooperatibistak diren forma berritzaile hauek post-keynesiarra den hiri gobernu ereduaren hazkundea ezaugarrituko dute, eraberritzen den sektore pribatuaren gidaritza babes publikoaren bitartez mantentzeaz gain, instituzio gubernamentalek bere egiten dituzten metodo enpresarialen bitartez (Álvarez, 1998).

Aurretiaz Gómez-ek (1998) aipatutakoari jarraiki, eta beranduago azalduko den puntua aurkezte aldera, Álvarez-ek (1998) Bilboko erregenerazioaren inguruko hainbat apunte egiten ditu, 80. hamarkadan nagusitzen diren forma berri horiek metropoli honen testuinguruan nola aplikatzen diren azalduz. Bilboren birsortzea 90. hamarkadan kokatzen du autoreak, Gómez-en antzera. Izan

ere, garai hartan aurreko hamarkadetako pasitibitatearekin ematen den kontrastea argia da: Bilbon denbora tarte txikian proiektu, plan eta eskema ezberdinen bat-bateko proliferazioa eman zen, Bilboko gune metropolitarraren suspertzeari begira zihoazenak. Horrenbesteko gainprodukzioak argi azaleratzen du suspertze ekonomikora begira zeuden esfortzu kontzentrazio eta dinamismoa, baita Bilbo hiri lehiakorrek konposatzen zuten mapa europarrean kokatzeko nahia. Hiri eremua eraberritzeko martxan jarritako hainbat ekimenek eta prozesu ezberdinek konpromezu hori berresten zuten arren, norabide bateratu eza ere espresatu zezaketen, jarduera instituzional deskoordinatua eta erabakiak hartzeko gaitasuna falta zela eta. Horren adibide dira Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, Bilbao Ría 2000 eta Errebitalizaziorako Plan Estrategikoa (Álvarez, 1998).

80. hamarkadatik aurrera hirigintza politiketan nagusi ziren joera berriak hedatu ziren Europako hainbat hiritan, eta Bilbon, 1989an hasitako eztabaidatik abiatuta, errebitalizaziora begira zihoan Plan Estrategiko baten premia argia zen. Orduantxe, esfortzuen bateratzearen beharrak eta Bilboren eraberritzera begira zihoazen ekintzen koordinazioak instituzio publiko ezberdinen arteko adostasuna eragin zuen, honen ondorioa Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik sortutako Plan Estrategikoa izan zelarik. Aurreko hiri plangintzetarako instrumentuek ez bezala, Plan Estrategiko honen marka bere izaera global eta integralari dagokio, etorkizunera begirako ikuspegi zabalagoa dela eta (Álvarez, 1998).

Plan Estrategikoaren helburuak hurrengo puntuetan barne bildu daitezke: giza baliabide kualifikatua garatzea, zerbitzu aurreratuetan oinarritutako hiria sortzea, garraiobidearen hobekuntza eta berrikuntza, ingurumenaren erregenerazioa, hiri ingurugiroaren kalitatea hobetzea espazio industrial abandonatu eta hondatuen berreskurapenaren bitartez, kulturaren garatzea azpiegitura berriak direla medio, etab. Bilboko Errebitalizaziorako Plan Estrategikoa egikaritzeko 1991an bi organismo publikoek sozietate kudeatzaile bat sortu zuten, Bilbao Metropoli-30; honek erregenerazioan paper aktiboa zuten aktore publiko eta pribatuak biltzeko ardura bere gain hartu zuen (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

1992an onartua zen **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra**; planak bi helburu zituen: alde batetik, biztanleriaren errenta maila igotzearekin batera, susperraldi sozio ekonomikoari bultzada ematea; beste alde batetik, habitat-aren bizi kalitatea hobetzea degradatutako guneen aldaketa fisikoaren bitartez. 1992. urte amaieran administrazio lokal, erregional eta nazionalen arteko elkarlanaren fruitu den eta alditan aipatua izan den Bilbao Ría 2000 sozietatea sortu zen, Gobernu Zentralaren eta Euskal Administrazioen artean hitzarmen formalaren ondorio. Bilbao Ría 2000 Bilbo eta hiri metropoliaren birsorkuntza bultzatzeko erakundea da. Formalki organismo pribatu gisa sortutakoa, Bilbao Ría 2000 agentzia sasi-publiko modura funtzionatu du, Bilbo Metropoliaren hirigintza

berrikuntza prozesuan planifikatzaile eta exekutatzailea izan dena. Bilbao Ría 2000-ek gauzatutako operazio nagusiak egun Abandoibarra bezala ezagutzen den eremuan eta Ametzola inguruan egikaritu ziren. Hala eta guztiz ere, aurretiaz azaldutako bi kasu hauek zoruaren baitako erabileran oinarritzen diren planak izanik, ez dute berrantolaketa eta berrikuntza sozio ekonomikorik ezarri, nahiz eta hauen helburuetan gai honen inguruko aipamenak egin. Laburbilduz, sozietate honen erantzukizuna izango da Bilboko gune narriatuak eta erabilgarriak ez diren eremu industrialak berreskuratzea, hiri ingurugiro hobetuz (Álvarez, 1998).

Arantxa R. Álvarez-ek *Reinventar la Ciudad: Milagros y Espejismos de la Revitalización Urbana en Bilbao* (2002) ikerketan aipatzen duen bezala, Bilboko erregenerazio estrategia hainbat esparrutan garatu da: a) ingurugiro fisikoan jardun zen, lehen aipatu bezala, industriaren gainbeheraren ondorioz gelditu diren industria eremu abandonatuetan hiri espazioak berreskuratuz. Horretarako, portuko jarduera berrantolatu zen Bilboko Area Metropolitano guztian zehar; berrantolaketa hau izan da hiri susperketaren zutabe garrantzitsuenetarikoa; b) hiriari dagokionean, proiektu handiak garatu dira, azpiegitura berriak eta marko internazionalean ezagunak diren arkitektoek diseinutako eraikin enblematikoak Bilboko hirian lekua izan dute: garraiobidearentzako azpiegitura (Metroa eta Aireportua eraikitzea, Portuaren handitzea), onbideratzezkoa (Plan Integral de Saneamiento de Bilbao), kulturala (Guggenheim Museoa, Euskaldunako Kongresu eta Musika Jauregia, Campos Eliseos Antzokiaren berreskurapena), eta feria zein biltzarrei dagokiona (Bilbao Exhibition Centre). Hortaz, proiektu enblematiko hauek katalizadore eta hiriaren birsorkuntzaren dinamizatzaile gisa funtzionatzen dutenak, Bilboren hiri pizkundearen kanpainan promozio eta marketing sinbolo bihurtuko dira. Zentzu horretan, enblema hauek Bilbo hiriaren irudia berria sortzea ahalbidetu dute. Dinamika honen helburua, Bilbo enpresentzat eta bisitarientzat erakargarria den hirien mapa batean kokatzea da (Álvarez, 2002).

Honekin batera, zerbitzuak eta bereziki, aisialdia, kultura eta turismoa, hiri erregenerazio eredu berria indartu zuten jarduera alternatibo gisara proiektatuak izan ziren. Beste alde batetik, 90. hamarkada amaierarekin batera beste Plan Estrategiko berri bat proposatu zen Bilbo metropoliari begira zihoana, 2010eko Plan Estrategikoa. Hiriaren birsortze prozesuaren kezka eta erronka nagusia Bilbo hiria *hiri sortzailea* izatera pasatzea da: klase sortzailea eta ekonomia sortzailearekin harremanetan dauden jarduerak bereganatzeko eta atxikitzeko hiri erakargarria sortzea. Izan ere, Álvarez eta Vicario-k *Innovación, Competitividad y Regeneración Urbana: los Espacios Retóricos de la "Ciudad Creativa" en el nuevo Bilbao* (2005) ikerketan azaltzen duten bezala, *hiri sortzaile* honen filosofia, ideia berrien fluxuaren etengabeko sorrera eta hauek aurrera eramateko baldintzak hedatzean datza, dinamismo eta berritzailetasun honek estraktu konkretu bateko kideak erakarriko baititu: hala nola, artistak, sortzaileak, aktibista sozialak etab. Hau da, klase erdi egonkortuko kideak. Dinamismoak eta ideia berritzaileak egikaritzeko aukerek ekonomia arrakastan eragiteko

oportunitatea zabalduko du. Talentu masa sortzaile hau bere kondizioari erantzuten dion hiriaren eskutik erakarria sentituko da; masa kritikoz osatua dagoen eta izaera honetako jarduerak aurrera eramaten dituen hiria, hain zuzen ere. Berritzailetasunari ateak irekitzen dizkion ingurugiro sozialean oinarritzen da hiri sortzailea. Izan ere, berrikuntza teknologikorako gaitasuna duen sormen kultural eta artistiko berri hauen arteko konbinazioaren ondorioz sortzen diren sinergiak, ezagutzan oinarritutako produkziora begira doan garai berri baterako gako nagusi dira. Eta horregatik, hiri sortzaile hauek baldintza egokiak sortzen dituzte ezagutzaren eta berrikuntzaren produkzioan ezinbestekoa den lan indarra erakartzeko; arrakasta ekonomikorako oinarriak jarriko dituen ideia, sormena eta irudimenari ateak irekitzen dizkio hiri eredu honek (Alvarez eta Vicario, 2005). Prozesuaren erdigunean hurrengo ideia kokatu beharra dago: turismoa erakartzeaz gain, balio erantzi handia duten jarduera profesionalak erakartzeko eta formazio handiko gaituak hirian erresidentzia finkatzeko ingurugiro egoki bat sortzean datza. Hortaz, ezagutza eta berrikuntza erreferentzia estrategikoak bilakatzen dira (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Erregenerazio estrategia hauek hiri erdigunean kokatuak zeuden enklabe industrial zaharkituen bilaketan oinarritu ziren. Helburua gune zaharkitu hauek hiri post-industrial eredu berrira anezka gisara jardutea zen. Hiri eredu berri honen bueltan, espazio hauek zentro tertziarioan eraldatzeko beharra zegoen, erabilera mixtoa izango zuten areak sortuz, hala, ofizinak zein negozioak erabilera erresidentzialerako, komertziorako eta aisialdirako espazioak izango zituzten areetan hedatu egin ziren. Kapital nazional eta internazionala erakartzeko indarra zuten, produkzio egitura dibertsifikatuko zuten eta hiriaren lehiakortasuna areagotuko zuten areak ziren hauek. Bilboren kasuan, erregenerazio estrategien bandera ontzia Abandoibarra izan dela azaltzen dute autoreek: garai batean industriala eta portuarra izandako eremua da hau, hiri erdigunean kokatuta dagoena itsasadarraren ezkerreko erriberan, hain zuzen ere. Eremu hau hiriaren berrikuntzaren ikonoa bilakatu da: Guggenheim Museoaren alboan kokatua dago eta ondorioz, jarduera turistiko oso apala zuen hiri bateko erakarpen zentroa bilakatu da (Plaza, Galvez, González eta Mas, 2010).

Bilboko suspertze prozesua, proiektu enblematikoetan (Guggenheim Museoa, batik bat) oinarritutako eraberritze prozesuaren adibide izanik, ez da zirkulu akademikoetatik datozen kritiken salbuespena izan. González-ek *La Política de Escalas en Bilbao: la Construcción Sociopolítica de un Área* (2003) eta Doucet-ek *Flagship Regeneration: Panacea or Urban Problem?* (2007) -en aipatzen duten bezala, Bilboren suspertze prozesua hiri politika enpresarialetan oinarritua da, kanpotik datozen bisitarientzat zuzenduta dauden zerbitzu eta hornikuntza kulturaletara mugatuz; aldi berean, alde batera utzi da hiritarrentzat zuzendutako hornikuntza industriala, honen erabilerarako ekipamenduaren premia egon arren (González, 2003; Doucet, 2007).

Beste hainbat autorek, Esteban (2000), Álvarez (2002), González (2004) edo Armas (2007) bezalakoek, beraien kritika hurrengo baieztapenarekin harremanetan jartzen dute: izaera honetako hiri proiektuek zoriak ezaugarritutako joerek indartu duten espekulazio immobiliarioari leku eman diote. Honi jarraiki, esklusiboak eta baztertzaileak diren egoitza espazioak sortu egin direla azaltzen dute. Beste alde batetik, Bilbon garatu izan diren hornikuntza eta urbanizazio proiektuetan kapital pribatuak abiatutako inbertsioak izan ez direla gehitzen dute; alderantziz, inbertsio publikoetan oinarritu dira gehien bat, horietako asko Euskal Administrazioen eskutik abiatu direnak. Hala ere, beste asko Estatutik zein Europar Batasunetik datozen inbertsioak dira. Egoitza proiektuetan eta proiektu tertziarioetan ez da berdina gertatzean: Isozaki Dorreak, Abandoibarrako egoitza eraikinak, Miribilla auzoa, Iberdrola Dorrea, Sheraton (orain Meliá) Hotela, Zubiarte Zentro Komertziala… Laburbilduz, hiriaren birsortze eredua sektore publikoaren agintaritzapean sostengatu da. Proiektu hauek baliabide publikoen zati handi bat irensten dute, hauek elite sozial urbanoari erantzungo dion enklabe ospetsuen sorrerarako erabiliak izaten direlarik. Bukatzeko, proiektuok, askotan, aipatutako espazio esklusibo eta baztertzaileak sortzean oinarritzen dira, gentrifikazio prozesuak eta ezberdintasun sozio-espazialak indartuz (Álvarez, 2002; Álvarez eta Vicario, 2005; Doucet, 2007).

Konklusio gisa, Álvarez-ek (2002) lehen aipatutako testuan plazaratzen dituen ondorioak interesgarritzat jo daitezke. Izan ere, autoreak azaldu bezala, Bilboko hiriak azken hamarkadetan berrantolaketa eta eraldaketa prozesu sozioekonomiko, fisiko eta funtzional sakona bizi izan du. Denbora tarte honetan zehar, eremu metropolitanoak oparotasunetik, gainbeherara pasatzetik, gainbeheratik birsortzera pasatu da, hiri eredu berria prozesuaren produktua izanik. Bilboren hiri berpizkundearen motorra hirigintza izan da, metropoliaren birmoldaketa fisiko eta funtzionalaren dinamika protagonista suertatu baita. Baina berpizkundearen hirigintza, azpiegitura handi eta proiektu ikusgarri eta enblematikoek ezaugarritzen duten hirigintza da; planteamendu tradizionalak zuen arrazoi erregulatzailea bigarren plano batean utzi eta estrategikoa zein berritzailea den hirigintza bat hedatzen du, aukera, bideragarritasuna eta efizientziaren logikak integratuz. Azpiegitura ikusgarriko proiektuak zutabe egituratzailea eta bizkarrezurra dira hiri birsorkuntzan elementu bultzatzaile eta katalizatzaile gisa arituz, hiri operazio ezberdinen garapenerako baldintza material egokienak sortzearekin batera. Horretaz gain, kontuan hartzekoa da azpiegitura eta proiektu ikusgarri hauek promoziorako eta hiri marketing-era begira doazen kanpainen parte integrala direla, hiriaren irudiaren berreraikitzera begira daudenak. Hortaz, irudi berri honen eraketan eskala internazionalean ezagunak diren firmen arkitektura enblematiko, intsignia proiektu, hornikuntza kultural eta turistikoa, festibal, feria eta bestelako ekitaldi internazionalek paper garrantzitsua jokatzen dute. Suspertzearen logikaren eta estetikaren instrumentalizazioaren bitartez, hirigintza birsorkuntza sozioekonomikoaren zerbitzuetara jartzen da, erabilera eta funtzio dinamizatzaile berriak hartzeko beharrezkoak diren baldintza materialak sortuz; hala nola, produkziora eta kontsumora bideratuko diren espazio kualifikatuak asmatuz, demanda lokal eta

global berriei erantzuteko gaituak izango direnak. Iniziatiba hauen azken helburua Bilbok beste hiriekin lehiatzeko duen gaitasuna indartzea eta handitzea da, inbertsore eta kontsumitzaile berriak hirira erakarriz, abantaila lehiakorrak segurtatuz eta hiri hazkunde fase berri bati bultzada emanez (Álvarez, 2002).

# 3. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Atal honetan, ikerketaren hurrengo pausoen azalpen eta justifikazioa aurkeztuko da. Helburu eta iker galderei jarraiki, eta marko teorikoa eta garapen historikoa ataletan sakondu diren kontzeptu eta ideia nagusiak oinarritzat hartuta, azterketa praktiko mamitsuago bat abiaraziko da. Kategoria ezberdinak aplikatzearen batera, analisi teorikoa jorratuko da, ondorio batzuetara heltzeko asmoz.

Izan ere, planteamendu metodologikoaren bitartez, atal praktikoan garatuko den prozesuaren justifikazioa azaleratzeaz gain, azterketan aurrera egiteko emango diren pauso eta urratsek duten zentzua azaltzea da helburua, garatuko den prozedimenduak balizko esangura izan dezan.

Ikerketaren atal praktikoa hiru zatitan ardaztuko da: lehenik eta behin, **azterketa praktikoa** deritzon atala; Bilboko hiriak Guggenheim efektuaren eraginpean bizi izan dituen aldaketetan oinarrituko da, hiri globalizatu eta turistifikatuaren logikaren baitako aldakuntza nagusiak aztertuz. Bilboko birsorkuntzaren bitartez produzitutako espazio ezberdinak aipatu eta aztertuko dira: noiz, nork eta non galderak erantzuteaz gain, ikuspegi integralago bat eskainiko da fenomeno honen bueltan. Horretarako, Bilbok erantzuten duen hiri ereduaren osaeran eta eraketan gidari izan diren hainbat ezaugarri hartuko dira hizpide, hala nola, hiriaren eraldaketa estetikoa. Eraldaketa horren baitan papera garrantzitsua izan duten elementu ezberdinetan sakonduko da: museoak zein barruti kulturalak, komertzio, saltoki eta hotel ospetsuenak, eraikin eta azpiegitura enblematikoak, ospakizun, gertaera eta ikuskizun ezberdinak, etab.

Multzokatuta agertuko diren elementu partikular hauen nondik-norako ezberdinak azaltzeaz gain, euskarri bisualen bitartez izango dira ilustratuak, Bilboren estetika berria azaltzeko orduan argazki eta bestelako baliabideak erabiliz. Helburua, behaketa zuzena egikaritzea da. Horrela, hauen eraketan aipatzekoak diren interes eta faktoreak adieraztearekin batera, plano estetikoan duen garrantzi arkitektonikoan jarriko da enfasia. Horretaz gain, hemeroteka azterketaren bitartez gertakari ezberdinak nola saldu diren sakontzeko asmoa dago, honen bueltan sortutako iruditegia ezagutze aldera. Hemeroteka azterketaren bitartez justifikazio ideologikoa aztertzeko asmoa dago.

Izan ere, atal praktikoan egingo den azterketa honetarako Estebanek (2007) planteatzen dituen ideietan oinarrituko naiz, garapen historikoa atalean atera diren hainbat elementu garrantzitsuekin konbinatuz: Guggenheim efektuak Bilboko hirian izandako eragina eremu estetiko eta ornamentaletik jorratuko da bereziki, museoak dakarren kultur ereduak zabaldu duen hiri eraldaketa oinarritzat hartuz. Horretarako, espektakularizatua izan den hiri turistikoaren ideiak hartuko du zentralitatea.

Behin Bilboko elementu ezberdinetan oinarritzen den azterketa praktikoa gauzatua, plazaratu diren ideien **analisi teorikoa** izango da hurrengo urratsa. Hortaz, bigarren atala elementu konkretu hauen bitartez osatutako ideia orokorraren azterketa sakonagoan oinarrituko da. Horretarako, Lefebvre-ren (2013) espazio produkzioan agertzen den triada azaleratuko da, aurreko atalean aztertu diren espazioek ezkutatzen duten atzeko logikarekin azalpena uztartzeko helburuarekin. Hortaz, elementu konkretu hauen zentzu orokorra bilatuko da analisian, konkretu horretatik plano orokorrago eta abstraktuagoan hiriaren barne logika eta zentzuan sakonduz.

Analisiarekin batera, hirugarren atalari dagokionez, espazio hauetan eta Bilbok ordezkatzen duen hiri ereduan ardazten diren kontraesan eta aurkaritzak aztertuko dira. Hirugarren atala hau, **----** izendatuko da. Harvey-ren (2013) teorizazioan agertzen den hiri ereduak ordezkatzen dituen interesak, espazioaren produkzioan eragile direnak, kontraesanean ageri dira Bilboko hirian ere; hiritarrek euren eskaera eta interesen defentsan antolakuntza forma ezberdinak abiatzeko premia azaleratu izan dute hamarkada luzez. Hortaz, Bilbo hirian gauzatu diren gatazka ezberdinen ondorioz piztu diren mugimendu sozial berriak adibideen bitartez aztertuko dira, hauen eskakizun eta diskurtsoan dauden hainbat elementu argitara emanez.

Laburbilduz, atal praktikoa hiru atalek osatzen dute: azterketa praktikoa, analisi teorikoa eta **----.** Lehenengoan, Bilboko hiriak Guggenheim efektuaren eraginpean bizi izan dituen aldaketetan oinarrituko da, hiri globalizatu eta turistifikatuaren logikaren baitako plano estetikoari eutsiz; bigarrenean, azterketa honetatik abiatuta atera diren hainbat ideia, eta orokorrean Bilbo hiriak duen logikaren inguruko zentzu sakonagoa bilatuko da, maila abstraktuago batean espazioaren inguruko hausnarketatik abiatzen dena. Hirugarrena, gatazka eta kontraesanak azaleratzea izango du helburu, mugimendu sozial berriek jorratzen dituzte elementu ezberdinak aztertuz.

Diseinu teknikoan sartu aurretik beharrezkoa da, helburu eta iker galderak iker ildoak markatzeko eta azterketa bideratzeko beharrezkoak diren legez, marko teorikoa eta garapen historikoan oinarritutako hipotesia osatzearen premia azpimarratzea. Hipotesi nagusia hurrengoa da: **Bilboren eraldaketak hiri globalen ereduari erantzuten dio, espektakularizazioan oinarritutako estetika eta arkitektura duten, eta turismora bideratuak dauden espazioak sortuz.** Hipotesi nagusiari jarraiki

bigarren hipotesia hau da: **Espazio hauen sorrera garaiko klase politikoaren eta merkatuaren interes eta logikek bultzatzen dute, kontraesan eta aurkaritzak agerian geratzen direlarik.**

Landutako literaturaren bitartez justifikatua dagoen hipotesi hau, aurre-jakintzan ere oinarritua dagoena, atal praktikoa, azterketa eta analisia orientatzeko baieztapen gisa aurkezten da, ikerketaren amaieran formulatutako tesia zuzena edo okerra den ondorioztatuko delarik. Hortaz, gidari izateaz gain azterketa bideratu eta artikulatuko duen hipotesi hau, ikergaiak eta helburuak sintetizatzen ditu.

## 3.1 DISEINU TEKNIKOA

Lehen aipatu bezala, azterketa praktikoa garatzeko orduan Bilboko eraldaketan eragina izan duten eraikin eta azpiegitura ezberdinak aztertuko dira, hauen zergatiak ezagutzearekin batera duten balio estetiko eta arkitektonikoan sakonduz, euskarri bisualak, hala nola, argazkiak, direla medio. Horretaz gain, eta aurretiaz azaldu bezala, eraikin eta proiektu hauen justifikazio ideologikoa ahalbidetu duten elementu ezberdinak jorratuko dira, hemeroteka lanaren bitartez. Hortaz, garrantzitsua da azterketa praktikoan aipatuko diren elementuen zerrenda bat egitea hau hasi aurretik; horretaz gain, denboran mugatu beharreko ariketa bat da, hauen aukeraketan egondako faktore ezberdinak zehaztea eskatzen duena, aztertuko diren ezaugarri ezberdinak zedarritzeko premia duena, sakonean egingo den azterketa gidatze aldera.

Alde batetik, azterketa praktikorako hartuko diren elementuak Bilbao Ría 2000 elkartearekin sorrerarekin batera egondako aldaketetan oinarritzen dira; hala ere, hastapen nagusi gisa Guggenheim Museoa aipatu beharra dago, eraldaketa prozesuaren baitan lehenengo elementu bereizgarria izanik. Garapen historikoa atalean aipatu den bezala, elkarte honen jaiotzaren arrazoi eta helburuak kontuan hartuz, elementuok joera berdinari erantzuten diote. Hortaz, Bilbao Ría 2000 1992ko azaroaren 19an sortutako elkartea, metropoliaren antzinako industria aldeak berreskuratzeko helburuarekin jaiotzen da. Bilboko Metropolia aipatzean, Bilbo hiriaz gain, itsasadarraren bi aldeetan kokatuak dauden hainbat hiri eta udalei egiten die erreferentzia, izan ere, industria sektoreak hiriaren inguruetan izan zuen eragina, hala nola, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo, Getxo, etab. Horretaz gain, Bilbao Ría 2000-ren sorreraren testuinguruan kokatzen da Guggenheim museoaren eraikuntza, askotan elkarteak abiatutako eraldaketa prozesu horretan elementu zentral gisa hartu delarik.

Bestetik, elementuok, hau da, eraikin eta azpiegitura ezberdinak, talde ezberdinetan egongo dira multzokatuak, azterketak zentzua izan dezan. Hortaz, hurrengo bost taldeek osatuko dute hurrengo

atalean garatuko den azterketa: **hiri antolamendua**, **eraikin eta egitura kulturalak, garraiobide azpiegiturak**, **komertzio masiboa eta luxuzko hotelak** eta **ekitaldi eta festibal internazionalak**. Nahiz eta banaketarako aurkeztu diren bost taldeak era autonomoan agertu, ezin da Bilboko eraldaketa bosten arteko elkar harreman eta interakzio gabe ulertu. Hala ere, azterketarako eskema gisa marrazten da, banaketa bat egoki gauzatzeko saiakeran. Aipatzeko da Bilbo hiriaren eraldaketa hainbat eta hainbat elementuk ezaugarritu izan dutela, hala ere, ikerketaren mugak direla eta elementu esanguratsuenak izan dira aukeratuak azterketa praktikoa aurrera eramateko.

**Hiri antolamendua** multzoa, maila orokorrago batean, Bilbok hiri antolamendu aldetik izan dituen aldaketak barne biltzen ditu; aldaketok, gehien bat, Bilbao 2000 elkarteak bultzatuak izan dira. Bilbo hirian Abandoibarra izango da aldaketa gehien bizi izan dituen eremua, bertan eraikia izan baita Guggenheim Museoa. Multzo honek Abandoz gain, Ametzola, Autonomia, Basurto eta Santimami, Bilbao Zaharra, Miribilla eta Alde Zaharra, Barakaldo, Deustuko Erribera eta Artxanda auzo eta eremuak barne biltzen ditu. Hala eta guztiz ere, eremuotan gauzatutako aldaketak izaera ezberdinekoak dira: batzuk espektakularizazioaren bidean, egitura ikusgarriak integratu dituzte; beste batzuk aldiz, auzoarentzako hobekuntzak eta aspektu sozialagoak landu izan dituzte. Hala ere, hiri ereduaren bi aurpegiak direla aipatzea beharrezkoa da eta bi aspektuok sakontasunean jorratuko dira hurrengo atalean.

Bigarren blokea, **eraikin eta azpiegitura kulturale**i dagokiona, Bilbo hirian azken hamarkada hauetan eraikiak edo berrituak izan diren egitura kulturalak azalduko dira. Museoak, alde batetik; hauen artean, Guggenheim museoa, Arte Eder museoa eta Itsas Museum-a. Beste alde batetik, areto, jauregi eta zentro kulturalak, hala nola, Euskalduna Jauregia, Bilbao Exhibition Centre eta Azkuna Zentroa. Multzo honetan ere banaketa bat egingo da: alde batetik, kulturaren komertzializazioa bultzatuko duten kultur eraikin eta azpiegiturak, hauen artean Guggenheim esponente nagusia izanik; eta beste alde batetik, euskal kulturari ekarpena egiten dioten zentro kulturalek egun hartutako izaera, nahiz eta euren balioa mantendu egiten den, hala nola, kale eder ekimena eta Arte Eder museoa.

Hirugarren blokean, **garraiobide azpiegiture**i erreferentzia egiten diona, Bilboko Metroa, Loiuko Aireportua, Bilboko Tranbia, Variante Sur Metropolitana de Bilbao errepidea, Bilboko Portua eta Getxoko Kirol PortuaK integratuko ditu. Horretaz gain, eta berezitasun bezala, Artxandako Funikularra, Bilbao City Tour eta Bilbao Biziak ere aipatuko dira. Garraiobide berri hauen gehiengo handi bat turismo jarduerara bideratuak dauden arren, beste asko hiriaren zabalkuntza eta berrikuntza prozesuan funtsezko piezak izan dira, hiri ereduaren akorde doazenak.

Laugarren blokean, alde batetik, azken hamarkadetan nagusitu den **saltoki gune eta komertzio masiboa**ren joeran erreferente diren zentro komertzialak aztertuko dira, hala nola, Zubiarte, Artea,

Max Center eta Mega Park, Bilbondo, Ballonti eta Gran Via kalean ematen ari den fenomenoa. Aipamen txiki bat egingo zaio Erriberako Merkatu berriari. Beste alde batetik, **luxuzko hotel**en zerrenda luze bat aztertuko da, Bilboko erdigunean kokatzen direnak.

Bukatzeko, bosgarren blokean 90. hamarkadatik gaur egunera arte ospatu izan diren **ekitaldi eta festibal internazionalak** ezagutzera emango da. Horien artean, kirolarekin harremanetan daudenak: European Champion Rugby, La Vuelta a España, Eurocopa 2020, Red Bull Cliff Diving World Series, etab. Jai giroan hedatu direnak, hala nola kontzertu edo bestelako festibalak: MTV sariak 2018an, urtero ospatzen den BBK Live festibala, Guns and Roses-en kontzertua, etab. Bilboren berezitasuna duten ekitaldiak, Night Marathon eta Gau Zuria, adibidez eta bukatzeko, nazioarteko elitearekin harremanetan dauden bestelako gertaerak, Troikaren bisita 2014an, 2018ko Europako hiririk onenaren saria eta Azkuna 2013an munduko alkate onena izendatzen zuen saria, besteak beste.

Azterketa praktikoari hasiera eman aurretik, atal honen amaieran aurretiaz azalduak izan diren proiektu ezberdinen baitan gauzatu diren gatazka eta kontraesanak argitara emango dira. Horretarako eta guzti hauek laburbiltzeko helburuarekin, atal berezi bat eskainiko zaio.

# 4. AZTERKETA PRAKTIKOA

## 4.1 HIRI ANTOLAMENDUA

Bilbo hiriak sufritutako eraldaketaren azterketa praktikoarekin hasteko, Bilbao Ría 2000 elkarteak diseinatutako hainbat plan martxan ateratzearen ondorioz hedatutako paisaiaren deskribapena aztertuko da. Horretarako, Bilbao Ría 2000 elkarteak adierazitako helburu nagusien berrazterketarekin hasiko da atala, asmoak freskatzearekin batera, hurrengo lerroetan deskribatuko diren aldaketak orduko testuinguruan konprenituak izan daitezen.

Izan ere, Bilbao Ría 2000 elkartearen webgunean (www.bilbaoria2000.org) azaltzen den bezala, helburu nagusia metropoliaren industria aldeak berreskuratzea da. Horrekin batera, portu jarduerak kanpoko badiara eramatearen ondorioz hiri aldaketa orokorrari ateak irekitzea zen asmoa: industria eta portu jarduerak egikaritzen ziren gune horiek bestelako hirigintza egitura bitartez eraldatuak izatea, kalitatezko arkitektura eraberriketa prozesuaren gako nagusi gisa aurkeztuz. Elkarteak azaldu

bezala, eta azterketa praktikoa antolatu den moduarekin bat eginez, hiriaren eraldaketa zerbitzu, kultura eta industria berrietan oinarritzen den ekonomia sare berria sortzean datza.[1]

Hirigintzaren alorrean, hainbat dira elkarte honek eraldatu dituen guneak. Bilbo hirian nahiz eta esanguratsuena Abando auzoko Abandoibarra eremua izan, Ametzola auzoan ere oso nabaria izan da elkarte honen eskuhartzea. Ezkerraldea bezala ezaguna den eremuan, hau da, itsasadarraren ezkerreko aldean kokatzen diren udalerrietan, ere ikusgarriak dira aldaketak: Barakaldoko industrial guneetatik, Santurtzin kokatua dagoen Bilboko portura arte. Horretaz gain, itsasadarraren beste aldeak ere, aurrerago azalduko den bezala, prozesu guzti honen eraginak pairatu ditu.

Atal honetan, elkarteak eraldatu dituen hainbat eremu jorratuko dira, hala nola: Abandoibarra, Ametzola, Santimami-Basurto, Barakaldo eta beste batzuk. Horretaz gain, Abandoibarrako eta Barakaldoko kasuak sakontasunean aztertuko dira, hauen arteko ezberdintasunak azaleratuz.

**Abandoibarra**

Bilbao Ría 2000 esku hartu dituen eremuen inguruko deskripzio orokorrarekin hasteko Bilboko eremuan egondako aldaketak aipatuko dira. Hortaz, lehen esan bezala, Abandoibarra litzateke Bilboko eraldaketaren adibide argiena. Abandoibarra Bilboko bihotza da, hiriaren zentroetako bat, hain zuzen ere. Horregatik, Bilboren kasuan garrantzitsua da enfasi berezia Abandoibarraren eraldaketan ipintzea.

1993an Abandoibarraren eraldaketa diseinuak barne biltzen zuen Master Plana abiatu zen, César Pelli arkitekto argentinarraren eskutik, beranduago Iberdrola Dorrearen diseinuan parte hartu zuen arkitektoa. Abandoibarraren eraldaketak itsasadarra eta hiria konektatzea zuen helburu; Bilbo hiriak itsasadarrari sorbalda emateari utzi zion, hiriaren zutabe komertzial garrantzitsuenetarikoa bilakatuz. Kontainer, biltegi, hondakin espazio eta abarrez beteriko eremu industriala kultura, aisialdi eta negozioentzako pasabide bilakatu da, tarteka eremu berde eta etxebizitzak dituena. Izan ere, pasabide honek, bi eraikin kultural garrantzitsu batzen ditu: Euskalduna eta Guggenheim. Eremu horretan nagusitzen diren espazio publikoak Doña Casilda parkea, Erriberako pasealekua, Alde Zaharrean hasi eta Zorrotzaraino heltzen dena, Uribitarte paseoa, eta Euskadi Plazak osatzen dute. Horretaz gain, itsasadarraren bi aldeen arteko konexioa hobea da Pedro Arrupe Pasarela, Euskalduna Zubia eta Zubizuri Zubiari esker. Horrekin batera, eta beranduago sakonduko dudan bezala, hainbat eraikin esanguratsu agertzen dira espazio eraberritu honetan, hala nola, Isozaki Atea, Zubiarte Zentro Komertziala, Deusto Unibertsitatearen Liburutegia, Iberdrola Dorrea, EHU-ren Paraninfoa, etab.

[1] Bilbao Ría 2000. (s.f.). Bilboko aldakuntza. *BILBAO Ría 2000*. Eskuragarri hemen: http://www.bilbaoria2000.org/ria2000/eus/bilbaoRia/bilbaoRia.aspx?primeraVez=0

Eraberritze lanak 1998an hasi ziren eta 2011ko irailean amaitutzat eman ziren, Ingelesen Landa Parkearen inaugurazioarekin batera.

Eremu honen helburua, gune industrializatua berritzearekin batera, bertokoek eta kanpotik datozen bisitariek paseatzeko gune nagusia izatea da; alde batetik, gune komertzial bilakatu da, aisialdi kulturalak eskaintzearekin batera, ofizina eta zentro komertziala duena. Bestetik, aldiz, hotel eta bestelako eraikinak osatu dira. Hala, luxuzko etxebizitzak eraiki dira publiko konkretu bati bideratuak daudenak. Laburbilduz, gune honek kultura ongizatearen adierazle den arren, kontsumora bideratutako espazio bilakatu da, kanpotik datozen turistentzat bideratua dagoena.



Abandoibarra Master Planaren planoa. Iturria: Bilbaoria2000.org



Abandoibarrako argazkia, 2012an.
Iturria: Balmori.com

Bilbao Ría 2000 webgunean[2] aurkitu daitekeen argazki honetan argi ikusten da Abandoibarra bezala ezaguna den eremuaren eraldaketa. Hala ere, aurretiaz aipatu bezala Abandoibarraren kasua sakontasunean azaltzeko premia du eta honetan sartu aurretik Bilboko beste hainbat eremuren deskribapen xumeetan fokoa jarriko da.

**Ametzola**

Atal honetan aztertu beharreko bigarren eremua Ametzola izenaz ezaguna den aldea da. Ametzolan gauzatu den aldaketa nagusia merkantzien tren geltokiek erabilitako eremuan izan da. Bilbao Ría 2000-en webgunean [3] adierazten den bezala, azpiegitura hauek trenbide zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak zirenak, auzoen arteko oztopo fisikoa suposatzen zuen. Ondorioz, auzo batzuk hiri saretik kanpo gelditzen ziren. Ametzola Barne Erreformarako Plan Bereziak (1995) adierazten zuen bezala, Konkordia estazioaren alboan zeuden FEVE-ren trenbide

[2] Bilbao Ría 2000. (s.f.). Iharduerak: Abandoibarra. *BILBAO Ría 2000*. Eskuragarri hemen: http://www.bilbaoria2000.org/ria2000/eus/zonas/zonas.aspx?primeraVez=0
[3] Bilbao Ría 2000. (s.f.). Iharduerak: Ametzola. *BILBAO Ría 2000.* Eskuragarri hemen: http://www.bilbaoria2000.org/ria2000/eus/zonas/zonas.aspx?primeraVez=0

biltegien eremua esku hartu zen lehengoz. Planaren baitan hainbat urrats urbanistiko azpimarratuak ageri dira, hala nola: etxebizitza berrien eraikuntza, Ametzolako Dorreak, parke publiko hornitua, Ametzolako Parkea eta geltoki berri bat, Ametzolako Geltokia, Renfe eta FEVE-ren lineak elkartuko dituena. Azken honi esker, trenbide azpiegiturak hiri oztopo izateari utzi eta hiri garraiobide izateko trenaren aukera ugariak berreskuratu izan dituen zerbitzu bilakatu da.

Abandoibarrarekin alderatuz gero, Ametzolaren kasuan egikaritu diren aldaketak politika sozialagoekin batera hedatu dira. Analisi teorikoan sakonduko den bezala, hiri eredu honen baitan nagusi diren bi alderdi kontuan hartzekoak dira: alde batetik, hiriaren alde espektakularra, Abandoibarrak ordezkatzen duena eta hiri globalizatuaren botere politiko eta ekonomikoaren adierazle espaziala dena; eta beste alde batetik, hiri globalizatuak beharrezkoa duen itxura hobekuntza, neurri sozialagoen bitartez hiri zabalpena ahalbidetzen duena eta hortaz, gero eta langile masa handiagoak hiriaren baitan pilatzeko aukera irekitzen duena. Azken aspektu honen adibideak hurrengoak dira: Ametzola, Santimami-Basurto, Miribilla, Bilbo Zaharra, Deustuko Erribera eta Barakaldo.

2007an bukatu ziren trenbideak estaltzeko lanak, Eskurtze aldea eta parkearen lotura erabatekoa izatea lortuz. Hego Trenbide Soluzioa deituriko honi esker, trenbideak estaltzearekin batera, Trenbide Etorbidearekin eraikuntza ahalbidetu zen, Basurtoren eta Ametzolaren arteko komunikazioa hobetuz. Gainera, Trenbide Etorbidearen zabalkuntzaren azpian auzoko bizilagunei lurpeko aparkalekua ahalbidetu zitzaien. Eraikuntza lanen amaieran, 2008an, Etorbidearen amaieran dagoen Irala auzoarekin lotura hobea egon zedin doako igogailua ireki zen, Ametzolako Igogailua. Igogailuak Iralako eta Ametzolako auzoak konektatzearekin batera, bizilagunentzako eraikitako aparkalekura ere heldu egiten da.



Ametzolako Barne Erreformarako Plan Bereziaren planoa. Iturria: Bilbaoria2000.org



Ametzolaren argazkia, 2009an.
Iturria: Bilbaopedia.info

Hortaz, hauek lirateke Ametzola auzoan egindako aldaketa guztiak: FEVE eta Renfe trenbideen estaltzea, Ametzolako parkea honen gainean eraikia izan delarik; Ametzolako geltokia, Bilboko erdigunearekin lotura egiteaz gain, Renfe eta FEVE lotzen ditu, Abandoko metroarekin harreman zuzena ahalbidetuz; Ametzolako parkea, pergolak, hainbat eskulturek eta urtegiak osatzen dute; Ametzola-Irala igogailua, auzoak batzeaz gain aparkalekurako sarbide dena; eta etxebizitza blokeak.

**Santimami-Basurto**

Abandoibarra eta Ametzola hiri eraldaketan esangura handiena izan duten eremuak izan arren, Bilboko beste hainbat auzotan egikaritu diren aldaketak aipagarriak dira. Santimami eta Basurto eremuarekin hasteko, 2005ean martxan jarri zen operazioaren ondorio diren aldaketak aztertzekoak dira. Santimami-Basurto operazioaren helburu nagusia Bilbora Mendebaldetik sartzeko sarbideak eraberritzea da. Horretarako hainbat jarduera jarri dira martxan. Lehenengo fasea FEVE trenbide linearen lurperaketa, 2,5 km trenbideen berrikuntza, Masustegi kaleko trenbide-pasagunea kentzea eta Basurtu ospitalaren aurreko lurpeko geltoki berriaren eraikuntzak ezaugarritu dute. Horrekin batera, A-8tik heltzeko sarbide berriak eraiki dira, hiri sarearekiko lotura Torres Quevedotik zehar eginez. Horretaz gain, hainbat egitura eta eraikin aipagarriak dira: 2011an eraikitako Basurtoko Gizarte Etxea, arkitektonikoki ikusgarria dena; 2010an Basurto aldean zeuden suhiltzaile eta udaltzaingoaren eraikin berriak Miribillan; Errekalde eta Irala aldean Adif linearen lurperaketa; FEVE linearen lurperaketa eta eremuaren urbanizazioa, etab.



Garellano Hiri Berrikuntza Planaren planoa. Iturria: Bilbaopedia.info

Nahiz eta sakonki ez aztertu, aipatzekoa da gaur egun gorpuzten ari den Garellano Hiri Berrikuntza Plana; Richard Rogers arkitekto britaniarrak 2009an diseinatutako plana da. Plan honen helburua tamaina ezberdineko etxebizitza sorta bat eraikitzearekin batera, Santimamiko EHUko Ingeniaritza kanpusaren eta San Mames Berriaren [4] inguruetan gune berde berria eraikitzea da, parke baten faltaren premiari erantzunez. Gaur egun, Santimamiko behin-behineko bus geltokia bertan dagoenez planak ez du aurrera egiten eta geltokia bukatua egon arte geldirik jarraituko duela aurreikusten da.

[4] 2007an César Azcárateren eskutik eraikia izan zen.

**Beste auzo batzuk: Bilbo Zaharra, Miribilla eta Deustuko Erribera**

Bilbo Zaharraren kasuan, aldaketak urriak izan arren, Bilbao Ría 2000-eko webgunean[5] adierazten den bezala, beste proiektuetatik eratorriak izan diren irabaziak gehien behar duten auzoetan inbertituak izan dira. Guztira Bilbo Zaharrean lau izan dira aldaketa nabarmenenak: Miribillako Herri Eskola, 2005ean inauguratu zen Maria Bihotza Plaza, 2004ean Kantalejos Zubian Herri Plazaren eraikuntza eta 2002 eta 2005 urte bitartean Mesede, Martzana eta Urazurrutiako nasa zaharrak guztiz eraberritzea

Bilbo Zaharretik hurbil dagoen auzo berriaren eraikuntzak zentzua hartzen du testuinguru honetan. Auzo honi Miribilla deritzo. Miravilla mendiaren mugan zeuden meatze zaharren gainean eraikitako auzoa da. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (1995) baitan azaltze zen auzo honen osaketa. 1998an hiri zabalpenaren inguruko proiektua diseinatu zen, 1999an urbanizatzen hasi eta 2000. urtean etxebizitzak eraikitzeari ekin zitzaion. Gernikako Lorategien Etorbidea da Miribillako kale nagusiatik eta kale horretatik abiatuta ardazten da auzoa. Hornikuntzari dagokionean, Mibillan udaltzaingoaren eta suhiltzaileen eraikinak daude, lehen aipatu bezala, beste garai batean Garellanon zeudenak. Bestetik, Bizkaiko Frontoia eta Bilbao Arena auzo honetan aurki daitezke.

Bukatzeko, bukatzetik urrun dagoen Deustuko Erribera auzoko eraberritze proiektua aipatzekoa da. Gaizki izendatua dagoen Zorrotzaurre Planak, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko Bilboko Manhattan propioa eraikitzeko helburua du. Orain dela pare bat urte zendu zen Zaha Hadid arkitekto anglo-irakiarrak diseinatutako Master Plana da hau. Plana egikaritze aldera Deustuko kanala ireki zen, Erribera eta Zorrotzaurreko penintsula isla batean bilakatuz, eta hori da, hain zuzen ere, proiektua hain adierazgarri eta esanguratsu egiten duen elementua. 2004an egin zen plana, hala ere, 2007an hainbat berrikusketa izan zituen. 2012 eta 2013 urte bitartean izan zen onartua. 2014ean hasitako Frank Gehry-ren zubia gaur egun horretan jarraitzen du. 2016ean zati baten irekiera eman zen arren, egun ez dago guztiz bukatua[6]. Bigarren zubia, San Ignacio-Zorrotzaurre, 2020rako zabalik egongo dela aurreikusten da.



Zorrotzaurreko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren planoa.
Iturria: Zorrotzaurre.com

[5] Bilbao Ría 2000. (s.f.). Iharduerak: Bilbo Zaharra. *BILBAO Ría 2000*.
Eskuragarri hemen: http://www.bilbaoria2000.org/ria2000/eus/zonas/zonas.aspx?primeraVez=0

[6] Oso motel martxan jarritako plana izateaz gain, Erriberako bizilagunei hainbat kalte sorrarazi dizkio, horietako asko auzotik bota nahi dituztelarik. Izan ere, Erriberako isla luxuzko etxebizitzez eta banku zein bestelako negozioen sukurtsalez bete nahi dute.

Etxebizitzak eta bestelako eraikinak aurreikusten diren arren, IMQ klinika da eraikinetan esanguratsuena. IMQ klinika, egun funtzionamenduan dagoen eraikina da. BBK Dorrea aldiz, 2009an Zaha Hadid-ek iragarri zuena, 2011 alde batera utzi zuen BBK-k. Gaur egun ez dago oso argi proiektuaren etorkizuna. Horretaz gain, hainbat izan dira eraberritutako edifizio zaharrak; horien artean, ZAWP Bilbao, sortzaileentzako gunea, eta Deustuko Arraun taldearen egoitza. Nahiz eta behin baino gehiagotan kolokan jarri den, proiektuak abiadura mantsoan baina aurrera egiten duela esan daiteke, horrek dituen eragozpenekin.

**Barakaldo**

Bilboko Metropoliari so eginez gero, Barakaldo da Bilboko urbanismo prozesuak gehien eragin duen hiria. Beranduago sakonduko den arren, Ibai Ezkerrean kokatua dagoen hiri honetan, Barakaldon, Galindo Operazioa 1998an martxan jarri zen. Honen helburua, Barakaldo itsasadarrera hurbiltzea zen, siderurgia industriak okupatutako lurzorua erabiliz. Bilboren kasuan itsasadarraren hertzean dauden eremuak berreskuratu egin diren antzera, Galindoren asmo nagusia Barakaldoko hiria itsasadarrera arte zabaltzea zen, hainbat egitura eta eraikin direla medio, hala nola: kiroldegi berria, Lasesarre futbol zelaia, parkea, etab. Garraioari dagokionean, errepide egiturek alboko udalerri eta A-8 autobidearekin lotura hobetzen dute. Bestetik, Barakaldo geltokia eta Arrontegi zubiaren trenbidea estaltzeari ekin zitzaion.



Barakaldoko hiria, gaur egun.
Iturria: Bilbaoenconstrucciones.com



Galindo Planaren planoa. Iturria: Bilbaoria2000.org

Hainbat dira Barakaldon egondako berrikuntzak. Adibide batzuk aipatzearren: Labe Garaien Etorbidea, Urban Galindo auzoko klase nagusia dena; 2003an ireki zen Lasesarre Futbol Zelai berria Barakaldon dagoen Desertu Plazan, Eduardo Arroyoren eskutik eraiki zena; Joaquin Monterok diseinatutako Herriko Plaza berria; Portuko Ditxoa eta Meatz Zamatokia, etab.

Behin orokortasunetik Bilboko hiriko auzo eta inguruetan egikaritu diren urbanismo prozesuak deskribatu ondoren, bi kasu bereizgarrietan sakonduko da, Abandoibarra eta Barakaldoren kasuetan, hain zuzen ere. Bi kasu hauek Bilboko eraldaketa era adierazgarrien azaltzen dute, izan ere, aurretiaz adierazi bezala hiri ereduak bultzatutako berrikuntza prozesua ez da soilik gune espektakularizatuen

sorrerara mugatu; zentro turistiko espektakularra sortzeaz gain, bizitoki zentro ugari sortu dira, hauetatik hurbil eraiki diren kontsumorako mega egiturak justifikatuak gelditu direlarik. Hortaz, alde batetik, turismo jardueraren gorakadarako hiria moldatu den arren, langile masa zabalen pilaketarako urbanizazio prozesu erraldoiak martxan jarri dira, bizilagunentzako auzoa baldintza hobeetara egokituz. Hala, alde batetik Abandoibarra zentro turistikoa eraiki den arren, urte berdintsuetan industria jardueraren aztarnek guztiz kolpatua utzi zuten Barakaldo bizilagunentzako berregokitua izan zen, hainbat saltoki gune eta eremu berri eraiki zirelarik.

### 4.1.1 SAKONEKO AZTERKETA: ABANDOIBARRA ETA BARAKALDO

**Abandoibarra**

Abandoibarra La Salve zubitik Olabeagara heltzen den tarteari deritzo, alde batetik, Uribitarte paseoarekin bat egiten duena eta bestetik, Zorrotzarekin lotura duena Olabeaga auzoaren bitartez. Honen sorrera jarduera urbanistiko zabal baten ondorio gisa aurkezten da; interbentzio honen helburua zabalgunearen luzapena egikaritzea zen.

Udaletxeak 1989an Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapena aurkeztean, hainbat irizpide, helburu eta konponbide ahalbidetu zituen, Abandoibarra Negozioentzako Barruti Nagusia bilakatzeko asmoarekin. Barruti honek hainbat erabileren arteko nahasketatik jaio zen: bulegoak, komertzioak, ostalaritza, erresidentziak, aisialdia, etab. Horrekin batera, izaera singular eta erabilera esklusibodun unitate urbano eta erresidentzialaren ideia plazaratu zen, azken teknologiarekin hornitua egongo zena.

1993an Bilboko Udaletxeak Kontsulta Internazional bat deitu zuen Bilboko bihotza zen Abandoibarra eremuaren Hiri Antolamendua definitzeko. Hiriaren bihotza Guggenheim Museoaren eta Euskalduna Jauregiaren artean kokatua zegoen. Azkenean, César Pelli, Diana Balmori eta Eugenio Aguinaga arkitektoek osatutako taldearen proposamena aukeratu zen, arazo espezifikoen aurrean planteamendu egokiena aurkeztu baitzuten.



Euskalduna zubia, 2013an. Iturria: Argazki.irekia.euskadi.eus

Abandoibarraren garapenarekin batera hiriak itsasadarrari sorbalda emateari utzi zion. Izan ere, eremu hori ordura arte biltegiz, kontainerrez, ontziolaz eta hondar espazioz betea zegoen. Hala eta guztiz ere, birmoldaketa horren ondorioz hiriaren ardatz nagusia bilakatu zen. Aisialdirako, negozioentzako eta kultur kontsumorako eremu berriekin batera, espazio berde zabal eta eremu erresidentzialak badira Abandoibarran. Abandoibarraren eraikuntza XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran garatu



Guggenheim museoa. Iturria: Guggenheim-bilbao.eus

zen.[7] 1995. urtean PGOU-ren onarpen ofizialarekin batera martxan jarri zen eremu berriaren eraikuntza. 1996. urtean Euskalduna Zubia eraiki zen, Javier Manterola zubi arkitektoaren eskutik[8].Hurrengo urtean, 1997an, Guggenheim Museoaren irekiera ospatu zen, soberan ezaguna den kanadiar Frank O. Gehry arkitektoaren gidaritzapean[9]. Museoaren distintzio eskaintzen dioten elementu nagusiak dituen forma bereziak eta arkitektura dira.

1998. urtean Abandoibarrako Master Plana idatzi zen. Horrekin batera, Euskalduna Jauregia izango zen eraikinaren oinezko eta ibilgailu sarbideak ahalbidetu ziren. Bukatzeko, eremuaren kale nagusia osatzeari ekin zitzaion, Abandoibarra Etorbidea, hain zuzen ere. Hurrengo urtean, 1999an, Euskalduna Jauregia zabaldu zen. Federico Soriano eta Dolores Palacios izan ziren Jauregia diseinatu zuten arkitektoak. Jauregi honen ezaugarri bereizgarriena, Euskaldunako Ontziola zegoen lekuan eraikia izateaz gain, eraikinaren diseinua itsasontzi baten itxura gogorarazten duela da.



Euskalduna Jauregia eta Abandoibarra Etorbidea. Iturria: Euskalduna.eus

2000 eta 2004 urte bitartean, Erriberako nasaren erauste eta berreraikuntzaz gain, Erriberako Parkea eta eskulturaz beteta dagoen Memoriaren Pasioa eraiki ziren, Abandoibarrako Parkea bezala ezaguna dena. Horretaz gain, José Antonio Fernández Ordóñez ingeniariak diseinatutako Pedro Arrupe Pasarela egin zen, Abandoibarra Deustoko Unibertsitatearekin lotzen duena[10]. Egitura hauekin batera, Abandoibarrako Etorbidea guztiz osatu eta itsasadarraren eskuineko aldean dagoen Unibertsitateen Etorbidea handitu egin zen. Urte hauetan Hotel Sheraton, egun Melía izenaz ezaguna dena, eraiki eta lehenengo etxebizitzak osatu ziren Abandoibarran. 2004an merkatal zentrotan jakitun zen Robert Stern arkitektoak diseinatutako Zubiarte merkataritza gunea ireki zen.



Pedro Arrupe zubia, 2014ean. Iturria: Puentemania.com

[7]Martxan jarri aurretik, 80. hamarkadan Itsasadarraren Saneamendurako Plan Integrala onartu zen. 80. hamarkada amaieran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapen bat egin zen. 1993 urtean, Lehiaketa Interenazionala dela medio, Master Plana garatu zuen taldea definitu zen, horien artean César Pelli, Diana Balmori eta Eugenio Aguinaga. 1995. urtean PGOU-ren onarpen ofizialarekin batera martxan jarri zen eremu berriaren eraikuntza.
[8] Nahiz eta, Javier Manterola zubitan espezializatua izan, Euskalduna Zubiak azpiegitura arazoak izan ditu gaur egunera arte.
[9] Beranduago, Gehry-k Arabako Elciego herrian Marqués de Riscal bodegen eraldaketan parte hartu zuen.
[10] Pasarela hau zurez eta altzairuz egina dago, aurreko zubian bezala, oinez doazenentzako hainbat zailtasun suposatu dituelarik.

2006. urtean Doña Casilda Iturrizar Parkea handitu zen, Abandoibarrarekin lotura hobea izan zedin, gune berdea zabalduz. 2007 eta 2010 urte bitartean, Deustoko Unibertsitateko Liburutegia eraiki eta alboan, EHUko Bizkaia Aretoa, paraninfoa, osatu zen. Azkenik, 2011an Abandoibarraren proiektua bultzatu zuen arkitekto berdinak, César Pelli-k, diseinatutako Iberdrola Dorrearen obrak bukatutzat eman ziren[11]. Dorrea Euskal Autonomia Erkidegoko Dorrerik altuena izateaz gain, Espainiako 8.en postua du.

Dorrearen alboan dagoen Euskadi Plaza urte berean eraiki zen, Pelli-rekin batera Abandoibarrako Master Plana diseinatutako Diana Balmoriren eskutik, paisaien diseinuan gaitua baita. 2011an plaza egitearekin batera ingurua urbanizatu zen, edo behintzat obra guztiak urte horretan bukatu ziren. Plazan hainbat eraikin esanguratsu aurkitu daitezke, hala nola: Artklass eraikina, Etxargi eraikina, Parkeder erresidentzia, etab. Guztiak luxuzko etxebizitzak dira, koste altukoak eta hiritar konkretu bati bideratuak daudenak. Bukatzeko, urte berdinean Ingelesen Kanpako parkea bukatutzat eman zen.


Iberdrola Dorrea. Iturria: Interempresas.net

Abandoibarrako Master Planean Uribitarte Paseoaren birmoldaketa barne biltzen ez zen arren, logika berdinean eraikia izan denez, Abandoibarrarekin batera aztertzea komeni da. Izan ere, Uribitarte Paseoaren eraikuntza, Uribitarteko kai zaharren eremuan, Zabalgunea itsasadarrera zabaltzea suposatu du, Bilboko Alde Zaharra Guggenheim Museoarekin lotzen dituen oinezko lokarria ahalbidetuz.


Zubizuri zubia. Iturria: Commons.wikipedia.org

Uribitarteko proiektua Arkitektura Udal Kabineteak garatu zuen, Blanca Brea eta Elías Masen ardurapean. 2000. urtean Uribitarteko obrak amaitutzat eman ziren. Gerora, euskarrirako azpiegituran eta zimentazioan hobekuntza lanak egin izan dira.

Uribitarte paseoa espazio urbano berri baten sorrera izateaz gain, hainbat elementu integratzen ditu: itsasadarra alboan kokatzen diren kaiak, oinezkoentzako pasealekua, tranbiadun eremu berdea, ibilgailu eta bestelakoentzako bulebarra eta eraikinen pareko espaloia.

[11] Cesar Pelli dorre honekin batera, Malasiako Petronor Dorreen eta Madrileko Kristalezko Dorrearen autore da, arkitektura globalaren adibide argia bilakatuz.

Zonalde honetan kokatuak dauden eraikin eta bestelako egitura esanguratsuenak hurrengoak dira: Isozaki Atea, Arata Isozaki arkitekto japoniarra Iñaki Aurrekoetxea euskal arkitektoarekin batera diseinatutako bi dorre altuak, 2007. urte inguruan eraikiak izan zirenak; Zubizuri edo Calatrava Zubia[12], ezaguna bezain gatazkatsua den Santiago Calatravak diseinatua, 1997an ireki zena; eta Museoalde eraikina, belaontzi forma duen edifizioa, 2018an eraiki zena.

**Barakaldo**

Aurretik aipatu bezala, Bilbo hiriaz gain, urbanizazio prozesuak Metropoli industrializatua astindu du. Horren adibide argia Barakaldo da, 1998an hasi zen Galindo Operazioa hizpide izanik. Operazio honen helburua Barakaldo uretara hurbiltzea izan da, aurretiaz aipatu bezala, industrial gune ezberdinek okupatutako zoruak berreskuratuz. Hala, Barakaldoren urbanizazio prozesuak hartu duen izaera ez da espektakularra izan; alderantziz, neurri sozialen bitartez bizi kalitatea hobetzeko moldaketetan oinarritu da. Analisi teorikoan sakonduko den bezala, gune hauek erresidentziarako espazio handiak bilakatzea da helburua, hauetan industria immobiliarioaren bitartez etengabeko edifikazioa bultzatu delarik. Hortaz, Barakaldok biztanleak pilatzeko ahalmen gehiago izateaz gain, kontsumora begira doazen azpiegitura masiboak eraikitzeko aitzakia ere bada.

Barakaldoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean azaltzen den bezala, hiritarrentzako egokiak diren hiri azpiegitura, urbanismo, estetika eta lurzoruaren erabilera da birmoldaketaren asmoen artean baldintzatzaile nagusiena. Hala, kezken artean herritarren bizi baldintzak hobetzearekin batera, gizarte kohesioa lortzea, lurraldeak eta hiriak garapen iraunkorra izatea eta kalitatezko hiri ingurunea hedatzea aurki daitezke. Hortaz, planaren bitartez zergati guzti hauetatik abiatuta neurriak ezarri ziren.

Hainbat dira plana martxan jartzearen aurrekariak: siderurgia industriak Barakaldo eremuan izandako garapenaren ostean, krisialdi eta beherakada garaiak utzitako hutsuneak kontuan hartzekoak dira. Hortaz, Barakaldoren eraldaketa plana hurrengo elementuek bultzatu zuten: langabeziak, lurzoruen utzikeriak, erabilpenik ez zuten garraiobide eta garraio ereduak, zentzurik gabeko lurraren banaketak, nahikoak ez ziren hornikuntzak, etxebizitza kopuru urriak, ingurumenaren narriadurak, gainbehera ekonomikoak, kutsadurak, eta abarrek.

Lehenik eta behin, industria eredua eraldatzeko asmoarekin, industria astuna kendu eta bestelako zerbitzuetan oinarritzen zen eta balio erantsia zuen industria berria jarri zen martxan. Planak azaltzen

[12]Calatravaren Zubizurik Uribitarteko begirada guztiak bereganatu ditu. Zubiaren bereizgarritasunetako bat Bilboko klima hezearekin bateragarria ez den kristalez osatua dagoela da. Honek sortzen zituen arazoak ikusita hainbat eta hainbat izan dira irristakorra den zorua ekiditeko neurriak. Zubizuri ezaguna egiten duen beste gatazketako bat, arkitektoak 2006an baimendu pasarela eraikitzeko orduan erakutsitako desadostasunetan oinarritzen da. Isozaki Atea eta zubia lotzeko egindako egitura ezberdinek Calatravaren obra ustez moldatu zuten, arkitektoak 2007an Udaletxea salatzera heltzera arte. Oztopo guztien gainetik, pasarela gaur egunera arte bere funtzioa betetzen jarraitzen du.

duen bezala, jarduera berria erakartzeko, zerbitzuen sektorea hain zuzen ere, leku garbiak bilatu behar dira eta orokorrean irudi ona hedatu beharra dago. Horretarako, Barakaldo ezaugarritzen duen Bilbao Exhibition Centre-ean jarri zen atentzioa. 2004ean eraikia zen, Megapark-arekin batera.

El Castañalen, Ansion eta La Sieben egindako Babes Ofizialeko Etxebizitzekin batera, Barakaldoko Iparraldeko hiri azpizentroaren gehiegizko bizitegi pilaketa arintzeko, hainbat izan dira oinezkoentzako egokituak izan diren kaleak. Horretaz gain, espaloiak handitu eta plaza eta espazio libre berriak sortu dira. Herriko Plaza, Santa Teresa plaza, Los Fueros pasealekua eta beste hainbeste dira horren adibide.



Barakaldoko Herriko Plaza. Iturria: Elcorreo.com

Barakaldoko Herriko Plaza zonaldeko plaza nagusia da. URBAN plangintzaren testuinguruan aparkalekua lurperatu da eta azalera berurbanizatu da. Kalean, egun, oinezkoentzat bideratua dagoen lurzorua aurretiaz zenaren bikoitza da eta horrek hiriaren gune nagusia izatea ahalbidetu du. 1999an inauguratutako plaza berria Joaquin Montero arkitektuaren egitasmoa izan zen. Arkitekto berdinaren esku, eta data berdinetan, Foruen Ibilbidearen berurbanizazioa gauzatu zen, udalerriaren bihotzean oinezkoentzako espaloia irekitzearekin batera.

Badira beste hainbat plaza berurbanizaziorako aldaketak jasan dituztenak, nahiz eta hauek hainbesteko garrantzirik ez izan. Horren adibide da Bide Onera plaza; A-8arekin zuzenean konektatzen zen errepidea hegal batera eraman zuten eta horrek plaza zabala izatea ahalbidetu du. Orain sarbidea erosoagoa eta arinagoa da Askatasunaren Etrobidetik[13]. Askatasuna Etorbideari dagokionean, espaloien zabalera handitzearen ondorioz, etorbidea zabalagotu egin da, Santa Teresa Plazara helduz. Los Hermanos Plaza eta Gurutzetako Plazak ere hainbat erreforma izan dituzte, moldaketak herritarrei onurak ekarriko dizkietelakoan. Plazekin bukateko, Pormetxeta plazak, Barakaldoko erdigune eta Urban Galindo artean kokatuta dagoena, bi gune hauen arteko lotura erraztu eta Itsasadarraren inguruetara gehiago hurbiltzen ditu. 2010ean inauguratua izan zen plaza honek diseinu berri eta abangoardiakoa du, institutzioen hitzetan. Garrantzi berezidun plaza da Barakaldoren eraldaketaren testuinguruan,



Pormetxeta Plaza. Iturria: Experimenta.es

[13] 2001an, plazan, Agustín Ibarrolaren Monumentua izeneko eskultura jarri zuten, beste hainbat apangarrirekin batera.

helburuak lortzera bidean, paper garrantzitsua jokatu izan baitu. Itsasadarrarekin konexioa hobetzen duen plaza hau Javier Fresneda, Javier Sanjuán eta Javier Peña arkitektoen egitasmoa da.

Ibaiertzeko Labe Garaietako eremura bueltatuz, industria-sarea desagertzeak aukera ona izan zen hiri egitura ur bazterrera zabaltzeko. Horretarako, hainbat egitasmo jarri ziren martxan. Urban Galindo izenarekin ezaguna den gunean garatu diren interbentzioak; Nerbioi itsasadarraren ertzean dauden balio handiko lurzoruak eraldatzeko eta berreskuratzeko helburua dute interbentziok. Asko dira eremu horretan aurrera eraman diren egitasmo, ekimen eta bestelakok. Labe Garaien Etorbidearekin zabalkuntza ahalbidetu zuen kalea da Urban Galindo auzoko kale nagusia da, bideragarritasuna ustez hobetu duena. Desertu eta Pormetxeta plazen artean dago eta alde horretako trafikoa antolatzen duen biribilgune funtzioa betetzeko eraiki zen.



Galindoko pasealekua.
Iturria: Bilbaoria2000.org

Horrekin batera, Galindoko pasealekua eta parkea azpimarratzekoak dira. 2005eko abenduan ireki zen erriberako parkea, eta planak zehazten duen bezala, uraren ibilbidean gune berdeak eta pasealekuak berreskuratzeko helburua betetzen du. Horrekin batera, erribera parkearen eraberritze lanen barruan, Franco Belga konpainiak Arrontegi zubiaren ondoan zuen antzinako meatze zamatokia eraberritu zen. Balio historiko handiko pieza honek garaitan burutu ziren meatz jarduerak gogorarazten ditu. Horrez gain, Meatzaritza Museotik ekarritako orga eta trenbide batzuk ere jarri dira.



Meatze zamatoki eraberritua.
Iturria: Bilbaoria2000.org

Eraberritua izan den erribera ibilbidearen ondoan, Portuko ditxoa dago. Antzina, Labe Garaiek kai aldea erabiltzen zuten, hala ere,  gaur egun gune hau moldatua izan da. Alde horren itxura hobetzearekin batera, gainontzeko jardueretan integratua gelditu da.

Galindorekin jarraitzeko, herritarren erabilerarako gune berde berriak aipatzekoak dira. Lasesarreko Parkea 2005ko otsailean zabaldu zen. Murrieta Bulebarraren eta polikiroldegi berriaren ondoan dago. Lursailaren itxura launarekin apurtu eta garaiera eta azpiegitura ezberdineko parkea eraiki da bertan.  Parke honen egitasmoa Dirk Bertuleit eta Sandra Töpfer arkitektuek bultzatu zuten arren, Iñigo de Viarren laguntza izan zuten.

Berrikuntza hauekin batera, Lasesarre futbol zelai berria ireki zen 2003ko irailean. Zelaia, bere ondoan dagoen Desertu Plaza ere diseinatu zuen, Eduardo Arroyo arkitektoaren ekimenaren arabera egin zen. Kiroldegi berriari dagokionean, 2004ko ekainean zabaldu zituen ateak. Jorge Muntañola eta Alvaro Perez de Amezaga arkitektoek diseinatu zuten lan honek, hiru elementuz osatua dago: polikiroldegiaren eraikina, igerilekuen aldea eta eraikin zentrala. Desertu Plazari dagokionean, 2003ko martxoan irekin zen, berrikuntza jarduera guztien erdigunean. Pasabide, bazter eta plaza era askotan erabiltzeko bideak eskaintzen ditu.


Urban Galindo auzoa. Iturria: Bilbaoenconstrucciones.com

Barakaldoren kasuarekin bukatzeko, garrantzitsua da Barakaldon jaio diren gune berdeen inguruan hitz egitea. Udalerriaren erdigunean San Vicente parkea dago, Justizia Jauregitik San Vicente Dorreetaraino zabaltzen dena. Lorategi, pasealeku, etxebizitza eta kultura ekipamenduak ditu. San Vicenteko Dorreak 2003 eta 2005 urte bitartean izan ziren eraikiak eta Bilbo Handiko dorrerik altuenak dira. Horretaz gain, parkearen barnealdean, 2002an zabaldu zen Lorategi Botanikoa dago eta honen alboan Eskulturen Lorategia.


San Vicente auzoa. Iturria: Bilbaoenconstrucciones.com

San Vicente alboan Ibarreta-Zuloko eremu urbanizatuari esker sortutako Megapark komertzio zentroa dago, honetan ere hainbat gune berde aurkitu daitezkeelarik. Eremu honen alboan Ansio Ibarretako parkea aurki daiteke. Planean adierazten den bezala, inguru hau leku estrategiko gisa hartu da, A-8 autobiaren iparraldean dauden lurzoruak behin betiko aldatzea eragin baitu. Bertan, ekonomia jardueretarako lurzoru eremua sortu da, Megapark bezalako Merkataritza Parkea egin delarik.

## 4.2 ERAIKIN ETA EGITURA KULTURALAK

Hiri antolamenduarekin batera, hedatu den hiri ereduaren elementu zentral gisa hartu beharra dira eraikin eta egitura kulturalak. Izan ere, hiriaren distintziorako bide dira elementuok; horretaz gain, aisialdi eredu konkretu bati erantzungo diote, kultura kontsumoari, hain zuzen ere. Hortaz, espektakuluan oinarritzen den kontsumo honekin harremanetan, kulturak Bilboko hirian izandako

zabalpenaren inguruan arituko da atal hau. Hainbat dira aipatuko diren elementuak: museo, antzoki, barruti kultural, eskultura, jauregi eta bestelako eraikinak arakatuko dira. Hala eta guztiz ere, aurreko atalean gertatu bezala, Bilboko hirian hedatu den kultur espresio guztiak ez doaz espektakularizaziora begira; badira hainbat eraikin eta azpiegitura euskal kultur tradizioa bultzatu eta indartu dutenak, hala nola, Arte Eder museoa edo Itsasmuseum-a. Egia da, Guggenheim Museoaren hedapenaren ondorioz hainbat aldaketa bizi izan dituztela hiriaren tonikara moldatuz. Hortaz, Bilbok indartutako kultur eredu eta kontsumoaren baitan kontrajarriak diren elementuak aurki daitezke, nahiz eta aldaketak maila orokorrean hiri eredu jakin baten eraginpean gauzatu diren.

### 4.2.1 MUSEOAK

**Itsasmuseum**

Egun Itsasmuseum izenarekin ezaguna den Museo Maritimoak 2003an ireki zituen ateak Bizkaiko eta bereziki, Bilboko itsas kultura transmititzeko helburuarekin. Santimami auzoko inguruetan kokatua dago, Olabeaga auzoaren hasieran, Euskalduna Zubia eta Jauregiaren alboan. Jon Ruigomez Matxin da zuzendaria. 1996 .urtean sortu zen Bilboko Itsasadarreko Museo Maritimoa Fundazioa; honen sorreran instituzio publikoez gain, agente pribatuek ere parte hartu zuten. Museoaren webgunean (www.itsasmuseum. eus) partaide korporatiboa izateko azalpen orria[14] aurkitu daiteke, izan ere, 15. urteurrena betetzearekin batera, anbizio berriak ditu museoak. Azken urteetan zehar hainbat izan dira Itsasmuseum-ak izan dituen helmugak: izen berritzaileaz gain, esparruan erreferentziazko museoa izatea du helburu, ez soilik Bilbon, Bizkaiko Golko osoan zehar. Berritzailetasun horri eusteko korporatibistatzat du bere burua eta horregatik identitate korporatibo hori sendotzeko deialdi zabala egiten du hainbat balio azpimarratuz, hala nola: errelato maritimoa, gogoeta, berrikuntza soziala, ezagutza eta ondarea, komunitatea, etab. Itsasmuseum-ak nahiz eta Bizkaiko arrantza kultur ondarea mantendu eta gogora ekarri, museo xume izateari utzi eta Bilboko hiriari kapital izaera ematearen anbizioan jartzen du foko. Horretarako, kultura komertzializatzeko helburuaren ente korporatibista baten nortasuna era irmo batean aldarrikatzearekin batera, zabalkuntzarako proiektu berriak aurkezten ditu.



Bilboko Itsasmuseum-a.
Iturria: Biendealtura.com



La Carola garabia.
Iturria: Elcorreo.com

[14] Itsasmuseum. (s.f.). Komunitatea. Itsasmuseum lagunak: Egin zaitez Itsasmuseumeko kide. *Itsasmuseum Bilbao.* Eskuragarri hemen: https://www.itsasmuseum.eus/eu/komunitatea/

Marka bat izateko esfortzuez gain, museoaren historian zehar hainbat dira azpimarratzeko elementuak. Izan ere, nahiz eta helburu bezala ahalik eta bisitari gehien etortzea izan eta horretarako izen, irudi eta funtzionatzeko era berri bat hedatu, historikoak diren ondareak eta gatazkak barne biltzen ditu.

La Carola izeneko garabia da museoak daukan obrarik erakargarriena, antzina, Euskalduna ontziolako garabi funtzionala zena. 60 metroko garabi hau Itsasmuseum-aren aurrean kokatua dago. Bere garaian estatuko garabirik potenteena zen. 2000. urtean eta beranduago, 2011. urtean, La Carolan begiratoki publiko bat irekitzeko proposamena abiatu du museoak. Hala ere, museo honetan, gehienetan bezala, gatazkak ere egon dira[15].

**Arte Eder Museoa**



Arte Eder museoa. Iturria: Viajejet.com

Bilboko Doña Casilda Parkearen alboan kokatua dagoen Arte Ederren Museoa sorrera, Arte Ederren Museoan eta Arte Modernoko Museoaren elkarketan dago, 1945ean. Egun ezagutzen den eraikina 2001. urtean egindako berrikuntza lan handien ondorioa da. Hortaz, 90. hamarkada amaieran, jabe diren instituzioek, hau da, Bilboko Udaletxeak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hornikuntza kulturalak hirian zuen protagonismoaz jabeturik, Erreforma eta Zabalpen Plana martxan jarri zuten museoa sustatzeko helburuarekin. 1996an, Miguel Zugazaren zuzendaritzapean, Luis Maria Ugarteren proposamena martxan jarri zen. Instalakuntza eta zerbitzuen hobekuntza bilatzen zuen; bi eraikinak lotu zituen eta galeria baten bitartez elkartu ziren hauek, bi eraikinen arkitektura errespetatzen zirelarik.



Norman Fosterren proiektua Arte Eder museoan. Iturria: Elpais.com

2000. urtean sortu zen Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa. Patronatua da gobernu organoa; honetan instituzio ordezkariak biltzen dira, jarduera museistikoan gaituak direlarik eta gobernu organoaren helburuetaz aritzen dira. 2008an museoak 100 urte bete zituen, eta horrekin batera, eta egun pil-pilean dagoen gai bati eutsiz, Iñaki Azkunak, orduko Bilboko alkateak, museoaren zabalpen berri baten igarpena egin zuen. Zabalpen honen

[15] Museoaren kanpoaldean kanpo erakusketa bat dago, hainbat itsasontzi eta bestelako itsaso tresnez osatua dagoena. 2014ean zaintza falta dela eta, itsasontzi bat erakusketatik kanpo gelditu zen, Ondarruko Intxausti familiaren, itsasontzia eman zuen familiaren, etengabeko kexen eta salaketen ondorioz. Bestetik, bestelako proiektu batek zalantzak sortu itu museoaren bueltan; izan ere, olatu piszina eta bestelako atrakzioak izango zituen aisialdi zentro bat eraiki nahi zen museoan, inbertsore errusiar batzuen eskutik. Guztiz fidagarria izan ez den prozesua gaur egun kolokan dago.

helburua artelan eta obra berrienak erakusteko espazio berritzaile bat irekitzea zen. 2018an, Eusko Jaurlaritzak, Arte Eder Museoaren zabalpenerako ateak ireki zituen. Azkenean, 2019an Norman Foster[16] arkitektoaren gain erori da erreformaren egitasmoa. 2022 urterako aurreikusten da obren amaiera. Nahiz eta Fosterren proiektuak erakusketetarako espazio gaitasuna handitzen duen, museo klasikoaren kanpo estetika urratuko duen egitura espektakularra ezartzeko helburua du.

**Guggenheim Museoa**

Guggenheim Museoa Bilboko museo ospetsuena izateaz gain, Bilboko eraldaketaren elementu zentral gisa ulertzen da egun. Bilboko Abandoibarran dagoen museo hau 1997an ireki zen, eraikinaren diseinatzailea arkitekto Frank Gehry arkitekto kanadiarra izanik. Dituen forma bitxi eta bereziek ezaugarritzen dute museoa, titanio plantxez osatua egotearekin batera.



Guggenheim Museoa. Iturria: Guggenheim-bilbao.eus

Esteban-ek *El efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento (2007)* liburuan azaldu bezala, Guggenheim museoa, hasiera batean, Euskal kulturaren espresio gisa aurkeztu zen eta plano internazionalean nazio elementua integratzeko helburua adierazten zuen. Hala ere, denborarekin ikusi da New York-eko fundazioak definitu eta gidatzen duen museoa dela, hau da, frankizia bat balitz bezala funtzionatzen duela. Horrek hainbat gatazka ekarri ditu euskal eskultore jakin batzuekin[17]. Museo honek kalitatezko kultur erakusketak egin arren, espektakuluan oinarritzen diren arte lanak kalitatekoak diren hauekin sarri nahastatu ditu[18]. Errealitate hau adibideetan plasmatzeko museoaren inguruan eraikiak izan diren hainbat eskultura begiratu besterik ez da egin behar.



Suzko Iturria, Yves Klein. Iturria Guggenheim-bilbao.eus

1997an museoaren irekierarekin batera, Yves Klein[19] artista frantziarraren **Suzko Iturria** ireki zen, museoaren berezko den artelana.

Museoaren irekieratik oso hurbil, 1998an, **Lainoa[20]** izeneko obra gehitu zen Suzko Iturri eta museoko lakura. Zubian



Lainoa, Fujika Nayaka. Iturria: Tripadvisor.es

[16] Norman Foster Bilboko Metroaren diseinatzaile ere bada.

[17] Gatazka esanguratsuena Oteiza eskultorearekin izan da.

[18] Horren adibide da museoak hasiera batean ekartzen zituen erakusketak, nahiz eta denborarekin internazionalki ospetsuak diren autoreak gonbidatu izan dituen. Izan ere, lehenengo urteetan, Giorgio Armaniren arropa kolekzioa bezalako erakusketak ikusi ahal ziren.

[19] Yves Klein Internacional Klein Blue-ren sortzailea tonalitate horretan egindako artelanaz gain, piszina eta antzekoetan dago gaitua. Guggenheim kanpoaldeko Suzko Iturria egitearekin batera 2005ean, IKB koloreko piszina txiki bat jarri zuen Guggenheim barruko areto handienean, egun Richard Serraren artelanak dauden aretoan.

[20] Bristoleko eta San Frantzizkoko laino zubiak gogorarazten ditu.

noizean behin laino hodeia ateratzen da, bere autorea den Fujika Nayaka japoniarraren berezitasuna den lainoa, hain zuzen ere.

Biek elementuok, museoaren fatxadan ikusgai direnak, beldurra eta ustekabearen sentsazio eta emozioak indartzen ditu. Hala, espero ez diren eta ikusgarriak diren sentsazio hauek, lar elaboratuak ez daudenak, espektakuluari ekarpena egiten diote. Ez-jakintasuna eta bat-bateko sorpresa hedatzen dute museoaren lehenengo inpresioan.



Mamán, Louise Bourgeois.
Iturria: Guggenheim-bilbao.eus

2001an **Mamán** izeneko izugarrizko armiarmaren eskultura jarri zuten museoaren fatxadaren parean, lainozko zubiaren alboan. Armiarmaren egilea Louise Bourgeois frantziar-amerikar eskultorea da, eta bere berezitasunena artean armiarmak egitea aurki daiteke. Amaren figura [21] azpimarratzen duen artelan hau munduko hainbat hirietan kokatua egon da Bilbora ekarri aurretik.

Hala ere, Guggenheim museoa inguratzen duten artelanen artean ezin da alde batera utzi Jeff Koons eskultoreak utzitako lanak. Lehenik eta behin, pertsonaia honen aurkezpen txiki bat egitea pena merezi du, artearen munduan izandako garrantzia ulertze aldera. Enpresario estatubatuar hau artista *kitsch* nagusi bezala hartzen da, hau da, artista horterena artearen munduan. Izan ere, kritika pila bat jaso dituen artista dugu hau, alde batetik, artelanak kopiatzeko daukan afana dela eta; bestetik, bere obrak aurrera eramateko ekipo bat duelako atzean, hau da, berak ez du bere artea lantzen; eta bukatzeko, berak produzitutako artea irabaziak lortzera begira doalako, esklusiboki. Gainera, ofizioz artista ez eta Wall Street-en lan egin duen enpresari espekulatzailea izanik promozio eta publizitate izugarria egin du bere artelanen bueltan; horra hor lortutako ospearen zergatia nagusia. Ez hori bakarrik, bere garaian emazte zuen Cicciolina porno aktoresa italiarrekin batera harremanak izaten irudikatu zuen artelan kolekzio oso bat du, garesti xamarra dena.



Puppy, Jeff Koons. Iturria: Bilbaoysuria.wordpress.com

Bere artelanak egunerokotasunean aurkitu daitezkeen objektu familiarretan oinarritzen dira, superfluoak diren objektuetan, hain zuzen ere. Banalitatean eta kontsumismoan eratutako artea produzitzen du, edo produzitzen diote. Eta hain zuzen ere, honako hau da Guggenheim museoaren artelan esanguratsuenetako baten autorea, 1997an Guggenheim atzeko fatxadan kokatua izan zen **Puppy** obraren egilea. Puppy dimentsio handitako txakurra da, lorez eginda dagoena. Oso irudi familiarra da, eta ikusle asko erakartzen ditu. Horretaz gain, eta Koons-en estiloarekin bat egiten duen

[21] Ama batek bere seme alabak hezteko egiten dituen esfortzu eta dedikatzen duen lana irudikatzea du helburu.

**Tulipanak** obra 2007an museoak duen balkoian kokatu zen. Kolore askotako dozena erdi tulipanak, Puppy-ren antzera, dimentsio oso handian eginak daude. Beste hainbat obren antzera, puzgarri baten efektua transmititzen du, hauek gogortua izan direlarik[22].


Tulipanak, Jeff Koons. Iturria: Guggenheim-bilbao.eus

2007an, Guggenheim Museoaren 10. urteurrenaren harira, La Salve zubia museoan gehiago integratzearen helburuarekin apaingarri ezberdinen arteko lehiaketa egin zen. Lehiaketa horretan proiektu antzekoak aurkeztu ziren, autore ospetsu ezberdinen aldetik. Lehiaketaren bozkaketa hiritarrei ireki zitzaien[23]. Lehiaketaren irabazlea Daniel Bure artistaren **Arku Gorria** izan zen, zubiaren arku berdea estaltzen duena. Zubiak zuen izaera industriala ezabatu eta hirira hobekien integratzen den diseinua martxan jarri zen[24].


La Salve zubiko Arku Gorria. Iturria: Deia.eus


Arbola Handia eta Begia, Anish Kappor. Iturria: Bilbaoturismo.net

Museoarekin bukatzeko, 2009an Anish Kapoor britainarraren **Arbola Handia eta Begia** obra jarri zuten museoaren kanpoaldeko lakuan. Nahiz eta estiloak berdintsuak ez izan, Koons-en obren antzekoa da. Bizitzaren galkortasuna adierazten du obra honek.

Bilboko hirian eta inguruetan badira beste hainbat museo eta erakusketa aretoak, hala ere, aipatutako hiru hauek dira berrikuntza eta presentzia handiena dutenak. Aipatzekoak dira, hortaz, Errekalde Aretoa, Alameda Errekalden dagoena, zein BBK aretoa Gran Vía kalean. Areto hauek doanik izateaz gain, kultur elaboratu eta kalitatekoa eskaintzen dute. Hiritar askoren artean areto hauek ez dira ezagunak. Bestetik, Athletic futbol zelaian dagoen museoa aipatzekoa da; museo espektakularren joerari jarraiki eraiki da.

### 4.2.2 BESTE ERAIKIN ETA ARETOAK: EUSKALDUNA, BEC ETA AZKUNA ZENTROA

**Euskalduna Kongresu eta Musika Jauregia**

Euskalduna Kongresu eta Musika Jauregia Bilboko historiaren zati potolo bat bete duen Euskaldunako Ontziola zegoen lekuan eraiki zen. Euskalduna Jauregia aurreko atalean aski aipatua izan den arren, turismo komertzioari egindako ekarpenagatik da garrantzisua. Izan ere, bai estetikoki,

[22] Obra hau osatzeko Koons-ek argi utzi zuen bere taldearen laguntza behar izan zuela, berak marrazkian diseinatzetik haratago ezer gutxi gehiago egin zuela.
[23] Bilboren urbanizazio prozesuan eraikitzeko ahalmen faltsu baten irudia emateko ahaleginetan, Guggenheim bezalako museoak lehiaketaren erabakia demokratizatzean "herrira" ireki denaren ideia helarazi zuen, guztia, kanpaina soil batera mugatu zen arren.
[24] Kolore gorriko arkuak, antza, irudi adiskidetsua ematen dio zubiari Ana Prado-ren hitzetan. Materiala dela eta, arkuak hainbat arazo ekarri izan ditu, mantenimenduari dagokionean denbora eta baliabide asko eskatzen baititu.

bai anparatzen dituen ikuskizunengatik, kultur kontsumoa areagotzen eta indartzen duen antzoki ereduari jarraiki agertzen da. 1999an ireki zituen ateak, eta gaur egun, XXI. mendeko Bilbo berriaren ikurretako bat da.

Euskalduna Jauregia – Palacio Euskalduna S.A. Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunpeko foru sozietatea da. Soriano eta Palacios arkitektoek sortu zuten eraikinari etengabe eraikitze lanetan den itsasontzi baten antza eman zitzaion.



Euskalduna Jauregia. Iturria: Euskalduna.eus

Euskalduna jauregian jarduera ezberdinak egiten dira: ekonomia eta enpresa arloetako jarduerak, akademikoak, agerraldi politikoak, instituzionalak, ekitaldi sozialak nahiz kulturak. Eraikinean, bilkurak eta ikuskizunak antolatzeko guneak, Auditoriuma, kongresu eta bilera aretoak eta zerbitzuko guneak daude.

2010ean Diputazioak, Soriano arkitektoarekin batera, Euskalduna Jauregiaren zabalpen plan definitiboa aurkeztu zuen. 2012an inauguratu zen Euskaldunaren zati berria[25].

Bilbao Internazional webgunean (www.bilbaointernational.com) ageri den bezala burdinezko, kristalezko eta altzairuzko materialek giro industrial baina garbia ematen diote eraikinari. Gainera, Abandoibarra Etorbidearekin bat dator eta oso ondo integratzen da paisaian.

**Bilbao Exhibition Centre**

Barakaldoko Ansio auzoan, Bilbao Exhibition Centre, BEC bezala ezaguna dena, aipatzekoa da eraikin kulturalen artean. Bilboko erakustazokaren sede nagusia da[26]. César Azcárate eta Esteban Rodríguez-en diseinatutako makroegitura honek konbentzio internazionaletarako eta gaitasun handiko ekitaldietarako espazioa ahalbidetu du.



Bilbao Exhibition Centre. Iturria: Emc-internacional.com

Hainbat dira BEC-en aurrera eraman diren jarduerak: azokak, batzarrak, enpresa- eta negozio-topaketak, jardunaldiak, azterketak, produktuen aurkezpenak, urteurrenak, oroitzapenezko omenaldiak, afariak, jaiak eta formatu handiko eta txikiko musika-, kirol- eta kultur-

[25] Berritu den espazioa ekialdeko esplanan dago; leku itxi bat egin dute, estalki bat duena, fatxada ospetsuan inolako oztoporik sorrarazten ez duelarik. Kristalezkoa denez aterki antzeko funtzioa betetzen du eta ongi argiztatua dagoen erakusketetarako Hall-a ahalbidetu du.

[26] Lehen San Mamés auzoan kokatzen zena, 2004an zabaldutako BEC-en ondorioz Barakaldora mugitua izan da.

emanaldiak… Urte osoan, BEC-ek berak antolatutako erakusketak egiten dira, Euskal Autonomia Erkidegoan zein nazioartean ezagunak diren markenak.

6 pabiloi handi eta parking bat izateaz gain, EAE-ko bigarren dorre altuena den, BEC Dorreak eta estatu mailan erabilera askotako pabiloi handiena den, Bizkaia Arenak osatzen dute. BEC ezaguna da Bilboko inguruetara ekarri izan dituen gertaerengatik, hala nola, hain ezaguna diren MTV sariak. Hori dela eta kultur kontsumoa indartzera begira doan eraikin gisa har daiteke, handitasunean eta espektakularizazioan oinarritzen dena, ez soilik kanpo itxurari dagokionez, baizik eta bultzatzen dituen ikuskizun eta bestelakoengatik.

**Azkuna Zentroa**



Azkuna Zentroa. Iturria: Eitb.eus

Eraikinekin bukatzeko eta Bilboko eskulturetan sartu aurretik, hurrengo lerroetan Azkuna Zentroaren inguruan hainbat zertzelada emango dira. Izan ere, 2014 urtetik aurrera Azkuna Zentro bezala ezagutzen den hori, aurretik Bilboko Alhondiga deitzen zena, eraikin historikoa da[27].

2001ean hasi ziren erreabilitazio obrak; 2010an Alhondiga gizarte etxe antzeko baten bilakatzeko proiektua zabaldu zen, Phillipe Starcks diseinatzaile frantziarraren eskuhartzearekin batera. Gaur egun, aisialdirako eta kulturarako espazio gisa ezaguna da.

Azkuna Zentroaren berezitasunen artean, munduko kultura ezberdinak omentzen dituen 43 zutabeak daude; horiekin batera, Eguzkiaren irudia etengabe jartzen duen pantaila handi bat dago sarreraren alboan. Horretaz gain, liburutegi, piszina, gimnasioa, mediateka eta zinemak daude, guztiek arkitektura bereziz hornituak.



Euskalduna Jauregia. Iturria: Masbilbao.com

Baztertutako espazio hau Bilboko barruti kultural berria bilakatu da, geroz eta ospetsuagoa dena. Nahiz eta funtzio sozial garrantzitsua bete, arkitekturak leku berezi eta espektakularra bilakatzen du. Gainera, izen aldaketarekin batera, Bilboko hiri eredura itsatsi da, hiri-kapitala ideia indartzearen helburuarekin batera. Izan ere, irudi guztiz berria eman duen eraikina da.

[27] Ricardo Bastida arkitektoaren eskutik izan zen eraikia 1909an. Hasiera batean, Alhondiga ardo eta olioen biltegia zen. Hala ere, 1919an izandako sute baten ondorioz, edifizioaren erabilera oso eskasa zen, eta nahiko baztertua eta utzita zegoen.

## 4.3 GARRAIO AZPIEGITURAK

Aurreko bi ataletan Bilbo hiriaren eraldaketaren aspektu garrantzitsuenak jorratu diren arren, garraioak bizitako eraldaketa hiri eta inguruetan bizi den garapen eta birsortze prozesuan parte da. Egun, turismora bideratu den hiriak mugikortasun eta garraio sistema arina du, berritzailetasunaren ikurra dena. Hiria inguruarekin ongi komunikatua dago, honetara heltzeko sarbideak ugariak izanik.

**Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidea**

Bilbao Ría 2000 elkarteak bultzatutako proiektu garrantzitsuenetarikoa Trenbidearen Hegoaldeko saihesbidea da, izan ere, hiriaren antolamendu berria Hurbileko Renfe eta FEVE-ren taiuketa berrantolaketan oinarritzen da hein handi batean. Alde batetik, trenbideek okupatzen zuten espazioa askatzea lortu zen. Horretaz gain, garraioak hirian eskaintzen zituen aukera ugariz baliatu eta erabilera berria eman zitzaion. Trenbideak muga bi sortzen zituen hirian: alde batetik, Abandoibarra eta Uribitartetik zihoan lineak Zabalgunea ibaitik banatzen zuen, eta bestetik, Trenbidearen Etorbidean zegoen salgaien trenbide trintxerak hiriaren ekialdearentzat oztopo bilakatu ziren. Basurto, Errekalde eta Zabalgunea banatuak gelditzen ziren. Oztopo hauen aurrean, trenbidea hiria garatzeko oinarrizko tresna bilakatu da, eraberritzearen elementu izatera pasatuz. Horretaz gain, garraio mota ezberdinen arteko harremana hobetu da.

Aurretiaz aipatu bezala, Bilbao Ría 2000-ek egikaritutako ekimenik potoloena izanik, hainbat dira sortu diren geltoki eta kaleak, hala nola: Trenbide Etorbidea Basurto eta Santimami inguruetan; Abando edo Indalecio Prieto tren geltokia, metroa eta Renfe batzen dituena; Ametzolako, Autonomiako, La Peñako, Miribillako, Santimamiko geltokiak, etab. Auzoen arteko banaketarekin bukatzearekin batera, trenbideak lurrazpira eraman, hiri antolamendurako egitura berriak garatzeko aukera eman eta garraiobideen arteko komunikazioa hobetu da.

**Bilboko Metroa**



Moyua Plazako Metro geltokiaren kanpoaldea. Iturria: Bilbaoturismo.net

1988an hasitako obrek lur azpitik bidaiatuko zuen metroa eraiki zuten, 1995ean funtzionatzen hasi zena. Norma Foster arkitektoa, Bilbon hain ezaguna izan denaren eskutik diseinatu zen proiektua[28]. Oso balorazio onak jaso dituen azpiegitura da hau, egun hiru linea dituena: Basauritik San Ignaziora abiatzen dena, San Ignaziotik Plentziara, itsasadarraren eskuineko aldetik eta San Ignaziotik Kabiezesera, itsasadarraren ezkerreko aldetik.

[28] Fosterrek Europako beste hainbat hirietan egin bezala, Berlin kasu, Bilboko metroa eratu zuen, bere hitzetan sinbologia eta funtzionalitatea batzea zela helburu.

Bestetik, 2017tik aurrera hirugarren linea zabaldu zen: Alde Zaharretik abiatuta, 2 eta 3 barrutiak lotu nahi ziren, hauek Euskotrenarekin harremanetan jarriz. Etorkizunerako proiektuei dagokionean, esanguratsuena eta kritika gehien jaso dituena, Loiuko aireporturaino heltzeko asmoan datza[29]. Metroak hainbat sari internazional lortu izan ditu[30].

**Loiuko Aireportua**

Loiu aireportuari eutsiz, egiturak terminal berriari egiten dio erreferentzia, izan ere, terminal zaharra Sondikan dago. Gaur egun, Kantauri Erlaitzeko aireportu garrantzitsuena da. Terminal berri hau, bidaiari eskaera handiagatik eraiki zen; Santiago Calatravaren eskuetan garatu zen proiektua eta 2000. urtean ireki zen. Garraiobide honek hartu duen garrantzia turismoari dagokio; Bilboko hiriak hartu duen izaera eta garrantzia dela eta Iparraldean dagoen aireportu garrantzitsuena bilakatu nahi da. Egokipen eta zabalpen lan handien arrazoia aireportuak betetzen dituen helburuei dagokio; aireportu garatzen duen nortasun eta izaera internazionalak bidaiarien eskaera eta eskaintzari aurre egin behar dio, inolako zailtasunik gabe.


Loiuko Aireportua. Iturria: Aena.es

Loiuko Aireportuak Europako beste hiriekin harremanak estutzeaz gain, mugikortasuna erraztu du. Hala, turismoaren fluxuan elementu garrantzitsua da, bidaien gehiengo handi bat jarduera horretara bideratua baitago. Bilbao Air elkarteak 2019ko urtarrilean webgunean (www.bilbaoair.info) urteko txostenean[31] adierazi zuten bezala, 2018an bidaiarien rekord propioa gainditu zuen Loiuko Aireportuak[32].

**Bilboko Tranbia**

2002an hasi zen funtzionamenduan eta Euskotran gestiorako esklusiboki sortu zen Eusko Trenbidearen gain dagoen marka da. Eusko Jaurlaritzako Garraiobide eta Herri Lan Departamentuaren eskutik jaiotzen den ekimena da, Bilboko trenbide sareen hobekuntzara begira doana. Hala ere, ez da kasualitatea tranbiak duen ibilbidea eta geltokiak, izan ere, garaian Bilboko

---

[29] Izan ere, Bilboko hainbat proiektu egikaritu diren arren, badira auzo batzuk bazterketa salatu izan dutenak, hala nola, Errekaldeko auzoa. Egun ez da metroa Bilboko parte horretara heltzen eta nahiko konexio txarra dago alde horrekin.

[30] 1998an Sarrikoko geltokiak Brunel Saria irabazi zuen, tren arkitektura sari ospetsuena eta bestetik, Europako metro garbienaren saria lortu du. Berezitasunei dagokionean, 2018 urtean, goizalde partera lasterketa bat antolatu zen Metro ibilbidean. Lasterketa trenbidean garatu zen.

[31] Bilbao Air. (2019). El aeropuerto de Bilbao cierra el primer semestre con 2,7 millones de pasajeros, un 9,1% más. *Bilbao Air.* Eskuragarri hemen: http://www.bilbaoair.info/index.php/es/2019/07/15/el-aeropuerto-de-bilbao-cierra-el-primer-semestre-con-27-millones-de-pasajeros-un-91-mas/

[32] Artikulu berdinean Loiuk dituen harreman eta konexioetaz ere aritzen da, estatuan 18 aireporturekin harremanetan egoteaz gain, internazionalak 31 direlarik. Goranzko joera hori urteak pasa ahala nabarmenagoa da, izan ere, bai hegaldi nazional, bai internazionalak %5 -%9 igo izan dira. Igoera horren baitan konexio batzuk joera bilakatzen hasi dira; Lisboako, Pariseko eta Londreseko hegaldiak dira ugarienak Loiun, hegaldi internazionalei dagokionean.

mapa aldatzen zegoela gune oso enblematikoetatik igarotzen den *metro arin* gisa hartu baita. Beste helburuen artean, metroak sarbide ez zuen guneetara heltzea zen; egikaritu berri zen Hegoaldeko Saihesbideak betetzen ez zituen hutsuneei aurre egiteko garraiobide osagarri ere hartu da.



Bilboko Tranbia. Iturria: Bizkaiatalent.eus

Tranbiak, hasiera batean, Uribitarte-Atxuri bidaia besterik ez zuen egiten. 2003an ibilbide hori zabalagoa egin zen, Uribitartetik Guggenheimera helduz eta museorako sarbidea erraztuz. Urte berdinean San Mameseraino heltzeko ibilbidea ireki zen, Abandoibarratik eta Euskaldunatik igarota. 2004. urtean Basurtoraino luzatu zen ibilbidea. 2010 eta 2012 urte artean Basurto eta La Casillako geltokiak zabaldu ziren; izan ere, Errekalderaino helduko zen ibilbidearen proiektua martxan zegoen[33]. Tranbiaren beste kuriositateen artean Zorrotzaurreko proiektuan integratzeko nahia da; Erriberan 2010an abiatu ziren obrekin batera, trenbideak Zorrotzaurreko islaraino heltzeko interesa badago, Euskalduna zubitik igaroz. Proiektuaren bueltan zabaldu diren zalantzak ikusita, kolokan dagoen proiektua dela esan daiteke. Horretaz gain, Zorrotzaurretik Zorrotzara salto egitea da tranbiak eman nahi duen hurrengo pausoa. Luzapen hauek martxan ez dauden arren, 2019 apirilean Aitziber Atxutegik Deia[34] egunkarian idatzi zuen moduan, Bilboko Tranbia unitate luzeagoekin jarduteko prestatzen ari da. Hala ere, gaur egun 6km-ko ibilbidea du, 14 geltokiz osatua.

Erabilerari dagokionean, lehenengo urtean ez zituen aurreikuspenak bete, datuen oso azpitik zegoen bidaiarien kopurua. Hala ere, hurrengo urteetan kopuru horrek gora egin zuen, eta hainbat dira kopuru horren gorakadan ekarpena egin duten ekimenak: Santo Tomás egunean Areatzan egiten den jaia dela eta urtean zehar dauden bidaiari kopuru handiena erregistratzen da; hala da ere San Mamés-en partiduak dauden egunetan. Zubiarteren irekierak ere Tranbiaren sozializazioan asko lagundu zuen. Gainera, urtean zehar erabilienak diren geltokiak Guggenheim-ekoa, San Mames-ekoa eta Erriberako eta Abandoibarrakoa izatea, izan ere, hauek dira leku enblematikoetatik hurbilen dauden geltokiak.

[33] Errekaldeko auzokideek metro linea auzora heltzea nahiago zuten, hasieratik tranbiaren luzapena guztiz ezeztatu dutelarik.
[34] Atxutegi, A. (2019). El tranvía de Bilbao se prepara para poder operar con unidades más largas. *Deia, Noticias de Bizkaia*. Eskuragarri hemen: https://www.deia.eus/2019/04/27/bizkaia/bilbao/casi-tres-millones-de-viajeros-usaron-el-tren-ligero-el-ano-pasado-el-tranvia-de-bilbao-se-prepara-para-poder-operar-con-unidades-mas-largas

**Artxandako Funikularra**



2018an Artxandako begiratokian jarri zen barandilla berria. Iturria: Elmaestroviajero.com

Azken urteetan garrantzi handia hartu duen atrakzio turistiko gisa hartu daiteke Funikularra, balio turistiko handiko ibilgailua baita [35]. Turismoaren gorakadarekin batera, Artxandak beste kutsu bat bereganatu du: Bilboko hiri guztia goitik ikusteko miradorea bilakatu da. 2018an eraikitako 306.000 euroko baranda batek Hollywood Sign dakar gogora.



Artxandako Funikularra. Iturria: Bilbao.eus

Artxandara igotzeko bide bakarra izan ez arren, ibilgailu erakargarriena bilakatu da, egun, atrakzio turistiko bat gehiago baita. 2015ean, 100 urteurrenean, hainbat berrikuntza izan zituen funikularrak, gaur egun duen itxura berritua orduan bereganatu baitzuen.

**Bestelako zerbitzuak: Bilboats, Bilbao City Tour eta Bilbaobizi**



Bilboats itsasontzia Guggenheim parean. Iturria: Bilboats.com

Bilboats itsasontzia, itsasadarretik Bilbo ezagutzeko aukera emateaz gain, ibaiaren gainean jaiak antolatzeko espazioz eskaintzen du; 2009tik aurrera darama itsasadarretik paseatzen. Estilo berdinarekin agertzen da 2018ko ekainean Bilbao City Tour busa. Deiak [36] 2018ko ekainean azaldu bezala, Alfonso Gil-ek oso beharrezkoa ikusten du turistentzako zerbitzu hau; gainera lehenengo busa da bisita Katalaneraz, Galegoz eta Euskaraz eskaintzen duena.



Bus City Tour Guggenheim parean. Iturria: bilbao.city-tour.com



Alfonso Gil zinegotzia Bilbaobizi-a frogatzen.Iturria: Elcorreo.

Bilborekin bukatzeko, aurretiaz bazeuden Bilbaobizi izeneko udal bizikletak 2018an elektrikoak bilakatzean zalaparta handia piztu zen Bilbon. Izan ere, bizikleta hauek martxan jartzearen inguruan EAJ-ak egindako kanpainak bere fruituak izan zituen[37]. Berrikuntza honek Europako hainbat hiri gogorarazten ditu, hala nola: Londres, Glasgow, Berlin, Viena, etab. Egun zabaltze prozesuan dagoela esan daiteke,

[35] 1915ean eraikia izan zen, hasiera batean Bilboko hiritarrak Artxanda mendira eramateko funtzioa betetzen zuen, izan ere, Artxanda aisialdirako espazioa zen, bertan baitzegoen kasinoak eta eraikin honek ezaugarritzen zuen ingurua. 80. hamarkada inguruan, Artxanda parke pasealeku lasai bilakatu zen.

[36] Alonso, A. (2018). Bilbao recupera el autobús turístico con once paradas y conexión con el funicular. *Deia, Noticias de Bizkaia*. Eskuragarri hemen: https://www.deia.eus/2018/06/09/bizkaia/bilbao/bilbao-recupera-el-autobus-turistico-con-once-paradas-y-conexion-con-el-funicular

[37] Hasiera batean gatazka asko egon ziren bizikleten funtzionamenduarekin, kopuru oso txikia izateaz gain, inskripzioa ez zegoen ongi mugatua. Egun sistemak egonkortasun handiagoa izan arren, funtzionamenduak hainbat hutsune potolo ditu.

izan ere, hasiera batean oso auzo mugatuetara heltzen. Auzokide ezberdinen kexen bitartez lortu izan da erdigunean ez dauden auzoetara zerbitzua heltzea[38]. Aurreko bi adibideek duten izaera turistikoa ez duen arren eta hiritargoari bideratutako zerbitzu hobekuntza den arren, aurrerapen eta modernitate irudia helarazteko tresna gisa erabili du EAJ-k eta hortaz, hiriaren irudi garbiketan ekarpena egin duela esan daiteke.

Turismora eta espektakularizaziora begira doazen bestelako proiektu proposamenak izan dira Bilboko hirian[39].

**Bilboko Portua**


Bilboko Portua, Santurtzin.
Iturria: Turismo.santurtzi.net

Bilboko Portuari dagokionean, azpimarratzekoa da, alde batetik, 1877an Evaristo de Churrucak ez balu portua kanpora eraman eta Nerbioi Itsasadarraren kanalizazioaren obrak bere gain hartu, egun ez litzateke posible izango Bilbon bizi den urbanizazio prozesua egikaritzea. Hala, Santurtzin kokatu zen 1904an Kanpo Portua [40] .Getxoko terminal transatlantiko berria eta industria instalazio garrantzitsuaren eraikuntzak Portua urtez urte handiagotzea ahalbidetu dute, Bilboko Portua Kantauri Erlaitzean eta Estatu mailan portu garrantzitsuenen artean kokatuz[41].

**Getxoko Kirol Portua**


Getxoko Kirol Portua. Iturria: Getxo.eus

Portuaren parean aurkitzen den Getxoko Udalerrian, garai antzetsuan, Kirol Portua eraiki zen, Ereaga hondartzaren alboan. Ez zen nahikoa izan Bilboko Portuan transatlantiko eta kruzeroen turismoa gehitzea, eta luxuzko portu bat eraikitzeko beharra sentitu zuten.

[38] LAB sindikatuak abuztuaren 7an jakinarazi zuenez, Bilbaobiziko langileek pairatzen dituzten baldintza kaskarrak direla eta, greban daude.
[39] 2018ko martxoaren 6an El Correo egunkariak argitaratutako artikulu batean aipatutakoaren arabera, Bilboko Udalak teleferiko proiektu bat zeukan martxan, Abandoibarra eta Artxanda lotuko zituena. Proiektu hau aurrera eramango denik egun ezin da jakin; jakin daiteke, aldiz, zer dela eta proiektu honek interesa pizten duen Bilbon. Teleferiko honen bitartez Guggenheim-en goiko ikuspegia irabaztearekin batera, atrakzio berri bat eratzen da museoaren bueltan, Artxanda mendia aisialdirako gune gisa indartzen duelarik.
[40] XX. mendearen bigarren zatian, Kanpo Portuko kaiak osatu ziren, egun Bilboko Portua kontinentean hain garrantzitsu egiten duten kaiak. 1994an osatu ziren instalazio guztiak. Hala, industria konbentzionalaren krisiaren erdian, metalurgiaren krisiarekin, meatzearen agorpenarekin eta ontziolaren hondoratzearekin batera, jarduera komertzialaren gorakada planteatu zen Bilboko Portuan. Etorkizunean jarduera hori gauzatzera begira handitzen da portuaren aktibitate lurzorua. 1993an hasi ziren obrak, 2009an bukatu ziren, prozesua fase ezberdinek ezaugarritzen zutelarik.
[41] Hala ere, Santurtzi, Zierbena eta Muskizeko bizilagunak ez daude pozik bere garaian Superportuak eta egun Bilboko Portuak euren lurraldeetan hartu duen dimentsioarekin, nahiz eta hau beharrezkoa izan Bilboren eraberritze prozesuan.

Getxon kokatutako portu turistikoa, Bilboko Portua bezala, Bilboko Abran kokatua dago. 1992. urtean hasi zen Kirol Portuaren proiektua martxan Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Getxoko Udalaren eskutik. 1997an zabaldu zen estreinakoz.

Portuak zineak, tabernak, jatetxeak eta aquariuma ditu; arrantzarako denda bereziak, arropa, buzeoa eta area tekniko oso zabalak ere. Oinarrizkoak diren zerbitzu nautikoez gain, hainbat kirol jarduera integratzen ditu, aisialdirako eta ostalaritzarako hainbat instalazio eta eremu ezberdin ere. Gainera, dauden gurutzaontzien hiru terminalek Euskadi Europako hainbat herrirekin lotzen dute. Atrakzio turistiko indartsua bilakatu da Bilbo bisitatzera datozenen artean; baina horretaz gain, luxuzko turismoa ere erakartzen du[42].

**Bilboaldeko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea**

Bilboko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea deritzona, *Supersur* izenarekin ere ezaguan da. Bilboaldeko mendebaldean dagoen ordainsari bidezko autobidea 2011an ireki zen lehenengoz. Bilboko Portuaren plano berdinean, ustezko garrantzi berezia izango duen proiektu da, egun bukatua ez dagoena. Gainera, proiektu hau bereizgarri egiten duten ezaugarrien artean, honen kostu ekonomiko eta ekologiko daude. Izan ere, estatuko autobide garestiena da.


Supersurra proiektua, goitik ikusia. Iturria: Europapress.es

Euskal Y-a eta gero, inbertsio kopuru handienak dituen proiektua ere bada. 2015ean bukatua egongo zela aurreikusten zen arren, egun ezin da bukatutzat eman makroproiektu hau. Autopista honen helburu nagusia Bilbo zeharkatzea oztopo handia ez izatean datza. Hala, Kantaurikoko Autopistarekin loturik egongo da, Santander edo Donosti norabideetan Bilbo hiria den oztopoa saihestuz[43]. Turistek eta autoktonoek izango duten tasa ezberdintasuna aipatzekoa da, turisten kasuan peajean ordaindu beharrekoa autoktonoen erdia baino gutxiago izango delarik.

Hiru fasedun proiektu honen lehenengo fasearen parte bat soilik osatu egin da, 2011an zabaldu egin zena, Santurtzi Larraskiturekin lotzen duena. 2019ko urtarrilean Peñaskaletik Benta Altara heltzeko obrak hasi ziren, Bolintxutik pasatzeko asmoarekin[44].

[42] Aipatzekoa da Neguri auzoaren alboan dagoela, Bizkaiko eremu aberatsa izateagatik ezaguna dena.
[43] Autopista honen beharra Kantauriko Autobia ordezkatuko zuen egitura bat eratzean zetzan eta horrek Bilbo Metropoliaren trafikoa arintzea suposatuko zuen.
[44] Egungo egoera nahiko gatazkatsua da Bolintxu botatzeak Pagasarri mendiaren zati handi bat aurretik eramatea suposatzen duelako. Orain arte eraiki den zatian Arraizeko tunela dago, Europako tunel kaberna handiena. Oraindik bigarren fasea, Arrigorriagatik Amorebietara doana, eta aztertzen ari den hirugarren fasea gelditzen dira. Jende gutxiren gogoko den proiektu hau, nahiz eta kostu izugarriak izan eta koordinazio falta eta bestelako hutsegiteak asko

# 4.4 KOMERTZIO MASIBOA ETA LUXUZKO HOTELAK

## 4.4.1 KOMERTZIO MASIBOA

Komertzio masiboa deskribatzen hasteko, estatubatuar eredua gogora ekartzea beharrezkoa da. Izan ere, 50, 70 eta 80. hamarkadetan Estatu Batuen eraiki ziren Mall-ak Mendebaldeko hainbat herrialdeetara ekarri dira; saltoki gune hauen berezitasuna duten egitura eta tamainan datza, eremu eta jarduera ezberdin asko integratzen dituzten guneak baitira[45]. Komertzio masibo eredu honi jarraiki, hainbat dira Bilbo hirian eta inguruetan ireki diren saltoki gune handiak, dendaz beteriko kale nagusiekin batera. Hurrengo lerroetan komertzio eredu honek Bilboko hirian izan duen garapena azalduko da.

**Bilbondo**



Bilbondo saltoki gunea, Basaurin.
Iturria: Bilbondo.com

Bizkaian dagoen saltoki gune zaharrena Basaurin dagoen **Bilbondo** da, 1990. urtean ateak ireki zituena. Bilbondoren jabea Euskal Autonomia Erkidegoan erreferentziazko supermerkatua den Eroski kooperatiba da. Hasiera batean Bilbondo hipermerkatu gisa ateak ireki zituen arren, 1993an eta 2002an gauzatu ziren obrekin batera, Bizkaiko Parke Komertzial izatera pasatu da. Merkatal guneak erosketetarako guneaz gain aisialdirako espazioak ere baditu, izan ere, erosketaren esperientzia hobetzeko asmoekin 2012ko erreformek jardueraren kalitatea hobetzeko eta eroslea protagonista bilakatzeko helburua zuten. Gainera, erosketa jarduera ludikoa izan dadin hainbat dira urtean zehar prestatzen dituzten aktibitate eta promozioak. Gaur egun Bilbondok 41 dendez osatua dago. Bilbondoren irekierarekin batera hainbat izan dira, saltoki gune honen ereduari jarraiki, ireki diren zentroak. Lehiaketa horren baitan Bilbondo zaharkitua gelditu da[46].


Max Center saltoki gunea, Barakaldon.
Iturria: Barakaldodigital.blogspot.com

**Max Center**

Barakaldoko Kareaga auzoan, 1994. urtean Max Center saltoki guneak ateak ireki zituen. Santanderrera doan A-8 errepidearen alboan dago. 170 lokalez osatua dago, horien gehiengo handi bat frankizia eta bestelako marka ezagunen

eta argiak izan, erantzukizun politikoa duten klase politikoaren proiektu babestua da, ustez etorkizunean eragin izugarria izango duena.

[45] Jakina da Mall-en fenomenoaren agorpena hasia dela, ameriketan izandako gorakada pixkanaka-pixkana desagertzen joan delarik. Hainbat saltoki gune ixtera behartuak ikusi dira.

[46] Aipatzekoa da 2012ko obren ondorioz Basauriko komertzio komunitatearekin eta Udalarekin sortu ziren gatazkak, herritarrek ez zutelako Bilbondoren eraberritzea guztiz onartu.

dendak dira. Horretaz gain, zinemak eta Eroski supermerkatua ditu. 2002an Euskal Autonomia Erkidegoko aisialdi gune handiena zabaldu zuen, Max Ocio. Honek 16 zinema areto izateaz gain, amerikar bolera batek osatzen dute zentroa. Max Center eraikinaren aurrean dagoen Max Ocio-k 41 miloi euroko inbertsioa suposatu zituen. Max Center-ek geroztik zerbitzuetara begirako jarduerak mugatu zituen eta aisialdira begira doan edozein jarduera Max Ocio-ren gain gelditu ziren. Hala, aisialdira bideratutako lurzorua 10 bider handitu zen. Zentro gehigarri honen irekiarekin batera, McDonalds, Foster Hollywood eta antzeko frankizia estatubatuarrek lekua izan zuten Max Center-en[47].

**MegaPark**

Barakaldon Max Center-ekin gutxi balitz, San Vicente auzoan, 2004an, MegaPark parke komertzialari irekiera eman zitzaion. Estatuko Iparraldeko zonaldean dagoen saltoki gune handiena da, Arcona Iberica S.A. saltoki guneen enpresaren gain dagoena[48]. MegaPark-en eraikuntza Barakaldoren, eta bereziki San Vicenteren, hiri antolamendu berriaren testuinguruan ulertu beharra dago, BEC-en irekierarekin batera. Ez dago zertan aipatu behar aurreko saltoki guneen antzera frankiziek eta bestelako markek osatzen dutela honako hau ere. Denda biltegi handiak izateaz gain, hala nola, Decathlon edo Ikea, Park Avenue Fashion Outlet deituriko marka ospetsu eta garestien *outlet* etorbideak egiten du berezi[49]. Horretaz gain, zinemek eta jatetxeek ere ezaugarritzen dute gunea. MegaPark gatazkarako eszenatokia izan da, saltoki gune gehienak bezala.[50]




MegaPark hasierako errotonda, Barakaldon. Iturria: Neinver.com

**Artea**

Artea deituriko zentro komertziala 1998an zabaldu zituen ateak eta 2002an handitu zituen bere instalazioak. Aurretiaz aipatukoen eredu berdina jarraitzen du: marka ospetsu eta frankizien dendez gain, aisialdirako espazioa ere bada, zinemak, bolera eta jatetxeez



Artea saltoki guneko etorbidea, Leioan. Iturria: Lehioa.info

[47] 2019ko maiatzean hasteko asmoa zuten obra batzuk direla medio, Max Center erreformatua izango da. Eremu berde gehiago eta argi naturala sartzeko helburua duen erreforma hau, plano estetikoan eragingo du gehien bat, fatxada guztiz aldatuko delarik. Fatxada berriak Bilboko skyline-a eta Urkiola mendia ekarriko du gogora. Espazioaren berrantolaketa eta teknologia berrien hedapena ere egitea aurreikusten da

[48] Madrilen eta Sevillan MegaPark oso antzekoak badira.

[49] Adierazgarria da New York-eko Park Avenue-ren izena bereganatzea, izena soilik hartzearekin batera ideia hori MegaPark-era ekartzea delako asmoa.

[50] Hauen artean esanguratsuena hiritarrek kontsumo ereduaren aurka egindako kritika da; hala ere, gatazka potoloen artean aipagarriena Auzitegi Nagusiak MegaPark eraikitzeko okupatu zuen lurzorua ilegala gisa deklaratzearen inguruan sortutako tira-bira da.

osatua dagoena. Zentzu horretan, Barakaldoren Mega Park-en berdintsua da[51].




Ballonti saltoki gunea, Portugaleten. Iturria: Elinmobiliariomesames.com

**Ballonti**

Bilboz kanpoko azken saltoki gune handia Ballonti da, 2008an zabaldu zena; beste behin, Eroskik sustatutako merkatal gunea da. Nahiz eta beste saltoki guneekin antzekotasunak izan, Ballonti gimnasioa eta karting bat izateagatik da ospetsua. Hala ere, denda eta aisialdira begira doazen hornikuntzen aldetik, aurreko adibideen berdin-berdin da. Distintzio aldetik elementu gutxi nabarmentzen dira; hala ere, argi eta garbi dago saltoki gunean dagoen Primark handiak ezaugarritzen duela Ballonti.

**Zubiarte**

Bilbora bueltatuz, Zubiarte da, Ballonti Portugaleten bezala, hiriaren bihotzean kokatutako saltoki gune handi bakarra. Saltoki gunea 2004. urtean zabaldu zen, Robert Stern arkitekto estatubatuarraren eskutik. Abandoibarrako Barne Erreformarako Plan Bereziaren baitan adostua zegoen zentro komertzialaren tamaina eta kokapena. Izan ere, urte berdintsuetan eraberritu zen zonaldean kokatua dago, Euskadi Plaza, Iberdrola Dorrea eta Sheraton Hotelaren, egun Meliá, alboan. Robert Stern-ek azaldu bezala, alboko kaleetan girotua dago, kalearen jarraipen bat izateaz gain, itsasadarraren kurbatura errespetatzen duelako. Hala eta guztiz ere, estatubatuar arkitekto honen eskutik egindako eraikina Mall-en eredua bete-betean kopiatzen du, komertzio gune bat izateaz gain, aisialdi kontsumo masiboa sustatzen duelako: merkatal gunearekin batera, zinemak eta jatetxeak barne biltzen ditu eraikinak. 75 lokal inguru daude banatuak 4 pisutan; aipatzekoa da Bilbo kanpoaldean dauden saltoki guneak baino txikiagoa dela. Hala ere, arkitektonikoki deigarriagoa da: kanpoko itxurak eta kristalera handiek atentzioa ematen dute[52].




Zubiarte saltoki gunea, Bilbon. Iturria: Krean.com

Zubiarte, Artearen kasuari jarraiki, dekadentzian dagoela esan daiteke. Horren aurrean hainbat izan dira zentroak gauzaturiko aldaketak, hala nola, gune orokor berriak egitea, pisuen arteko komunikazio eta sarbideak hobetzea eta umeentzat erakargarria den espazioa eratzea. Hori da, hain zuzen ere, 2018an amaitutzat eman ziren obrek ekarritako berrikuntzak. Horretaz gain eta

[51] Krisiak gogor kolpatu duela argi dago, denda asko ixtera behartuak ikusi dira denden etengabeko errotazioa errealitate bat bilakatu delarik.
[52] Kritiketako bat, barrualdeko espazioaren erabilera ezegokiari egiten dio erreferentzia, izan ere, lau pisu dituen arren erdialdeko espazioa utzik dago guztiz.

komertzioen etengabeko errotazioa ikusita, hainbat denda berri ditu Zubiartek, espazio handiagoa hartzen dutenak eta beheko pisuan erreformak ekarri dituztenak: BM eta MediaMark.

Hiriaren merkantilizaziora begira, Zubiarte ikono bilakatu da; merkatal gunea berezi egiten duen ezaugarrietako bat hirian integratutako makroegitura izatea da, kontsumo masibora begira eraikina baita.

**Gran Vía Don Diego Lopez de Haro**



Gran Vía Don Diego Lopez de Haro kalea, gabon argiekin. Iturria: Elcorreo.com

Hiriaren komertzializazioa hizpide, Gran Vía kaleak beste eredu bat proposatzen du. Saltoki guneak alde batera utzita, kale nagusi batean hedatu den komertzializazioa aztertzekoa da. Gran Vía Don Diego Lopez de Haro-ri dagokionean egun Bilboko kale komertzial eta finantzarioa da, hainbat denda, instituzio publiko eta entitate bankarioz osatua dagoena. 2000. urtean kalearen erdi peatonalizazioak gauzatzeak argi uzten du kale horretan zehar eman nahi den giroa. Besteak beste, hauek dira kalea ezaugarritzen duten eraikinak: Bizkaia Dorrea eta El Corte Inglés, urte berdintsuetan eraikiak izan zirenak, 60. hamarkada amaieran.

Horretaz gain, Bizkaia Dorrearen azpialdean Primark bat irekitzekoa da hurrengo urteetan; Gran Via 4, 2020an Radisson luxuzko estatubatuar hotel kateak horietako bat eraikin honetan irekitzea aurreikusten du; Diputazioaren eraikina; Espainiar Bankuko eraikina; Gran Vía 23, 2018an Zara handi bat ireki zen bertan, gerra garaian Euskal Emakume Antifaxisten sede izandakoa, eta beste hainbat eraikin ospetsu eta enblematiko. Komertzioari dagokionean, El Corte Inglés-en inpaktuarekin batera, azkenaldian kaleak izandako joera azpimarratzekoa da. Izan ere, Inditex-en dendak kalearen ehuneko garrantzitsu bat hartzen dute: Zara, Zara Home, Berskha, Stradivarius, Pull and Bear, Massimo Dutti eta Oysho. Inditex-en dendaz gain, gainontzekoak luxuzko dendak izan ohi dira, hauek urte batzuetan kalea apaindu arren horietako askok arrakasta baxua dela eta ixtera behartuak ikusten diren arte: itxi berri duten Boss, Sephora, Lacoste, Bimba y Lola, Nespresso, Michael Kors, Guess, Zadig & Voltaire, Carolina Herrera, Chanel, Levis, eta beste hainbeste. Hala, Madrilego Gran Via, Londreseko Oxford eta New Yorkeko Fifth Avenue ekartzen ditu gogora Bilboko kale nagusiak.

### 4.4.2 LUXUZKO HOTELAK

**Gran Hotel Domine**

Gran Hotel Domine 2002an zabaldu zen; diseinatzailea Xavier Mariscal balentziarra da[53]. Mariscalek aipatu bezala, hotel globalaren kontzeptuari jarraiki diseinatu da honako hau, singularitate arkitektonikoa eta dekoratiboa oinarrian. Hortaz, detaile guztiek originalitate propioaren filosofiari erantzuteaz gain, ingurumenean moldatzeko helburua du, Guggenheim-en estetika modernoaren eranginpean.



Gran Hotel Domine, Guggenheim parean. Iturria: Baobilbao.com

**Hotel Sheraton**

Hotel Sheraton-i dagokionez, egun Meliá izenarekin ezaguna dena, 2003an ireki zen, Abandoibarra aldean, Zubiarteren pare-parean. Ricardo Legorreta arkitekto mexikarrak kanpoalderako ontziolaren koloreak erabili zituen arren, atrioa eta patioaren estilo mexikarraz apaindu zituen[54]. 2009tik aurrera Sol Meliá hotel kateak gestionatu du, euren helburua, hotel hau *Bilboko Hotela* bilakatzea delarik.




Hotel Meliá, Abandoibarran. Iturria: Bilbaoturismo.net



Hotel Lopez de Haro Ercilla. Iturria: Hotellopezdeharo.com

**Lopez de Haro Ercilla Hotela**

1990. urtean zabaldu zen, edifizio historiko baten berrikuntzaren ondorioz[55]. Ercilla kaleko hotelarekin batera, Ercilla Hotel Taldearen parte da.[56]



Hesperia Hotela, Campo Volantinen. Iturria: Tripadvisor.es

**Bilboko Hesperia Hotela**

Hesperia Hotel katearen parte da eta 2005an ireki zituen ateak. 4 izarretako hotela Campo Volantin Pasealekuan dago, Zubizuriren parean. Hotel honen berezitasuna Iñaki Aurrekoetxea euskal arkitektoak egindako fatxadan dago, izan ere, gela bakoitzak duen begiratokiko leihoak kolore ezberdinekoak dira.

---

[53] Mariscal Bartzelonako Olinpiar Jokoetako Cobi maskotaren sortzailea.
[54] Chillidaren obretan oinarritu zen hotelaren estetika definitzeko eta hala da, izan ere, harrizko bloke handia emateaz gain, burdin gorri eta herdoilezko detaileak gordetzen ditu.
[55] Hotela izan aurretik, *El Hierro* egunkari lokalaren sedea zen.
[56] Frank Gehry Guggenheim museoaren lehenengo bozetoak egitean hotel horretan ostatua zegoen. Antza denez, bertan garatu zuen museoaren proiektua.

**Bilboko Tayko Hotela**



Tayko Hotela, Erribera 13n. Iturria: Infohostelero.com

2019ko urtarrilean zabaldu zituen hotelak eta Ola Martin Berasategiren jatetxe berriak ateak, Erribera 13 eraikinean[57].1924ean eraikitako edifizioa izanik, bere egiturazko hainbat ezaugarri bertan diraute, hala nola, eraikina egiteko erabilitako jatorrizko materiala. Fatxada originala den arren, barruko dekorazioak atentzioa ematen du.

**NYX Hotela**



NYX Hotela, Bilboko Areatza parean. Iturria: Expedia.es

Areatzaren parean dagoen NYX Hotela, Leonardo Hotel kate israeldarraren parte dena, 2019ko apirilean ireki ditu ateak. Borja Angulo arkitektoak diseinatutako luxuzko hotel *lifestyle*-a da, *boutique* estilokoa. Israeldarra izateak sortutako tira-birez gain, Aste Nagusia oztopatzea izan da honen bueltan sortu den gatazka entzunena[58].

# 4.5 EKITALDI ETA FESTIBAL INTERNAZIONALAK

Azken atal honek hiriaren antolamendu berria justifikatzeko eta legitimatzeko antolatu diren ekitaldi eta gertaera ezberdinak barne biltzen ditu. Horien artean kirol jardunaldiak, ekitaldi eta festibal internazionalak eta errekonozimendu eta sariak aipatuko dira.

## 4.5.1 KIROL EKITALDIAK

Atal honetan, ikusle asko mobilizatzen duten kirol ekitaldiez gain, ikuskizun bilakatuko diren horiek ere aipatuko dira. Izan ere, nahiz eta ikusle asko mobilizatu, badira kirol ekitaldiak txapelketa arruntak direnak eta beste ekitaldi batzuk, espresuki, ikuskizun bilakatu direnak.

[57] 2014ean etxebizitza okupatua zen eta hotela zela eta, bertako bizilagunak desalojatu zituzten.
[58] 2019ko Aste Nagusia baino lehen, gune horretan kontzertu eta erromerietarako eszenatokia izan ohi zen. Hotelaren harira eszenatokia Abandora mugiaraztea, hainbat kexa eta kritika sortu ditu Bilboko Konpartsen eta Bilboko eragile sozial ezberdinen aldetik.

**World Series by Renault**




World Series-erako eraikitako hiri zirkuitua. Iturria: Mapio.net

Bilboko lehen kirol jarduera internazionala *bilbainada* bezala izan da kalifikatua hainbatetan. Bilbok, 2015eko udan Bilboko Hiri Zirkuitua inauguratu zuen, hilabeteko obren ondorioz hiria guztiz paralizatua gelditu zelarik. Behin bakarrik erabili zen behin-behineko zirkuitua, 2015eko World Series by Renault ikuskizunaren harira eraikia izan baitzen. El Mundo-n[59] 2015ko uztailean ateratako artikulu batean adierazten zen bezala, orduko alkate zen Iñaki Azkunak oso era positiboan baloratzen zuen horrelako jarduera bat Bilbon, ikuskizun paregabea baitzen motorra maite duten eta maite ez duten horientzat. Hala ere, horrek suposatu zuen eraikitze lanak eta denborak ez zuen merezi izan ekitaldiak eskaintzen zuenarekin alderatuta. Hainbat kritika jaso zituen Bilboko Udalak.

**FIBAren Mundu Kopa**

2014ko udan zehar estatuko hiri ezberdinetan ospatzen zen Munduko Saskibaloi Txapelketak Bilbon ere bere presentzia izan zuen. Izan ere, Espainian jokatu zen 2014ko FIBAren Mundu Kopa. Hala, Mundialaren lehen fasea BEC-en egin zen, Bizkaia Arenan. Hainbat egunkaritan agertu bezala, eta El Mundo-k 2014ko irailean azaldu bezala[60], txapelketak espektatiba guztiak gainditu zituen, hirian 35 miloi euro utzi zituelako. Irabazi horien parte handia hoteletara eta ostalaritzara bideratua egon zen. Artikulu berdinean ageri den bezala, 0rduko Bizkaiko diputatu zen Imanol Padrales-ek adierazi zuen bezala, kirol arloko txapelketa internazional gehiago hartzeko gaitasuna erakutsi zuen Bilbok, hiria horrelako ekitaldi gehiagorako prest zegoen.

**La Vuelta a España**



2011eko Vuelta España, Bilbon. Iturria: Elcorreo.com

33 urteren ostean 2011ean La Vuelta a Españaren etapetako bat Bilbon amaitu zen[61]. 2011 ez da La Vuelta Bilbon egin den urte bakarra, 2016ean eta 2018an hiritik pasatu zen berriro. 2018an La Vuelta Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzea gutxi iruditu zitzaion EAJ-ko diputatu den Unai Errementariari eta Marca-n 2018ko urtarrilean ateratako artikulu batean adierazten den bezala[62],

[59] El Mundo. (2015). Las World Series inauguran el circuito urbano de Bilbao. Bilbao: *El Mundo Motor*. Eskuragarri hemen: https://www.elmundo.es/elmundomotor/2005/07/15/ocio/1121441316.html
[60] Ferreras, B. (2014). El Mundial de Baloncesto supera expectativas y deja en Bilbao y Bizkaia 35 millones de euros. *El Mundo.* Eskuragarri hemen: https://www.elmundo.es/pais-vasco/2014/09/12/5412cde6ca47410a498b457d.html
[61] Gatazkatsua izandako etapa honen arazo larriena indar politiko abertzaleen eskutik zetorren boikot posiblea zen.
[62] Marca. (2018). La "espectacular" etapa de Monte Oiz, "un paso" hacia el Tour de Francia. *Marca.* Eskuragarri hemen: https://www.marca.com/ciclismo/vuelta-espana/2018/01/15/5a5cae88e2704e362a8b4571.html

diputatuak EAE Tourra hartzeko aukera paregabe bezala ikusten du. La Vuelta-k 2019ko 13. etapa San Mamesetik ateratzearekin batera, zelaiaren barrualdetik ere igaroko dela iragarri du.

**Bilbao Downhill Internacional Cup**

Urteetan zehar ospatu den beste kirol ekitaldia Red Bull-en eskutik antolatzen den Bilbao Downhill International Cup-a da. 2015etik aurrera, gaur egunera arte, ospatu da Bilboko hirian, nahiz eta urtero lekuz aldatzen den. Lehenengo edizioa Etxebarria parkean izan zen; Artxandan eta Errekaldeko auzoan ere egin izan da txapelketa hau.



Bilbao Downhill International Cup-a. Iturria: Redbull.com

**European Rugby Champions Cup Final**

2018an European Rugby Champions Cup Final-a ospatu zen Bilbon; 2017 eta 2018an zehar jokatu zen Rugby Champions Cup-aren finala, hain zuzen ere. Horretarako, San Mames futbol zelaia moldatu zen eta bertan ospatu ziren partida guztiak. Espero baino jende gutxiago hurbildu zen arren, irabaziak egon ziren[63]. Istituzioen aldetik egindako kanpaina ez zuen hainbesteko eraginik izan, izan ere, asistentzia oso urria izan zen.



European Rugby Champions Cup Final 2018, Bilbon.
Iturria: Elcorreo.com

**Iberdrola Bilbao World Sup Challenge**

2019an ospatu den ekitaldi internazionaletako bat Iberdrola Bilbao World Sup Challenge-a da. 2013. urtetik ospatzen den txapelketa da, Bilboko Itsasadarra hartzen duena eta The Euro Tour-aren baitan sartzen dena. Hau Paddle Surf kirolaren txapelketa mundialaren baitako proba da, hiru egunez ospatzen dena.



Iberdrola Bilbao World Sup Challenge, Bilboko



Red Bull Cliff Diving World Series, Bilboko Itsasadarrean.
Iturria: Redbullcliffdiving.com

**Red Bull Cliff Diving World Series**

Itsasadarrean egiten den beste txapelketetako bat, eta azken urteetan ospetsuena eta erakargarriena bilakatu dena, Red Bull Cliff Diving World Series-ak dira, Red Bull-en eskutik antolatzen direnak. La Salve zubitik itsasadarrera salto egitean datza txapelketa hau. Lehenengo

[63] Giro gatazkatsua sortu zen hotel ezberdinen artean, lehiakortasunaren eraginez prezioak adostutako kopurutik gora egitearen ondorioz.

edizioa 2015ko udan izan zen eta izan zuen arrakasta ikusita urtero antolatzen da. Abandoibarrako paseoa betetzeaz gain, badira ikusle asko itsasadarra ere okupatzen dutenak. Urteekin batera, hainbat berrikuntza izan ditu World Series-ak, segurtasun eta aisialdirako prestakuntzari begira.

**EDP Bilbao Night Marathon**



EDP Bilbao Night Marathon-a, Abandoibarran. Iturria: Blog.friendlyrentals.com

Urrian ospatzen den EDP Bilbao Night Marathon bezalako hiriaren bereizgarri den gaueko karrera ezaguna da. 2019an ospatuko dena 11. edizioa izango da; 2018koan inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen. Gauez egiten den karrera hau Bilboko gune ospetsuenak zeharkatzearekin batera, Bilboko hiria ordu batzuetan geldiarazten du. Egun, publiko oso anitzak parte hartzen du karrera honetan, profesionaletatik hasita *amateur*-etara arte.



Bilboko alkate den Aburto, pilotarekin jolasten Eurocopa 2020-ren aurkezpenean. Iturria: As.com

**Eurocopa 2020**

UEFA-ren Eurocopa 2020 Bilboko San Mames zelaian ospatuko da, Estatuko hainbat hirietako zelaietan bezalaxe. Gatazka handiak aurreikusten dira Bilbon txapelketa dela eta[64].

## 4.5.2 MUSIKA FESTIBAL ETA EKITALDI INTERNAZIONALAK

**Bilbao BBK Live**

Bilboren berezitasuna izan arren, estatu mailan dagoen festibal garrantzitsuenetarikoa da. Bilbao Live Festival izenarekin aurkeztu zen musika pop eta rock festibal hau eta 2006an ospatu zuen bere lehenengo edizio, Bilboko Udalak eta Last Tour musika promotorearen eskutik. Hala ere, hainbesteko arrakasta izatearen ondorioz, 2007ko edizioatik aurrera BBK-ren promozioaren esku gelditu zen. Geroztik, BBK Live izenarekin da ezaguna



Bilbao BBK Live 2019. Iturria: Bilbaobbklive.com

4 egunez Kobetas mendiaren magalean egiten den festibal honek 13. edizio ospatu zuen pasa den uztailean. Musika eskaintzari dagokionean, hainbat talde internazional etortzearekin batera, talde lokalek ere jotzen dute, hala nola: Berri Txarrak, Zarama, Ken Zazpi, Belako eta beste hainbeste. Festibal eta musika estiloa

[64] Espainiar Selekzioak Bilbon jokatzeak ikusle jakin bat erakarriko du hirira. Aurrekari gisa 2018an UEFA ligaren baitan Bilbon ospatutako Moskuko Spartak eta Bilboko Atlhetic-en arteko partidua hartu daiteke, izan ere, hainbat tentsio eta istilu izan ziren hirian.

ikusita, erakartzen duen entzulea giro alternatibo, *progre*, sortzaile eta *hipster*-rean kokatu daitezke, musika *trendy* alternatiboa izan ohi delako.

**Gau Zuria**



Gau Zuria Moyua Plazan. Iturria: Hotelseminariobilbao.com

Gau Zuria, 700 fundazioaren eskutik, urtero egiten den ikuskizuna da. 700 fundazioa 2000. urtean Bilboren 700 urteurrena dinamizatzeko sortutako fundazio kultural eta soziala da. Horretarako, jarduera marko iraunkor bat sortu da, hainbat esparrutan eskuhartzeko, hala nola, arte ederretan, zientzia eta teknologian, ikuskizunaren artean, industrial kulturalean eta bestelakoetan. Horren adibide da, Gau Zuria eguna, 2000. urtean lehenengo aldiz ospatu zena Bilboren urteurrenari omen egiteko. Geroztik urtero egiten den ekitaldia da, arratsalde gau partera, Bilboko gune ospetsu ezberdinetan argi ikuskizunak eginez. Horretaz gain, hainbat ekitaldi kultural eta ikuskizun egiten dira museo, plaza eta bestelako eraikinetan. Hiriaren espazio publiko eta pribatua hartzen ditu: kaleak, museoak, eraikitzen eta egitura ospetsuak, espazioak eraldatu eta egunerokotasuna zerbait berezi bilakatzen duten interbentzio artistiko originalentzako lekua da.

**MTV Europa Music Awards**




2018 MTV EMA-ren kartela. Iturria: Souldout.es

Bilbon urtero ospatzen diren ekitaldiez gain, badira aipatzekoak diren gertakizun internazionalak ere, hala nola, MTV Europa Music Awards 2018. 2018an MTV sariek Bilbo izan zuten agertoki; azaroan aurkeztu ziren sari hauek BEC izan zuten eszenatoki nagusia. Horretaz gain, musika ikuskizunak egon ziren hainbat egunetan zehar, MTV Music Week Bizkaia; San Mamesen Muse, Cristal Fighters eta Berri Txarrak jo zuten, azken honek hainbat kritika jaso izan zituelarik. Horretaz gain, Barakaldo, Durango, Getxo eta Bilboko hainbat auzoetan kontzertu bereziak egon ziren, hala nola, La Pegatina, Mala Rodríguez, Wolf Alice, Los Planetas eta Lori Meyers[65].

Aipatutako ikuskizunez gain, hainbat izan dira Bilbon anekdotikoak izan diren kontzertuak, hala nola, 2013an BEC-en Rihannak eskainitakoa eta 2017an, San Mames-en, eragin handiagoa izan zuen Guns and Roses taldeak emandakoa.

[65] MTV-a Bilbora etortzea oso gatazkatsua izan zen, mugimendu sozialen aldetik, batez ere. Ikuskizun honen aurre egiteko eragile asko barne bildu zituen plataforma sortu zen: “Piztu Bilbo, Itzali MTV”. Horretaz gain kritika gogorrak egin ziren esparru jakin batean mugitzen diren euskal taldeen aurka.

### 4.5.3 ERREKONOZIMENDU ETA SARIAK

Errekonozimendu eta sariez hitz egitean, eskala internazionalean Bilbo hiria posizio eroso batean kokatu duten aitorpenei egiten zaie erreferentzia, hala nola, Europa mailako sari internazionalak, elite politiko eta ekonomikoa hirian biltzeak ematen duen prestigioa eta beste horrenbeste gertaera. Horien artean, Iñaki Azkuna 2012ko Munduko Lehendakari Onena aukeratua izatea, Mundu Mailako Ekonomia Goi Batzarra 2014an Bilbon batu zenean eta 2018an Bilbok irabazitako The Urbanism Awards saria izango dira hautatutako adibideak.

**Munduko Alkate Onenaren saria**

Aipatu bezala, 2013an City Mayors Fundazioak Iñaki Azkuna orduko Bilboko alkatea saritu zuten, 2012.urtean Munduko Alkate Onenaren golardoarekin. Sari hau Bilboko hiriaren eraldaketan alkateak jokatutako paper garrantzitsuaren harira jaso zuen, izan ere, industrial hiri bat internazionalki turismoarentzako erakargarria den kapitala bilakatu da, Guggenheim-i esker, hein handi batean.

**Ekonomia Goi Batzarra**



Lagarde Guggenheim Museora sartzen, eskoltatua. Iturria: Eitb.eus

2014an Ekonomia Goi Batzarrak Bilbon, eta bereziki, Guggenheim-en batzea esanguratsua da, ez bakarrik mundu mailako elite ekonomiko eta politikoa Bilbo hirian Goi Batzarra ospatzeagatik eta gainera, Guggenheim bezalako espazio batean biltzeagatik, egun Bilboren botere ekonomiko eta politikoaren adierazle eta esponentea den eraikina baita. Foro internazional honetara FMI-ko zuzendari den Christine Lagarde, orduan presidente zen Mariano Rajoy, orduko erregea zen Juan Carlos I eta beste hainbat pertsonalitate hurbildu ziren, enpresa ezberdineko buru, Europako instituzioetako politikari eta orokorrean, elitearen parte diren kargu ezberdinak barne[66].



Frankotiratzaileak Guggenheim Museoaren sabaian. Iturria: Elmundo.es




Aburto The Academy of Urbanism-en saria jasotzen, Londresen. Iturria: Bilbao.eus

**Europa Hiririk Onena**

Atal honekin bukatzeko, Bilboko hiriak 2018an jasotako The Urbanist Awards-eko saria aipatzea garrantzitsua da. 2018ko Europa Hiririk Onenaren saria irabazi zuen Bilbok, Vienaren aurretik kokatuz. Sari honen

[66] Egun horietan, Guggenheim inguruan neurriz gaineko segurtasunez josia egoteaz gain, istiluz bete zen Bilbo, klase nagusia den Gran Vía txikitua gelditu zelarik. Gatazka eta tentsio hauek atxiloketak ere ekarri zituen hirira.

emailea The Academy of Urbanism da. EITB-ek gaineratu zuen bezala[67], Juan Mari Aburto Londresera joan zen sariaren bila; zeremonian Bilboren eraldaketaren inguruko aipamenak egitearekin batera, gazteentzako aukeraz beteta dagoen hiri bezala irudikatu zuen. Etorkizuneko proiektuei dagokionean, AHT eta Zorrotzaurre plana aipatu zituen besteak beste, hiri enpresario, unibertsitario eta museistikoa zela azpimarratuz.

# 5. ANALISI TEORIKOA

Marko teorikoan eta ibilbide historikoan eratorri diren hainbat kontzeptu, azterketa praktikoaren baitan barne bildu den informazioarekin konbinatzea eta kontrastatzea da analisi teorikoaren helburua. Lefebvre eta Harvey-ren teorizaziotan agertu diren kontzeptuei emango zaie atentzioa; hala ere, Esteban eta bestelako autoreek plazaratutako ideiak presente egongo dira analisia garatuz joan ahala.

Bilboko hiri-ereduan espazioen sorrera baldintzatu dituen aspektu ezberdinak jorratu aurretik, aipatzekoa da kasu honetan landuko den espazioaren jaiotza aztertzeko, Bilboko hiria mundu mailan garatu den prozesu ezberdinen baitan testuinguratu beharra dagoela. Bilbon gauzatu den urbanizazio prozesua XXI. mendean nagusitu diren zentro inperialistetako hiri globalen fenomenoari erantzuten dio. XX. mendean zehar garatu zen industria sektorea agortu eta horrek zekarren ekonomia geldialdiaren aurrean, aterabide nagusia bestelako jardun eta aktibitate ekonomiko berriak piztea zen. Hala, industriaren krisiarekin batera, ekoizpen bitartekoen jabe zen burgesia kapitala eskala handiagoan metatzera behartua ikusi zen. Burgesiaren artean zegoen konpetentziak ekoizpen modua ezaugarritzen duen kate osoa berritzera behartu zituen, merkatu berriak sortzea, ekoizpen baliabide berritzaileak erabiltzea eta langileen soldatak eta lan baldintzak egoerara moldatzea suposatu zuelarik. Izan ere, produktibitatea handitzea eta ondorioz, kapital akumulazioa handiagotzea da ekoizpenaren helburua[68].

Testuinguru honetan gauzatu da Bilboren berkonbertsioa. Krisiak ekoizpenaren berregituraketa osoa hedatu eta orduko hirietan kokatuak zeuden masa produkziorako industriak periferiara mugitu ditu; hiriak hauek produzitutako merkantziak kontsumitzera bideratu zituzten, merkantziok produktu bilakatuz. Horretaz gain, kapitalarekiko harremana bizitzaren esparru gehiagotara zabaldu zen,

[67] EITB. (2018). Bilbao, elegida Mejor Ciudad Europea 2018. *Eitb.eus.* Eskuragarri hemen: https://www.eitb.eus/es/pueblos-ciudades/detalle/5197379/bilbao-elegida-mejor-ciudad-europea-2018/

[68] Ekoizpenaren gaineko kontrolean ezintasunak agerian dauden fase amaierari deritzo krisia; errentagarriak ez diren kapitalak suntsitu, kasu honetan industria, eta ekoizpena berregituratu egin da. Ekoizpen ziklo berriak irekitzen ditu, kapital metaketa eskala handiago batean gauza dadin, hain zuzen ere.

langile kapa zabaletan behar berriak sortuz. Behar hauek asetzeko zerbitzuen bidezko ekoizpena hedatu zen. Laburbilduz, hiria kontsumorako eta zerbitzuen ekoizpen prozesurako espazio bilakatu zen[69].

Urbanizazio prozesua testuinguru honetan ulertu behar da, produkzioaren gaineko kontrola duen klasearen beharren isla baita lurraldearen antolaketa ere; garai bakoitzeko hiri-eredua metaketa fase bakoitzaren berezitasunek zehazten dute. Hiriaren konfigurazioa klase politikoaren erabaki boluntario gisa ikusi beharrean, Kapitalismo Berantiarrean nagusitu den lurralde antolaketa bezala pertzibitu behar da, kapital metaketaren ezintasunen aurrean konfigurazio berri bat ahalbidetzen duena. Hala, hiria-eredua eta hiriaren konfigurazioa ez da fenomeno isolatu bat bezala ulertu behar, mundu mailako prozesu konplexuen eraginpean dago.

## 5.1 ESPAZIOAREN TRIADA, LEFEBVRE-REN ESKUTIK

Egungo ekoizpen modu kapitalistak hartutako forma azalduta, Henri Lefebvre-k (2013) [70] proposatutako triadatik abiatuta Bilboko hiriaren konfigurazioa izango da aztergai. Horregatik, Lefebvre-k planteatutako kategoriak izango dira analisi teorikoaren ardatz nagusiak: espazio irudikatua, espazio atxikia eta espazio bizitua.

### 5.1.1 ESPAZIO IRUDIKATUA

Espazio irudikatuari dagokionean, espazioaren errepresentazioek jokatzen dute paper garrantzitsuena, hau da, ekoizpen moduak determinatzen duen klase dominantearen gain erortzen da espazioaren planifikazio eta antolaketa, betiere, botere hau betikotze eta espazioa dominatze aldera. Espazioaren konfigurazioa definitzean ekoizpen modu kapitalistak kapitalaren metaketarako egin beharrezko lurralde antolaketak barne biltzen dira. Hortaz, dimentsio honen baitan hiriak bizitako aldaketa fisikoak nagusitzen dira. Konfigurazio hori egikaritze aldera, lengoaia tekniko eta zientifikoa erabiltzen da, urbanismoaren ideologia gisa funtzionatzen duena eta edozein proiektu eta planifikaziori legitimazioa ematen diona. Hau da, espazioaren antolamendurako klase dominanteak erabiltzen duen tresna nagusia antolamendurako planetan maneiatzen den hiztegi landua da, gutxi

[69] Metaketarako ezintasunaren aurrean, zentro inperialistako langileriaren lan indarra debaluatzea beharrezkoa bilakatu zitzaion burgesiari, lanpostuetan ezegonkortasun eta malgutasun handiaren ondorioz langileak lan indarra merkeago saltzeko prest egotea eraginez. Ongizate estatuaren paktua apurtuz, burgesiak klase ertainaren proletarizazioa behartu zuen, langileriaren kapa altuenen baldintzak prekarizatuz eta estatu egituren bidez merkatua liberalizatuz, enpresa txiki lokalen gainetik multinazionalak gailendu ziren. Langileriaren bizi eta lan baldintzak okertzearekin batera, langilearen baitako kultura, komunitatea eta bizimodua industria berri horien bitartez masiboki produzitzen diren merkantzia bihurtzen dira. Langileriaren alienatu egoera sakonduagoak burgesiaren boterea geroz eta gehiago elikatzen du, kapitalaren metaketa logikak langileriaren bizitza geroz eta esparru gehiago esku hartzen dituelarik.

[70] Lefebvre, H., & Lorea, I. M. (2013). *La producción del espacio*. Madrid: Capitán Swing.

batzuen ulermenetik hurbil dagoena. Boterearen eskuetan dagoen espazioa irudikatua espazioa balorizatzea du helburu, errentagarri bilakatzea.

Espazio irudikatuari dagokionean, oso adierazgarriak dira industria astunaren agorpenarekin batera Bilbo hirian instituzio publikoek martxan jarri dituzten Hiri Antolamendu Planak. 90. hamarkadan zehar teknokrata eta burokrata talde zabal batek diseinatutako plan zehatzek, inongo errentagarritasunik ez zuten lurzoruetan, merkatu berriak inposatu nahi izan zituzten. Espazioa arrazionalizatu eta arautu dute, kapital metaketaren zerbitzura jarri dute eta gainera, hiritargoaren eskuetatik aldendu dute, helburu zehatzei jarraiki espazio berriak antolatuz. Hiriaren konfiguraziorako zimentuak jarri dituzte; norbanakoak nora joan daitekeen hautatzeko gaitasuna izan arren, bidea aurretiaz determinatu dute. Hori da botere ekonomikoak eta klase politikoak Bilboko hiri-eredua konfiguratzean lortu izan duena, espazioa determinatzearekin batera, langile kapa handi baten bizitza determinatzea.

Hiri konfigurazio berria egikaritze aldera hainbat izan ziren diseinatutako planak, horien artean definitiboa, 1995ean aurkeztu zen **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra**. Eta plan honek hiriaren komertzializazio du hizpide, industriak jada produzitzen ezin dituen irabaziak hirian nagusituko diren jarduerek bete dezaten. Eta ondorioz, ezin da Bilboko hiria produkzio-ereduaren isla edo ispilu gisa ulertu, baizik eta, kapitalaren akumulaziora begira dagoen unitate ekonomiko gisa baizik, erantzule politiko argiak dituena. Lehenik eta behin, zabor espazioa arautu eta lur zoru errentagarria produzitu zen. Hortik aurrera, lur zorua saldu eta hiriaren komertzializazio prozesua martxan jarri zen, egitura eta eraikin ezberdinak zoruotan eraikiz.

Hiri komertzializazioa gauzatze aldera, Bilbon eman den prozesua pausoz pauso aztertu beharra dago. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prozesu urbanizatzailearen ildo gidaria seinalatzen duen arren, bestelako elementu batzuk aztertzekoak dira, hala nola, **Bilbao Ría 2000** elkartea. Elkartea kapital publikoa duen sozietate anonimoa da. Hortaz, instituzioetatik abiatzen den ekimena sektore pribatua indartzeko aitzakia bilakatzen da, ondasun publikoa izan beharko lukeen hori sektore pribatuak esplotatzera bideratzea sustatzen duena. Sozietate anonimo honek hiriaren gestio tradizionaletik inbertsio publiko-pribatuan oinarritzen den gestiora salto egitearen adibide da. Hiri postkeynesiarrari ateak ireki dizkio, munduko zentro inperialistan hiri askotan gertatu den antzera. Horrek diru publikoz sektore pribatua indartzea dakar, instituzio publikoek kapital metaketarako bide berria irekiz. Neoliberalismoaren adibide argia da gestio bide berri honi erantzuten dion hiri globala.

Hurrengo lerroetan atal praktikoan landu diren hainbat elementu jorratuko dira; Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak eta Bilbao Ría 2000 elkarteak egikaritutako hainbat aldaketetan sakonduko da.

Azterketa abiatzeko orduan, hiri enpresarial ereduaren osakeran nabarmentzen diren bi uneak kontuan hartuko dira. Beste hiriek sufritu duten aldaketak hizpide, lehenik eta behin hirian moldaketak gauzatzen dira; lehenengo une honetan hortaz, espazio zaborrak espazio berri bilakatzen dira, espazio errentagarria, hain zuzen ere. Bigarren uneari dagokionean, hiri pizkundea gauzatzen da; espazio berri hauek apaintzen dira, sinboloz betetzen dira eta ondoren, publizitatearen bitartez, eratutako espazio berri hauek saldu egiten dira, eskaparate bilakatuz. Eskaparate hiriaren irudia hiri globalen mapa batean ematen den lehiakortasunean ditu bere oinarriak, distintzio eta bereizgarritasunak ospea eta arrakasta suposatzen baitu, eta hortaz, aberastasuna.

Bilboren kasua berezia da, berkonbertsio prozesu guztia sinboloa den eraikin baten bueltan egin delako, prozesu urbanizatzailearen aitzakia nagusia bilakatuz. Eraikin hau **Guggenheim Museoa** da. Hortaz, zabor espazioen eraberriketa lanak museoaren eraikuntza lanen parean eta ostean egikaritu diren arren, denborarekin Bilboko hiriaren urbanizazio prozesuak beste dimentsio batzuk hartu ditu. Hiri eraldaketa eta zabalpena geroz eta leku gehiagotara heltzeaz gain, jada eratu diren gune eta eremuak geroz eta komertzialagoak dira, eraikin eta sinbolo berriekin horniturik baitaude. Hauen inguruan antolatzen diren ekitaldi eta bestelako gertaerak, azken hamar urteetan kopuruz handitu direnak, hiri-eredua indartzeaz gain, hasierako Guggenheim Museoaren hiria berresten dute. Hain zuzen ere, denborak aurrera egin arren publizitate marka indartsuena Guggenheim-ena izaten jarraitzen du eta hiriaren, zein museoaren, bueltan egiten den marketing ariketa geroz eta nabarmenagoa da. Estebanek (2007)[71] museoaren indar ornamentalaz aritzen denean, museoak duen errentagarritasun mailaz hitz egiten du, ekonomia sinbolikoan apaingarri honek betetzen duen paperaz, hain zuzen ere. Egun, argi eta garbi dago museoak duen errentagarritasuna hirian plasmatu izan dela.

Atal praktikoan **hiri antolamendua** aztertzean ikusi daitekenez, hainbat dira antolamendurako aldaketak izan dituzten hiri eremu eta lurzoruak. Horien artean esanguratsuenak Abandoibarra eta Barakaldo dira. Hala eta guztiz ere, Abandoibarrako Master Planak eta Barakaldoko Urban-Galindo Planak ezberdintasun ugari azaltzen dituzte.

Hasteko, **Abandoibarraren** kasuak bestelako matize batzuk ditu. Izan ere, berkonbertzio soil bat izatetik urrun, Bilboren bihotza bilakatu den eremu honek hasieratik hiriaren eraldaketa guztia sustatzera zetorren proiektua zen. Gainera, eremua azpiegiturez hornitu aurretik, bazuen bere sinboloa, lehen aipatu bezala: Guggenheim Museoa. Hurrengo aldaketa oro museoak behar zuen ingurua prestatzera bideratuak egon ziren. Hortaz, Bilboren bihotza izango zen hori, hiriaren pizkundea bultzatu zuten jarduera konkretu batzuetara bideratua zegoen, turismoarekin harremanetan dauden jardueretara, hain zuzen ere. Master Planean ageri den bezala, museoa

[71] Esteban, I. (2007). *El efecto Gugenheim: del espacio basura al ornamento*. Editorial Anagrama.

egoteaz gain, prozesu urbanizatzailea burutzeko asmoa zegoen eremu horretan. Urbanizazio prozesu hau berezitasunez beterik dago, izan ere, ez du Barakaldoko, Ametzolako edo Miribillako prozesuen antzik. Aipatutako lurzoruan martxan jarritako prozesua luxuzko bizitzaren esponente nagusia da Bilbon: Guggenheim Museoa, Euskalduna Jauregia, artelanez jositako paseoa, Deusto Unibertsitatearen liburutegia, Zubiarte saltoki gune amerikanizatua, Iberdrola Dorrea, bost izarretako hotelak, arkitekto famatuen eraikinak, etab. Ez zen edonolako zentro urbanizatua eratu nahi; helburua ez zen Bilbotarrok bizi ahal izateko eremua sortzea, baizik eta, Bilboko bihotz komertziala bilakatzea, luxuzko hiri zentro komertziala. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan botere ekonomiko eta politikoaren adierazle handiena da Abandoibarra.

Estetikoki, edozein hiri globalen zentroaren oso antzekoa da honako hau ere, arkitekturak, hornikuntzek eta kontsumora bideratutako eraikinek patroi oso berdintsuei erantzuten baitiote: kristalezko dorre garaiak, eraikin estranbotikoak, zubi espektakularrak, artelan eta eskulturak edonon, parke lasaiak eta kale zabalak, ibai ertzeko paseoa, bankuen sukurtsalak, enpresa handien etxe orratzak, etab. Hiri konfigurazioak hedatutako erduak espazioak homogeneizatzeko joera du, munduko leku ezberdinetan eskema berdinak jarraituz.

**Zorrotzaurre** planaren hartutako norabidea Abandoibarrak jarraitutako bidearen oso antzekoa da. Bilboko Manhattan-a izango den eremu honek, egun industriaren aztarnek ezaugarritzen dutena, luxuzko eta dibertimendu sofistikatura bideratutako jarduerak bereiziko dute. Boterearen beste sinboloetako bat bilakatzera kondenatua dago irla. Hala, eraikin eta bestelako enblema azpiegitura eraikitzea, zein eremua garraiobide eta hornikuntzen bitartez eraberritzea, auzoaren berbalorizazioa suposatuko du, auzokideen bizi kosteak gora egingo duelarik. Jakina da egun pil-pilean dagoen gatazka dela; tira-biren arrazoi nagusia etorkizuneko bizi baldintzekin harremanetan dago.

Beste izaera garatu duten aldaketarako guneak Ametzola, Basurto-Santimami eta Barakaldo dira, besteak beste. **Barakaldoren** adibidea argiena da, izan ere, etxebizitzen edifikaziora begira jarri da Urban-Galindo Plana eta Barakaldoko hiriaren berkonbertsioaren zati handi bat. Horren adibide dira ibai ertzean egindako edifikazioa eta urbanizaziora begira doazen hornikuntza guztiak: paseoak, plazak, futbol zelai berria, etab. Beste aldetik saltoki guneen fenomenoa nabaria da Barakaldon. Hiriarekin bat egiten duen azpiegitura izateaz gain, Bizkaiko gune komertzial handiena da, A-8 errepidearekin lotura zuzena duena. Barakaldoko herritarrentzako sarrera zuzena izateaz gain, leku estrategikoan kokatua dago, inguruko hiri guztietako bizilagunek sarbidea izan dezaten.

Barakaldoko urbanizazio prozesua, Ametzolaren pare, edifikaziora eta kontsumora begira doazen gune berriak eraikitzera bideratua dago. Hiri geroz eta handiagoa, hiri geroz eta jendeztatuagoa dakar. Lan indar pilaketa handiagoaz gain kontsumora bideratzen diren norbanakoen kopuruak gora egiten du. Horretaz baliatuta, hainbat eta hainbat izan dira urbanizatze prozesuarekin batera ireki

diren saltoki gune masiboak zein enpresa handi eta multinazionalen esku dauden komertzioak. Artea, Bilbondo, Megapark, Zubiarte, Gran Vía, eta abar, horren erakusle dira. Hiria zentro turistiko eta komertzial bilakatzea hainbat aspektu elikatzen ditu: alde batetik, kontsumo jarduera norbanakoaren erreprodukzioaren alderdi askotan inposatzen da, aisialdian batez ere; eta bestetik, zerbitzuen eta komertzioen sektorea indartzearekin batera, industria immobiliarioak papera garrantzitsua jokatzen du, espekulazio jarduerek gora egiten dutelarik. Zabor espazioa zena lur errentagarria bilakatzean, zoru salmenta jartzen da martxan, espekulazioari ateak irekitzen zaizkiolarik.

Aipatu gabe ezin gera daiteke hiriaren antolamendu osoa ahalbidetu duen faktorea: **garraioa**. Izan ere, Bilbok hiri bezala duen zentralitatea lortzeko bidean, ongi komunikatua dagoen hiria izan behar du. Hainbat dira garraioaren alorrean egindako aldakuntzak. Lehenengo aldaketa **Bilboko Portua** kanpoaldera mugitzean zetzan; jarduera industrialaren eskutik zihoan Portua Abra-ra mugitzeak ahalbidetu du Bilboren urbanizazio prozesua. Horrekin batera, superportuaren eraikuntzari ateak ireki dizkio, jarduera zama handiagoa jasateko prest egonik.

Horretaz gain, industriak utzitako **trenbide astuna** lurperatzearekin batera, gune urbanizatu berriak eraiki dira, Ametzola adibidez. Auzoen arteko banaketaren arrazoia eta oztopoa behin lurperatua, hiriaren zerbitzura jartzen den garraiobide bilakatzen da, Bilbo hiriaz kanpoko garraiobideekin konexioa ezarriz. Bilboko inguruetatik zentrora heltzea egun ez da zaila. Bilboko hiri metropoliaren konexioa hobetu eta garraiobide berriak sustatu dira, hala nola, tren arina den **metroa**. Gaur egun zabalpen prozesuan dagoen arren, hiri erdigunea ezaugarritzen duen garraiobidea da. **Tranbiari** dagokionez, jarduera askoz be murritzagoa du, izan ere, leku ospetsu, turistiko eta enblematikoetatik soilik igarotzen da.

Bakarrik turismo jardueretara bideratuak dauden garraiobideak ere badira, hala nola, **Tour turistikorako busa** zein **itsasadarretik igarotzen den itsasontzia**. Turismoaz ari garenean, **Loiuko aireportuak** betetzen duen funtzioa aipatzea ezinbestekoa da, izan ere, munduko beste hainbat hirirekin duen konexioak argitara eramaten du honek betetzen duen papera. Horretaz gain, inongo beharrik ez duten baina jarduera kontsumistak bultzatzen dituzten beste hainbat garraio zerbitzu martxan jarri dira Bilbo inguruetan, hala nola, **Getxoko Portua**, atrakzio turistiko berria bilakatu dena eta turismo masiborako sarbidea ahalbidetu duena, yate eta gurutza ontziak direla medio.

Hortaz, kapitalismoaren ezaugarria den mugikortasunak bi alderdi elikatzen ditu Bilbon: alde batetik, turismo jarduera erraztea Bilboko sarbidea arinduz eta hiriaren baitako komunikazio ezin hobea hedatuz; bestetik, kontsumora bideratuak dauden espazioetara heltzeko bide berriak irekitzeaz gain, garraiobidearen eraikuntzan diru publikoa inbertitzea, irabazien bitartez sektore pribatua indartuz. Horretaz gain, Bilbo hiriak Bizkaian hartutako zentralitatea aipatzekoa da, hirira heltzeko konexioak

geroz eta arinagoak direlako. Euskal Autonomia Erkidegoko beste probintziekin ezarri diren konexioetan berdina esan daiteke.

Laburbilduz, erregeneraziora begira doazen hiri antolamendurako planak edo eremu urbanoetan egikaritzen diren master planak, bizitza kalitatea hobetzeko espazioak sortzetik urrun, arrazionalitate burokratizatuaren inposaketan oinarritzen dira, non lengoaia teknikoak, espezialistak, burokratak, teknokratak eta zehaztasun zein kalkulu handiko plan estrategikoak botere politiko eta ekonomikoaren isla bilakatzen diren. Hori da, hain zuzen ere, plan hauen helburua, klase dominatzaileak espazio hauek menderatzea eta antolatzea bere klase interesak asetzeko helburuarekin. Arrazionalitate horren instituzionalizazioak kontrol eta biolentzia inplizitua dakar berarekin; kontrola eta biolentzia sinbolikoa, hiritarraren bizitza baldintzatzeko duen gaitasun gisara ulertuta. Muturreko kasuetan, kontrola ezartzeko biolentzia fisikoa zilegi da espazio hauetan, betiere espazioa menderatzen duen klasearen interesen aldekoa bada, hau da, autoritateek erabiltzen duten biolentzia bada. Askotan aipatutako arrazionalitate burokratizatuaren eskutik doa, espazio baten kontrola berreskuratzeko kategoria teknikoen bitartez biolentzia fisikoaren legitimazioa gauzatzen delarik.

Lefebvre-ren kategorietara bueltatuz, espazio atxikia eta espazio bizituari dagokienean, espazio irudikatuak bi hauek baldintzatzea du jo puntu. Aurretiaz bi esfera hauek sakontasunean aztertu ez diren arren, lehenengo begirada batean, gune hauetan nagusitzen diren jardueren inguruko azterketak ahalbidetutako hainbat gako plazaratuko dira. Lehenik eta behin, espazio atxikiaren kontzepzioari helduko zaio. Egindako azterketa azaleko plano batean egikaritu da, izan ere, espazio atxikiaren inguruko analisi sakonak ikerketa etnologikoa eskatzen du.

### 5.1.2 ESPAZIO ATXIKIA

Espazio atxikia espazioaren dimentsio sozialari egiten dio erreferentzia; espazioan nagusitzen diren praktika espazialek hartzen dute garrantzia. Praktika hauek harreman sozialetan oinarritzen dira eta gehienetan espazio irudikatua betikotzen dute. Hortaz, jakina da espazio atxikian, espazio irudikatuan bezala, ekoizpen modu kapitalistak baldintzatzen dituen ekoizpen eta erreprodukzio harreman sozialak nagusitzen direla. Lan banaketa, adin eta genero ezberdinen arteko harremanak, familiaren ugalketa eta lan indarraren hornidura gauzatzen da, batik bat, espazio atxikian. Izan ere, norbanakoak espazioa bere egitean, hau da, espazioaren kontzepzioa garatzean egikarituko dituen jarduerak definitzen dira. Aipatzekoa da, espazio irudikatuak kontzepzio hori inposatzea duela helburu. Krisiak irekitako metaketa base berriaren baitan espazio atxikian kapital akumulaziora begira doazen praktikak inposatzen eta gailentzen dira.

Hiriaren antolamendu berriak, argi eta garbi, **kontsumoa** du jarduera nagusia. Edonon eta mota askotako kontsumoak aurki daitezke Bilboko hirian: egun nagusitzen den ekoizpen modu kapitalistak kultura konfiguratzearekin batera, norbanakoen artean eraikitzen diren harreman sozialak definitzen ditu, Bilboko hiri-ereduan hedatzen diren harremanak kultur kontsumoaren baitan egikaritzen direlarik.

Hala, kultur kontsumoa eta ohituren baitan hainbat jarduera sar daitezke: aisialdia eta denbora librea, turismoa, jai kapitalista eta orokorrean, dibertimendu sofistikatua. Dibertimendu sofistikatua barne hartzen ditu Bilboko hirian aurrera eraman daitezkeen kontsumo ariketa gehienak. Izan ere, dibertimendu honek bat-bateko emozio eta sentsazioetan oinarriturik dago: Guggenheim-era sartu eta eraikinaren dimentsioekin harrituta gelditzea, Zubiarteko Hall-ean gora begiratu eta dendaz betetako saltoki gunearen sabaitik zerua ikustea, Gran Vía kalearen handitasuna eta denda ikusgarri eta koloretsu, usaintsu eta musikadunak ikustea, itsasadarreko itsasontzitik Abandoibarrako eraikin guztiak antzematea, fatxada ikusgarria duten hainbat eraikinen alboan zerua ukitzen duen Iberdrola Dorrea mirestea, tematika jakin bat duen Getxoko Portuko tabernan garagardo bat hartzea, Bilboko udaletxean argi ikuskizunak aho zabalik uztea, BBK Live-ko eszenatoki handian Estatu Batuetako *trapero* ezagunena entzutea eta La Salve zubitik tipo batek tximinoen antzera salto egitean bere bizitzaz kezkatzea. Bat-bateko emozioak hutsala eta azalekoa den irudiaren kontsumoan oinarritzen dira, inongo sakontasunik ez duten edukien kontsumoan, hain zuzen ere.

Hortaz, bai turistak, bai autoktonoak, kontsumo jarduera antzetsuak eramaten ditugu aurrera espazio hauetan. Aisialdiari dagokionean, **saltoki gune** handiek eskaintzen dituzten baliabideak ditugu: dendak, zinemak, jatetxeak, eta egunerokotasunean gure burua erreproduzitzeko beharrezkoak ditugun baliabideak, hala nola, supermerkatuetan erosi dezakegun janaria, garbitzeko produktuak, etxerako tresnak, etab. Saltoki guneetako fisionomia aipatzekoa da, izan ere, ez dira denda, zine eta jatetxe xumeak. Handitasunean oinarritzen diren komertzioak dira, diskotekara sartzea gogorarazten dizuten dendak, Amerikako pelikulaz izurritutako zinema areto handiak, janari zaborra eskaintzen duten jatetxeak eta milaka produktuz osaturiko supermerkatuak.

Jai kapitalistari begira, aisialdiaren eta denbora librearen zutabeetako bat dela esan daiteke. Jai kapitalista, egunerokotasunarekin era frenetikoan apurtzen duen fenomenoa da, errutinatik ihesean desfase justifikatura garamatzana. Hain zuzen ere, BBK Live eta antzeko kontzertu, festibal zein jaietan ikusi daitekeen paisaia alkohol eta drogek probokatutako desfasearena da, non pertsonen arteko harremanak erasokorrak eta biolentoak diren. **Makro jaialdi** hauen eskaintza, kalitate aldetik eskasa izateaz gain, kultura komertzializatua sustatzen du eta jarduera oro alkohol eta drogen erabilerara mugatzen da, desfasea normaltasunetik irteteko aitzakia izanik. Beste behin, handitasunaren paradigma latentea da, jaiaren dimentsioak, mozkorra maila eta hitz egiten duzun

pertsona kopurua kuantitatiboki neurtzen da eta geroz eta kopuru handiagoan izan, orduan eta hobeto.

Bukatzeko, **turismoak** jarduera guzti hauek barne bildu ditu eta Bilbo hiria atrakzio parke bilakatu du. Guggenheim eta honen inguruetan altxatu diren eraikin eta bestelako egitura oro atrakzio parkean elementuak izatera bideratuak daude. Turismo kontsumo horren bueltan industria oso bat hedatu da, hoteletatik eta jatetxeetatik garraiobide berrietara helduz. Hala, fenomenoa ez da arte kontsumora soilik mugatu, Alde Zaharreko ostalaritzak, lau eta bost izarretako hotelak, Getxoko Portuko luxua, Abandoibarrako pasealekuko eskulturak, Bilboko Bus turistikoa eta itsasadarretik doan itsasontzia, Artxandako begiratokiko Bilbao Sign-a eta beste hainbat elementu, Bilboko fenomeno turistikora gehitu dira. Kontsumo ariketa honen baitan ez du zertan dirua eta merkantziaren edo produktuaren arteko harremana zuzena izan behar; irudiaren kontsumoa turismoaren baitan erroturik dagoen jarduera da, Bilboko hiriak eskaintzen duen paisaia espektakularraren kontsumoa, argazkitan materializatu daitekeena. Geroz eta hiri edo/eta eraikin irudi ikusgarriagoa, orduan eta beharrezkoagoa argazkian gauzatzea, argazki bildumara gehitzeko helburuarekin.

Kontsumo espazio hauetan harreman sozialen erreprodukzioaren gehiengo partea burutzen da; horretaz gain, produkzioak sortzen dituen merkantziak kontsumitzean lan indarraren erreprodukzioaren zati bat ematen da ere. Aurretiaz esan bezala, kapital metaketarako ireki den ziklo berri honetan, behar eta desio berriak piztu dira langile masa handien gain, dinamika honek merkatu berriak bultzatu dituelarik. Merkatu berri horien adibide asko orain aipatutakoen artean ageri dira, kontsumo industria handi eta konplexua osatu dutenak. Espazio hauetan aurrera eramaten diren jardueren azterketa behin eginda, bada garaia jarduera guzti hauek ahalbidetzen duten bestelako ekintza kate batzuetan atentzioa jartzeko: **lanaren** esparrua, hain zuzen ere.

Merkatu berri hauetan bultzatzen den kontsumoa aztertzea ez da posible bertako lan egiturak hartu duen izaera kontuan hartu gabe. Eskutik doazen bi fenomeno dira: turismora bideratuta dagoen hiriak ez du langile klase autoktonoaren lan baldintzak hobetzeko asmorik. Hori gutxi balitz, turismoak ekarri dituen lan postu berrien dominaz harro dago prozesu honen erantzule den klase politikoa, EAJ alderdia zehazki. Lan postu berri hauek, aldiz, bizitzaren **prekarizazioan** eta **esplotazioan** oinarritzen dira.

Aurreko atalean aipatutako kontsumo jarduerak autoktono eta turistek burutzen dituzte, nahiz eta euren artean ezberdintasunak agerikoak izan. Hala ere, lanaren alderdiari dagokionez, soilik sektore hauetan aritzen diren langileek pairatzen dituzte hiri ereduak inposatzen dituen lan baldintzak. Egun hedatu den lan egiturak, hirian bizi den langile kapa zabalaren bizitza baldintzatzeko eta determinatzeko haina indarra du. Izan ere, industriaren agorpenak ekarritako krisialdiarekin batera,

langabeziak gora egin du langileen arteko lehiakortasuna geroz eta agerikoagoa izanik. Errealitate honen baitan betikotzen dira lan baldintza prekarioak, lanaren beharrak eta prekarizazioak langilea egoera kaskarrean bere lan indarra edozein preziotan saltzera eramaten baitu. Hori gutxi balitz, sistemaren bazterretan dauden langileek pairatzen dituzte lan baldintza okerrenak, hala nola, emakumeak, gazteak eta etorkinak.

Hasieran aipatu bezala, merkatu berriak sortzearekin batera, harreman sozialen erreprodukzioa kontsumoan oinarritzen den kulturan egonkortu eta hedatu da, kapitala bizitzaren esparru gehiagotara heltzeko gaitasuna garatu duelarik. Kapitalismoak hiri eredu berri honen konfigurazioan kontsumoaren nagusitasuna inposatzearekin batera, gainbalioaren erauzketa geroz eta handiago izan dadin lan eta bizi baldintzen okerragotu ditu. Horretarako, lan egituraren bueltan lan eredu berri bat gailendu da: prekarietatean, malgutasunean, lan aldi partzialetan eta ezegonkortasunean oinarritzen den lana, hain zuzen ere.

Hala, Bilboren eraldaketan industria sektorea zerbitzu sektorearekin ordezkatua izan da eta ondorioz, lan eredu berria zabaldu da hirian. Lan eredu berri hau komertzio lokaletatik haratago, **multinazional** eta **frankizia** ezberdinetan nagusitu da, hala nola: Starbucks, McDonalds, Inditex, Pans and Company, Eroski, Primark, Ikea, etab. Hala ere, luxukoak diren komertzio, hotel eta museoetan ere baldintzak latzak izaten jarraitzen dute; Guggenheim Museoa horren adibide argia da. Bilboko Udalak bultzatutako ekimenak ez dira salbuespenak, eta Bilbaobizi bezalako zerbitzuan aritzen diren langileak, egun, baldintza lazgarri berdinetan aritzen dira lanean.

Lan baldintza okerrek komertzioen arteko lehiakortasunean eragina dute, lan ordu luzeagoak, prezio baxuagoak eta publizitate handiagoko komertzioak baitira, irismen eta eragiteko ahalmen handiagoa dutenak eta hiriaren zentro komertzialean edo kontsumo eremuetan kokatuak daude. Horrek hiriaren komertzio txiki eta ertainean eraginak ditu, lan baldintzak okertzera behartuak egotetik porrot egitera arte. Komertzio txikia desagertuz doan heinean, zentro turistiko eta komertzial berriak sortu eta indartu egiten dira, hauek utzitako lokalak multinazional eta frankiziek erosi eta euren komertzioetako bat irekiz. Horren adibide argia Bilboko Alde Zaharra dugu, duela pare bat urte auzo erresidentziala zena egun turismoaren foko berria bilakatu da, hainbat komertzio berri ireki dituena: Tiger, Woman Secret, NYX Hotela, Zara, Calzedonia, KFC, Ale-Hop eta beste hainbeste. Beranduago azalduko den bezala, aldaketa horiek eraginak ditu auzoan, bizi kalitate eta bizi-kostuan.

Orain aipatutako bi jarduera nagusiek ezaugarritzen dute espazioa; kapital akumulaziora begira doan zerbitzu sektorearen bi aurpegiak dira. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa den hirugarren faktore batek espazioa, hein handi batean, baldintzatzen du. Hiri urbanoetan **espazio "publikoa"** deritzon horren erabilpen pribatiboari eutsiko zaio. Izan ere, espazio "publikoan" egin daitezkeen jarduerek muga asko dituzte. Ez da berdina Otxarkoagako auzoan espazioak izan dezakeen erabilpena Abandoibarran

burutzen diren jarduerekin alderatuz. Askotan, espazioaren konfigurazioaren aurka eta erresistentzian egikaritzen diren jarduerak egikaritzean, ustez guztiona den espazioaren erabilpen pribatiboa egiteaz gain, ordena publikoa aztoratzea egotzi diezazukete. Egiazko eta hipotetikoak diren hainbat adibide dira hauek: dantzari talde batek Ingelesen Kanpan musika eta dantza saio bat emateko baimena eskatu ezean, ohartaraziak izateaz gain isuna jaso dezakete; pertsona multzo batek kalean egindako gehiegizko soinua dela eta, auzokideen kexuen ondorioz zein udaltzainaren iniziatibaren eraginez zigorra jaso dezake; gazte batek egindako pintada aldarrikatzaile batek eraginda, multa jasotzeaz gain, kartzelaratua izan daiteke; Guggenheim Museoko lan baldintza duinen aldeko kontzentrazio baten parte hartzeagatik, langileak kaleratuak izan daitezke; gazteek *boteiloila* egiteagatik zehatuak izan daitezke; etxebakoak Calatrava zubiaren azpian lo egiteagatik kanporatua izan daiteke. Finean, ondasun komuna izatetik urrun, ondasun publikoa deritzon horretan sektore jakin baten erabilpen pribatiboa soilik gailendu daiteke. Hala, espazio publikoa Estatuaren espazioa da, espazio ustez neutroa, okupatu ezin daitekeena eta are gutxiago, espazio gatazkatsua ezin daitekeena izan.

Kalea erreparatuz gero, edonon aurki daitezke indar ekonomiko eta politikoen erabilpen pribatiboak: autobusetan, markesinetan, eraikinetan, plazetan, metro geltokietan zein espaloietan bere produktu, hauteskunde-kanpaina, jatetxe, zerbitzu edo beste hamaika formatako salgaiak nahi beste eta nahi bezala promozionatzen ditu. Ez hori bakarrik, espazio publiko horretan interes jakin batzuk ordezkatzen dituzten ekitaldi eta gertakari ezberdinak gauzatzeko inongo arazorik ez dituzten bitartean (BBK Live, Red Bull saltoak eta hiriaren promozioan ekarpena egiten duten ekimenak), instituzio publikoekiko era autonomoan antolatuak diren beste hainbat ekimenek arazo eta oztopo ugari dituzte jarduera txikiena ere martxan jartzeko, hala nola, jai herrikoiak, bazkari sozialak, edo sinpleki, espazio publikoaren nahierara erabiltzea. Hala, kapitalak espazio balorizagarrien ekoizpena eta euren arteko zirkulazioaren gaineko kontrola komandatzen duen heinean, ez du baimentzen kaleak elkarrekin egon eta izateko tokiak izan daitezen. Izan ere, zerk ezberdintzen ditu bi jarduera ereduak? Batak berme juridiko eta monetarioaz jokatzen duen bitartean, besteak horren aurka egiten duela. Kontrakotasun harreman horretan funtsa dirua litzake, azken instantzian, boterea.

### 5.1.3 ESPAZIO BIZITUA

Lefebvre-ren espazioaren triadarekin bukatzeko espazio bizituaren inguruko apunte batzuk aurkeztuko dira. Espazio bizitua sinbolismoz betetako espazioaren imaginario eta irudikapena da, interpretazioz eta karga emozionalaz josia egon ohi dena. Normalean artisten, idazleen eta filosofoen espazioa da, hauek espazioak duen erabilpen baliotik haratago, esanahi bat atxikitzen diotelako. Hala eta guztiz ere, espazioaren konfigurazioan espazio bizitua prestigioa, distintzioa eta luxuaren hiri irudia helarazteko aukera ere bada, honen inguruan sinboloz betetako imaginario oso bat eratuz. Izan ere, imaginario honek kohesio soziala eta proiektu politikoaren zilegitasuna eskuratzeko

gaitasuna du. Hiri-eredua berresteko estrategia gisa har daiteke, boterearen zerbitzura dauden baliabideak martxan jarriz, hala nola, marketing-a, publizitatea, komunikabideak, etab. Subertsiorako eta desobedientziarako espazio ere bada. Espazio bizitua, hortaz, espazioaren inguruko kontzientzia garatzean datzan, nahiz eta kontzientzia hau faltsua edo alienatua izan. Espazioak hartutako izaera zilegiztatzeko inposatzen diren subjektibitateak espazio bizituan hedatzen dira.

Bilboko hiri konfigurazioaren inguruko iruditegia argia da, EAJ alderdi politikoa hiriaren bueltan berkonbertzio ariketa hasi zuenetik eratzen joan dena. Hasieratik erantzun beharreko galdera da, zertan bilakatu nahi dute Bilbo? Handitasunaren hiria da, luxua izkin guztietatik dariona; hiri **espektakularra**, eraikin miresgarriekin, punta puntako joerak jarraitzen dituena, kalitatezko garraiobide eta hainbat zerbitzu eskaintzen dituena, lan postu berriak sortzen dituena, irudi berritzailearekin datorrena, eta guztiz europeizatua eta amerikanizatua dagoena, nahiz eta euskal naziotasunaren ezaugarriak mantentzeko gaitasuna izan; gazteentzako aukeraz jositako hiria, laburbilduz, **hiri sortzailea** eta **enpresariala**. XXI. mendeko hiria, hain zuzen ere. Industriaren porrota adorez eta balentriaz gainditu duen hiria da Bilbo, munduko alkaterik onenaren gidaritzapean garaiko klase politikoak mapa internazionalean kokatu izan baitu hiria. Etengabeko garapenean eta aurrerapenean oinarritutako hiriak ez du etenik.

Satirizatutako diskurtso honen baitan, hainbat dira azpimarratzeko elementuak. Alde batetik, **handitasunaren** doktrina. Hiri-ereduaren ezaugarrietako bat espazioaren dimentsioa da, handitasunean eta espektakularizazioan oinarritutako konfigurazioa, hain zuzen ere. Ez soilik eraikin eta bestelako azpiegiturei dagokionean, hiria bera era espektakular batean saldu egin da, Bilbo bakarra izango balitz munduan, esperientzia ezin hoberako eszenatokia eta luxuzko bizitza eskaintzen duena. Hortaz, hiriaren bueltan antolatzen eta egikaritzen diren ekimen guztiak dimentsio hori elikatzen dute, hala nola, Gau Zuria, gaueko maratoia, San Mames berria eta hiriaren berezko diren hainbat eta hainbat ekimen. *Bilbainada* kontzeptua oso ongi atxikitu daiteke Bilboko errealitatera, izan ere, hiria eraldatzen ari den klase politikoak bere burua goraipatzeko erabilera urria duten baina ikusgarriak diren ekimenak oso gustuko ditu. Hauek guztiak hiria gorestera begira doazen iniziatibak dira, Bilbon bizitzea edo hau bisitatzea den zortea azpimarratzeko asmoarekin. Horregatik, handitasunarekin batera distintzioaren eta bereizgarritasunaren ideiak aipatzea beharrezkoa da.

**Distintzioa** espektakularizazioaren ideiarekin estuki lotuta dago. Bilbori distintzio berezia ematen dion sinbolo nagusia, jakina denez, Guggenheim Museoa da. Munduan zehar hainbat dira distintziorako sinboloak: Londresen Big Ben, Bartzelonan Sagrada Familia, Parisen Eiffel Dorrea, Pisan Pisako Dorrea, Erroman Coliseoa, New Yorken Empire State Dorrea, eta abar. Hiria bereizgarritasunera daramatzaten eraikin hauek bezala, museoa Bilboren sinbolo nagusia bilakatu

da, turismo masiboaren fenomenoaren bultzatzaile gorena bilakatuz. Hala, distintzio horrek hiria mapa internazionalean jartzeaz gain, hauen artean lehiakortasuna sustatzen du, bereizgarriagoa den eraikinaren bila. Hortaz, distintzioa eta horrek dakarren lehiakortasuna, azken finean, prestigioa suposatzen du hiriarentzako, autore ezberdinek hornitutako sinboloen bitartez hiria luxuaren irudikapenaz hornitzen delarik. Prestigioa botere politiko eta ekonomikora itzuli daiteke, eskala internazionalean errespetu eta ohoretzat ulertu baitaiteke. Laburbilduz, turismo masiboa erakartzen duen sinbolo bitxienak aberastasuna ekartzeaz gain, prestigioz betetzen du hiria, elite politiko eta ekonomikoaren atentzioa irabaziz, hauen boterea elikatuz. Hortaz, eraikin bitxiak, bere horretan, ez du inongo baliorik turismoa erakartzeko tresna eraginkorra ez bada.

Prestigioaren adibide dira Bilboko hiriak berkonbertsio prozesuaren ondorioz jaso izan dituen **sariak**, hala nola, Azkuna munduko alkate onena izendatzea, edo Aburtoren legealdipean Bilbo Europako hiri onenaren sariaz saritzea. Baina hori baino adierazgarriagoa da Troika eta munduko ekonomiaren arduradun politiko garrantzitsuenak Guggenheim bezalako eraikinean biltzea. Kanpora begira eskala internazionalean kokatua dagoen hiriaren irudia helarazteaz gain, barnera begira arrakasta osoa izan duen proiektua da Bilboko eraldaketarena. Ukiezina den EAJ alderdia legealdiro zailtasun geroz eta gutxiagorekin irabazten ditu gehiengo zabalenak. Hiri konfigurazioaren inguruan sortu den imaginario eta iruditegiak ahalbidetzen du EAJ bezalako alderdiek duten etengabeko arrakasta.

Hiriaren irudia zuriketa indartzen duen beste elementuetako bat **komunikabideak** dira, botere politikoaren eskuineko begi bezala funtzionatzen dutenak. Hauen artean, **El Correo** eta **Deia** dira Bilboren inguruan hedatu den irudia elikatu duten egunkariak, aurrera eraman diren proiektuen inguruan hitz onak soilik eskaini dituztenak. Aztertzekoa da bi egunkari hauen erredakzioan dauden kideak eta finantzazio bideak. Egunkariak albisteen berri emateko duten era partzialaz gain, Bilboko hiri konfigurazioaren inguruan ariketa ideologikoa eraman izan dute aurrera komunikabide ezberdinek; asmoa, hiri neoliberalaren ideia bilbotarren buruetan itsastea eta honen zilegitasun osoa lortzea. Mekanismo hauetatik abiatuta, kohesio soziala hedatu eta edonolako egoera gatazkatsuak ekidin daitezke.

Hiri-eredu jakin honen baitan eta orokorrean ematen diren zapalkuntza esperientzietatik eratorritako teorizazio eta pentsamenduek botere harremanen inguruko interpretazioak ahalbidetu dituzte. Boterearen ariketatik at, masa kritikoak hiri-ereduaren eskutik doazen espazioetan ematen diren botere ezberdintasunak eta zapalkuntza egoerak salatzen dituzte. Bilboko hirian egindako kanpainaren fruitu den iruditegiaren kritikatik abiatuta, espazioaren plano ezkutuan ematen diren dinamikak plazaratu dituzte, aurkakotasunak agerian utziz. Gatazka hauen artean prekarietatea eta lan baldintza txarrak, gentrifikazioa eta auzoen komertzializazioa, espazio “publikoaren” pribotasuna eta ondasun komunaren aldarrikapena, kalea okupatzearen aldeko ekintzak, eta abar. dira

entzunenak. Espazioaren eta honen egokitze lanen inguruan garatu den kontzientziari esker, espazioa antolatzeko gaitasuna duten horien interesen eta espazio horietan desjabetu kondizioan aritzen direnen beharren arteko talka argitara eman da. Izan ere, espazio antolamenduak, atal osoan zehar aipatu bezala, hainbat aspektu baldintzatzen ditu: bertan aurrera eramango diren jarduerak eta harreman sozialek hartuko duten forma, laburbilduz, bizitzak determinatzeko gaitasuna du. Izan ere, espazio hauek proiektu neoliberala indartzeko eta betikotzeko helburuarekin jaiotzen dira.

### 5.1.4 ESPAZIO ABSTRAKTUA

Analisia teorikoarekin bukatzeko, eta orain arte Bilboko hirian sortu den espazioaren nolakotasuna definitzeko asmoarekin, kapitalismoak sortzen duen **espazio abstraktua** aurkeztuko da. Espazio abstraktua kapitalismoaren espazioa da, gizartearen aurrean klase dominazioa izkutatzeko estrategia. Hala, espazio abstraktuak espazioaren berezko ezaugarri eta kualitateak ezabatu eta honen gainean homogeneitatea inposatu nahi duen espazio eredua da, balio kuantitatiboen bitartez neurtu daitekeena. Izan ere, lan konkretu eta abstraktuarekin oso alderagarria da: lan konkretuak erabilpen balio jakin bat duten merkantziak sortzen ditu; lan abstraktuak aldiz, erabilpen balioa alde batera utzi eta hau kuantifikatzen du, diruaren bitartez; dirua balioa neurtzeko ahalmena duen neurria bilakatzen da.

Espazioekin berdina gertatzen da: espazio konkretuek kualitate jakin batzuez eta erabilpen jakin batez gozatzen dute; aldiz, espazio abstraktuek, homogeneitatea bilatzen dute, bestelako espazio batzuekin alderagarria izatea eta hortaz, kuantitatiboki neurgarria bilakatzea. Espazio instrumentala den espazio abstraktu horrek errentagarritasuna bilatzen du, batik bat. Egungo zentro inperialistak inposatutako hiri konfigurazioak espazio abstraktuak sortzen ditu, hauen kapitalizazioa hizpide duelarik. Aipatutako fenomenoa Bilbora ekarri daiteke, guztiz eraldatu egin den Bilboko hirian espazio abstraktuaren sorrera argia delarik.

Laburbilduz, urbanismoak plano globalean definitzen diren zirkuitu ekonomikoekin harremanetan dauden espektatiba supralokalek baldintzatutako ikuspegia inposatzen du. Hala, espazio urbanoa auzoen behar eta hauen eguneroko errealitatetik aldentzen diren instituzio eta bloke sozialek instrumentalizatzen dute. Emaitza, orain aipatutako espazio abstraktu instrumentala da, errebitalizazioaren mozorroaren atzean ordena sozio-ekonomiko jakin bat ezkutatzen duena, onuradunak eta baztertuak banatzen dituena, aurkaritza eta ezberdintasunak sortzen dituena. Ordena jakin baten espazioa espazioak duen ordenaren atzean ezkutatuta gelditzen da. Urbanismoaren aitzakiak, edo ideologiak, zilegiztatzen du espazio abstraktuen sorrera.

## 5.2 MUGIMENDU SOZIALAK: PROTESTAK ETA KRITIKAK

Analisiari amaiera emateko, atal berezia merezi duen gai baten inguruan hainbat apunte egingo dira. Espazioaren sorreran eta Bilboko hiri konfigurazioak hartutako formak aztertzean hainbat izan dira aipatutako gatazkak eta aurkaritzak. Izan ere, prozesu ezberdinek ezaugarritu dute Bilboko hiri ereduaren hedapena: Bilboko postal hiria gehiengoaren lepotik eraikia izan baita. Hortaz, hiriaren eraketa ez da oharkabean gertatu. Langile borrokaren tradizioak ezaugarritu duen hirian, inposatutako konfigurazioak eta hiri ereduak betikotzen dituen botere harremanak eta egiturazko talken inguruko kontzientzia argia da. Hala, kontzientziaren garapen horrek bultzatu du hainbat mugimendu sozialen antolakuntza eta jarduera, hiri eredu inposatuaren aurkako diskurtsoa artikulatzera eta eraiki nahi den ereduaren inguruan eztabaidatzera.

Bilboko eta hainbat hiri ezberdineko mugimendu sozialek hiru prozesu nagusi interpelatzen dituzte hiri ereduaren auzian: gentrifikazioa, turistifikazioa eta prekarizazioa. Nahiz eta tarte hau kontzeptu hauek definitzekoa ez den, hurrengo lerroetan aurkeztuko diren eragile politikoen eta sozialen diskurtsoa aztertzeko fenomenoen definizio labur bat gehitzea beharrezkoa da.

**Gentrifikazioa** prozesu urbanizatzailearen ondorio gisa ulertu behar da; prozesu ekonomiko eta politiko partikular batzuen eraginez espazio jakin batean bizi diren bizilagunak kanporatu eta kapital akumulaziora begira doan espazio errentagarria eratzean datza. Desplazamenduak baliabide ekonomiko urriko bizilagunak maila adkizitibo altuagoko auzokideengatik ordezkatuak izatea eragiten du. Langile auzoetan gertatzen den fenomenoa da; zentroan kokatzen diren auzoak periferiara mugitzea da asmoa, eurek okupatutako espazioan jarduera komertzial altuko guneak eratzeko helburuarekin. Gentrifikazioak auzoko komertzio mota aldatzeaz gain, turismora begira doazen jarduera erakargarriak hedatzen ditu. Hortaz, espazio hauetan zabaltzen den komertzio mota berriak auzoa birbalorizatzen du, bizi kostuak gora egiten du eta ondorioz, auzokideak auzotik kanporatzen ditu, zuzenean ala zeharka bada ere. Bilboko Alde Zaharra gertakari honen adierazle argiena da.

**Turistifikazio** prozesua gentrifikazioari jarraiki agertzen den fenomenoa da; komunitate lokal bateko espazioak turismoaren beharrei eskaintza, instalazioak eta zerbitzuak bideratzean sortzen den eraginari egiten dio erreferentzia. Bizilagunen beharrak asetzetik urrun turismoaren eskaria betetzera zuzendutako eskaintzak ezaugarritzen dute prozesua. Hortaz, interes turistiko handiko espazioetan desplazamendua gauzatzen da, baina kasu honetan ez da baliabide ekonomiko urria duten auzokideak ordezkatzen botere adkisitibo handiago dutenekin. Auzoa turismoaren beharrak asetzera bideratzen da, auzokideak turistengatik desplazatuak izaten direlarik.

**Prekarizazioa** kapitalismo neoliberalaren baitan hedatu den lan eredua da. Lan ereduak kapital akumulazioa handitzera begira doa malgutasuna, ezegonkortasuna, segurtasun eza eta aldi baterako lanaldiek ezaugarritzen dutelarik. Aurreko garaiko lan baldintzak okerragotzean datza, ongizate estatuaren paktu sozialaren hausturaren eta krisiaren eraginpean hedatu dena. Tertzerizazioa eta azpikontratazioa, zein beste hainbat lan forma berritzaile, dira prekarizazioa eta prekarietatea hedatzeko bide ezberdinak.

Bilboko mugimendu sozial ezberdinak aztertzeko hiru dira kontuan hartu beharreko antolakunde eta eragileak: **Ernai** (Gazte Antolakundea), **GAS** (Bilboko Gazte Asanbladen Sarea) eta **Piztu Bilbo**. Antolakunde eta eragile hauek aztertzeko ekimen ezberdinetan plazaratutako irakurketen azaleko azterketa egingo da, adierazpenetan azpimarratzen diren gako garrantzitsuenetan atentzioa jarriz. Horretaz gain, Bilboko hiri eredua eta aurretiaz azaldutako hiru prozesuak salatzeko burututako ekimenei so egingo zaie.

### 5.2.1 ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Ernai Gazte Antolakundea Ezker Abertzale organikoaren parte da, bere burua gazte antolakunde iraultzaile gisa duena[72]. Ernaik hiri ereduaren lanketan egiten duen ekarpena aztertzeko Bilboko Ernaik martxan jarritako ekimen ezberdinetan sakondu beharra dago. Horien adibide da, *Euskal Herrian Bizi* ekimen nazionalaren baitan *Bilbo Bizia* dinamikan plazaratutako aldarri eta irakurketa. *Bilbo Biziak* EAJ-ren interpelazio zuzena bilatzen du: alderdi politiko honen hiri eredu merkantilistaren kontrako borrokan oinarritzen da. Ekimenaren inguruko adierazpenetan[73] ageri den bezala, dinamikak bi aspektu jorratzen ditu, bi eredu aurkaritzan jartzeko helburuarekin: alde batetik, hiri ereduaren salaketa eta interpelazioa, eta bestetik, antolakuntza eta borrokarena.

Lehenik eta behin, EAJ-ren erantzunkizunpean hedatzen den aisialdi, lan eta bizi ereduaren kritika garatzen dute. Hala, hiri eredu inposatuaren aurka agertzen dira: MTV-a, Red Bull saltoak eta Eurocopa2020 bezalako ekimenek aisialdi merkantilistara bideratutako hiria betikotzeaz gain, espazio publikoaren desjabetzearen bitartez, gutxi batzuen aberastasuna dakarte. Gran Vía-ko multinazionalak hiriaren ardatza izanik, espazio publikoa geroz eta arautuago dago, hiria gazteentzat

[72] Antolakundearen sorrera 2013. urtean kokatzen da, Sortu eta LAB-ekin batera *Zutik Euskal Herria* ebazpenaren ondoren sortu zen, Ezker Abertzalearen antolaketa berriaren sortze prozesuan. Lerro ideologikoak hiru dira: independentzia ildo nagusi gisa, eta euskal estatu baten baitan, sozialismoa eta feminismoa. Horretaz gain, beste hainbat ildoren bueltan aritzen da Ernai, hala nola, ekologismoa, internazionalismoa, euskalduntzea, etab. Marko estrategiko gisa Euskal Herria du, praktika politikoa eta proiektua maila nazionalean garatzeko helburua izanik. Hala, marko honen baitan antolatzen da auzo, herri, hiri, eskualde eta maila nazionalean. Bilboko Ernai auzo ezberdinetan antolatzen da, auzoko gazte problematika lantzeko eta auzo bakoitzeko gazte mugimendua dinamizatzeko helburuarekin. Horrekin batera, auzoetako Ezker Abertzalearekin batera lanketa ezberdinak aurrera eramaten dituzte. Irakurketarekin hasi aurretik, aipatzekoa da Ernai hanka instituzionala (EH Bildu) duen mugimenduaren parte organiko izanik, oso baldintzatua ikusten dela jarduera instituzionalarekiko.

[73] Uriola.eus. (2018). Hiri eredu merkantilistaren kontrako dinamika. *Uriola. eus*. Eskuragarri hemen: https://uriola.eus/bilbo/1518689001092-hiri-eredu-merkantilistaren-kontrako-dinamika

hilda dagoela salatuz. Gainera, Bilboko Ernaik makro-ekitaldien beste alderdia ere jorratzen du: gertaera hauen aitzakipean hiri ereduaren bultzatzaileek aberastasuna ekarriko dutela saldu eta finean, denbora baterako lan postu ezegonkor eta prekarikoak sortzen dira hirian, gazteek beteko dituztenak. Horrekin batera, Bilboko hirian gazteak emantzipatzeko zailtasunak izaten jarraitzeaz gain, gune autogestionatuak desalojatzen segituko da.

Kontrajartzen den aspektuari dagokionean, Ernaik Bilboko hiri bizigarriaren aldeko apostua egiten du. Bilbo bizia auzoetatik eraikitzen den hiria da, gazteentzako emantzipaziorako bizi eta lan baldintza egokiak dituen hiria. Gune autogestionatuak eta emakumeen borroka bere egiten duen Bilbo, hain zuzen ere. Horretarako, komunitatearen saretzea eta konplizitateak sortzeko deia egiteaz gain, Bilboko hiri eredua inposatzeko boterea duten "trajedunei" ezetz esateko deia zabaltzen dute.

Bilboko hiri ereduaren kontrako protesten artean entzunena 2017ko ekainean Guggenheim museoan egindako *performance*-a da. "Postalen atzean bagara, HERRIA BIZIRIK!" lelopean, turistaz eta langilez mozorrotutako 50 gazte, Guggenheim museoaren lakuan bainatu ziren, koltxoneta eta bestelako osagarriekin batera[74].

### 5.2.2 BILBOKO GAZTE ASANBLADEN SAREA

Bilboko Gazte Asanbladen Sareari (GAS) dagokionez, lehendik funtzionamenduan bazegoen ere 2017ko irailean aurkeztu zen. Sare honen baitan Bilboko gaztetxe, gune autogestionatu eta gazte asanbladak daude, auzoka antolatzen direnak. GAS-en helburua okupazio mugimendua indartzearekin batera gazte asanbladen arteko koordinazioa sortzea da, informazioa trasbasetik haratago jardun politiko bateratu bat hedatzeko. Gaztetxeen defentsan antolakuntza efektiboa lortzeko bidean emandako pausoez gain, okupazio mugimendua berpiztea eta gazteen artean sozializatzea lortu du, gune autogestionatuak eta okupatuak geroz eta auzo gehiagotan presentzia izanik. Horrekin batera, hauek auzoetan betetzen duten funtzioa dela eta, erreferentzialtasuna lortu dute, autogestioaren filosofia zabaltzearekin batera, era autonomoan garatu daitezkeen proiektuak indartuz.

2018-2019 ikasturte hasieran kanpaina bati hasiera emateko Bilboko hiri ereduaren inguruko irakurketa [75] orokorra plazaratu zuen GAS-ek. Bertan, okupazioaren eta autogestioaren beharrezkotasuna azpimarratzen zuen kapitalismoak inposatzen duen bizi ereduari aurre egiteko eta honekiko klase autonomia lantzeko. Autogestioa bezalako hitz potoloak sakontasunean definitzea prozesu luze gisa irudikatzen duten arren autonomia materiala eta politikoa ahalbidetzen duen

[74] Ernai. (2017). Postalen atzean bagara, HERRIA BIZIRIK! *Youtube: Ernai Gazte Antolakundea.* Eskuragarri hemen: https://www.youtube.com/watch?v=ItUdFDLQGaA
[75] GAS. (2019). Gazteok Bilbon autogestioari ekin*! Facebook: Bilboko Gazte Asanbladen Sarea*. Eskuragarri hemen: https://www.facebook.com/1347616888688987/photos/a.1381784345272241/1990557124394957/?type=3&theater

